

Frederic Mistral

MIREIO

euskaratzailea: Orixe

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Mireio*, Frederic Mistral / Nikolas Ormaetxea
Orixe. Verdes Atxirika, 1930

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00231.htm>

FREDERIC MISTRAL

OARRA. Mistralen bizitzaren argitasun ok, geienak, *Kis isclo d'or* (Urrezko ugarteeta)tik artuak dira, ta *Moun espelido* (nire yatorria) deritzaion yabearen azken-liburutik. Lamartinegandik artutako itzak, «40e Entretien» (40garren izketa)tik. Izketa au Mistralen lanetan berriro argitara emana izan zen. Lenengo zatian adaxka tartean dauden itzak, Mistralenak berarenak dire.

I

«Maillanen, 1830garrengo Urriko Andre Mari egun ederrean» sortu zen XIXgarren gizaldiko olerkaririk aundiena ta zindoena. Gurasoak aitoren seme izanik ere, «landetxean, guraso-ondarea beren eskuz erabilki, bizi ziren». «Leenurteak bordaldean bakerik igaro zitun, nekazari, segari ta artzai tartean». «Atsegiñez oroitzen zun beti biziaro ua, Adanek Paradisua antzo». Urte barnean begiz begi ikusten zitun «landako

bizitzaren eginkizun aundigarriak». Bizitza latza beti, baño beti zintzoa, osasungarria, bere esku-koa ta baketsua. Aita zun eginkizun orien guzien buru: «gizon aundi, eder, itzez bera betekoa, agintari sendoa, beartsuekin onbera; latza ordea bere buruarekin». «Siñismen sendoa zizun». Gau oro, uda ta negu, etxeko otoizak berak ematen zitun aurretik, mintzo ozenez, eta gaualdiak luzatzen asteneko, seme ta mutilleri Ebangelioa irakurtzen zien. Egualdirik txarreanean ere pozik zagon, eta aizeen nigarra edo euri-yasaren otsa entzutean, esan oi zun: «Yende onak, Goiko mutil Ark badaki zer ari den, eta zeren bear garan». Maia ta sakela beti zabal zeduzkan nor-nairentzat. Aren eriotza —laurogei ta lau urte-tan— aitagoi batena izan zen. Elizakoak artu ondorean, etxeko guziak inguratu zuten nigarra zeritela: «enetxoak, esan zien; banoa, ta eskerrik asko, Yainkoari zor diodanaz; nire bizitza luzea, nire lana, berak onetsi dun lana... Ta Yau-naren eskuetan egotzi zun bere arnasa».

«Beratzi amar urte zitularik» asi zen eskolan, baño «maiz egiten zun piper» eta orregati gura-soak Avignongo aztetxe batera sartu zuten. An

gelditu zen ertsirik etxeko ez beste izkuntzarik itzegiten zun yenderekin. Iñoiz biurrikeriz bere izkera egiten bazun, irakasleak maxi egiten zioten. Bai irrikatzen zitula «amak iruin bitartean kantatzen zition» kantu provenzar ederrak! «seaskaren kulunkan entzun zitun olerki ukigarri aiek!». Etsi zun ordea ikas-lanean, eta gogatsu biurtu zen, eta noizpait sartu zitzaion biotzean Homereren, Birgiliren eta beste idazle zar yatorren olerkia. Aietan arkitu zitun Meillaneko lanaldi, gogai, oiturak.

An ezagutu zun «Anselm Mathieu bizkorra», ta baitipat, an adiskidetu zen Joseph Roumanille irakasle gaztearekin. Bein batez irakasle ark «Miserere» biurtzen ari zela atzeman zun, eta ain zuzen ere «Aspeges me, Domine, hyssopo et mundabor, lavabis me et super nivem dealbador». «Ordun ezagutu zun provenza-eraz bertsuak egiteko mutiko gaztearen uxia ta berak egiñak erakutsi zition beren ariko izkuntza yasozten bizkortu zedin. Au da, argitara esnatzeko nire gogoak irrikatu dun argi-urratzea»; esan zion, biotza suturik.

Aixen ikasi zun eskubidezkoa legegizon atera arte, ta agiria sakelan zularik, bere bordaldera itzuli zen, apaltzen ari zirela, ain zuzen ere. Atari zabalean, eguratsean, mai-inguruan zeuden, illu-nabarreko urre-dirdaiean bildurik. Etxeko guziak atsegin biozkorrez eta zorionka artu zuten. Bere artantxe guzien aurrean esan zion aitak: «oraintxe, seme, nire eginbearra bete diat. Niri erakutsia baño askoz geiago dakik... Erorri dagokik bidea aukeratzea; ere eskuko uzten aut». «Bertatixe —dio Mistralek— oiñak aitaren landetxeak, begiak Alpilla mendietara, nire baitan eta nire buruz artu nun erabaki au: lenik, eskola guzietan bear ez besteko azibidez betiko galtzen nekusan yaiterri-gogoia Provenzan piztea; gero berpizte ori izkuntzaren eta istoriaren bidez aurreratzea eskola guzietan gerra gogorra ta eriogarria egiten baitiote; ta azkenik, Proventzerari gaiñak ematea, yainkotar den poesi txingar bidez».

Ta gaztezeroaren oiñean, osasunez, gorpuz ta arimaz eder, adimen-burrukarako gai ta bizkor, ta poesi goienaren arnasez biotza gaindiro, arrano-egaldi bizkorrez, agur egin zion uriari, ta

yakiñaren gaiñean, gizauren erritar au, bere landako zerua besterik ez ikusi-bearrean geldituzan, eta yaiterriko lurriñ irakiña artuki, atsalde batez, goldearen atzetik nekazariak ildoaren atzetik azaroan kantari ari zirela ekin nion, Gora Yainkoa —dio Mistralek— *Mireio*-ren leen-kantuari. Gauzak ez du beste itxurarik poema ori irakurri ezkeru.

II

Lamartinek barratu zun mundu guziko letrazaleen artean, *Mireio* azaltzekoa zela, ikuskarrizko gauza zela-ta. Gaurgero esan dezakegu ark esan zuna poema au ezagututakoan.

«Berrion bat dizuet gaur, zion. Gudu-eresi edo poema epiko bat agertu zaigu egunotan. Olerkari lenengotar bat gure egun doakabe otan; Greziko olerkari bat Avignonen; bere erriko izkuntza mordoillotik izkuntza yatorra atera du, iduritasunez eta mintxotasunez yantzia iduripenaren eta belarrien zoragarri».

«Provenza osoa olerkari orren gogora aldatu da. *Mireio*, izadiaren eta giza-biotzaren antzaldatze bat da, Provenza barrenetik asita Marsellara-ñoan».

Gero bere buruari galdegiten dio, «zergatik ote-ta lan onek zaustada edo biotzondoko zora-garrigoa ematen dun, gizaldi artako olerkaririk bikaiñenenak baiño; arean, Byron, Goethe, Schiller, Lamartinen beraren leikideenak baiño; ta onela erantzuten du: gu landuketa gera, ta Mistral bezalakoak etorria; gu gogoetalari, ua biozti; gure olerki edo poesia barnerakoa da ta aiena kanpora barratzen da; gu geren buruari begira ari gara geren lanetan, eta aiek Yainkoari begira; guk etxeko ormatartean ditugu geren gogoetak eta aiek atari zabalean; gu argiontzi batetik sortzen gara ta aiek eguzkitik...».

Ta ber-bertan sotu zen olerkariari dagola, dio azkenik: «Bizialdi batean eziñ egin buruen buruko bi lan; ik erea egin duk, eta esker egiok Yainkoari... ire eresi epiku ori, buruen buruko lana duk. Ongi etorri gure kantarien eguaroan; beste zerukorik eta beste izkuntzakorik aiz, baiño erekin ekarri diguk ire eguaroa, ire izkuntza ta ire

zerua. Ez diagu galdegiten nongo aizen, ezta nor aizen ere: Tu Marcellus eris.

»Ots, Mellaineko olerkari! I aiz Provenzako zumintza! Egun batean iru ukondo azi aiz, ogeita bost urtetan loreak eman dituk... ire olerkari-gogoak urrin gozoa barratzen dik Avignonen, Arlesen, Marsellan, Toulonen eta laister barratuko dik Prantzi osoan. Hyeresko zugatza baiño zoriontsuago aiz; ire liburuaren urriñ ona ez duk aizatuko mila urtetan».

Are geiago. Mistral da agizko, mundu guzian olerkaririk miretsiena ta maitatuena XIXgarren gizaldian. Ta dioten maitasun ori, batez ere *Mireio*-ri zor dio, maite-eresi negargarrizko orri, bere ogeita bost urtetako lan arrigarri orri.

III

Mireio Prantziko Akademiak sariztu zun eta Gounodek opera biurtu. Lan orren urrena *Calendau* atera zigun, Provenza-erria berriro olerkiz edertzeko. Zazpina urte eman zitun bi lan oetan. Bigarrena, balio aundikoa ta begi onez ikusia

arren, etzuten lenbizikoa bezain aunditzat etsi. Mistralek berak ezagutzen du, ta bidez azaltzen: «*Mireio*-n izadia edo naturaleza nagusi, ta *Calendau*-n iduria».

Andik urte batzutara atera zun olerki-sail bat *Lis isclo d'or* (Urrezko ugarteak), oraintsuko edozein literaturetan azaldu den gauzik onena bezain ona. Urrena *Nerto*, *La Reino Jano*, antzezki ituna, ta *Lou pouemo dou Rose* (Rodanoko eresia), beraren betekoak. Atzeneko liburua, aren ederrenik ederrenetakoa, *Moun espelido* (nire yatorria), izan zen. Andik artuak daude aren bizitzarekiko xeetasun ok geienak.

Gaiñera izkerazale bikaiña izan zen Mistral. Gai ontan egin zun lanik bizkorrena *Tresor dou felibrige* da, Provenza izkeraren araudia, ta iztegia, ta baita erri-yakintza edo Folk-lore ere. Ola sortu zen. Mistral, Mathieu, Roumanille ta beste lau, Giera zelako batekin eta onen eguraste-txean bildu ziren 1854garrengo Orrillaren 21garrenean. An antolatu zen lenbiziko ta erabat felibre edo «zazpien sailla», naiz idazle naiz olerkari zirela, Provenza erriaren izkuntza lantzeko ta zabaltzeko. *Felibre* izenak «legeirakasle»

adierazten du. Izen ori eman zien Mistralek bere laguneri Tresor edo Tegi artan.

Bere lanbidean, errizale ta kristau on, aurrena Maillanen bizi zen aunitz maite zun amarekin; urrena, 1888garrenetik emaztearekin, bere gizaldiko gizonik aundienak aipatua: Aita Santu, Erri-agintari, ta ainbeste ta ainbeste gizonek, yubileura bezala etxerazetozkiola.

Kartegiñean lan gogorra artu zun eta egoalez eraman, yasotzen baitzitun urteko ogai millatik gora, ta guziei erantzuten. Erabidez bizi zen, aitak utzitako ondaretik. Liburuen irabaziak beartsuei banatzen zitien, eta Nobel-saria Arlesko enda-Museua eraikitzen txautu zun oso oso-rik. Prantziko akademitar izatetik alde egin zun, lendanik Provenzako akademitar zela-ta. Eraiki zitioten oraino bizi zelarik, zenbait oroitzarri; baño esker onez ikusi ta ere, bere il-arria zitzaion kutunenik arako idazpuru Yainkoti arekin:

*No nobis, Domine, non nobis
sed nomini tuo et provinciae nostrae
da gloriam.*

1914garrengo Epailaren 25garrenean, Andre Mari egunez, yaio bezala, il zen sainduki emaztearen besoetan eta gogoko Aitaren ondoan, Elizakoetaz indarturik, eta Aita Saindu Pi amargarrenak bialdutako onespen berezi batekin, iru Mari santaeri Mireiok bezala bere burua goraintziz.

Mistralen sortzetik eun urtegarrenean emen duzu euskeraz gizon aipatu onen *Mireio* poema nagusia. Euskeratzea etzait beste munduko lana izan, baño baditu bere oztopoak, batez ere idaztankera berri-antza nasten dunean. «Loreak eta ugiñak eta eguzki-izpiak» apainkeri ordez ez ditu erabat utzi bere gizaldiko gizon onek; ez darabil-tza, ordea, ugari. Nere ustezko geiegikeri bakar oriek euskerari ongi ez datozkiola-ta, besteen iritzia beste, soildu egin ditut eskuarki. Gaiñera berrikeri oriek itzik itz euskeratzea lan gaitza baitzen, eta lan alperra, diodanez.

Ormaetxeatar Nikola

I BASAKA-BORDA

*Gaia.— Artzai-tartean yaiotako
Yesuri laguntza-eskea. Aita-
saskigileak.*

Provenzako nexka bat dut kanta-gai. Bere gaztetango maite-miñetan, Crautik itsasaldera gari-alorretan barna yarra gogo diot Omertar onek. Mendi-neska baitzen, Crautik ozta barreiatu da aren izena.

Gaztetasun uts bekokian; urre-buruntzarik ez, Damasko-eunik ez yauntzi arren, Erregiñ-antzo aipatu bezat, eta gure mintzo nardatu onek gora dezala ta laztan dezala; zueri bainago, artzai ta bordarieri.

Artzai artean yaiotako nire erriaren Yauna, sutu nire itzok, eta idazu arnas. Badakizu: belarrekoan, eguzkiak eta intzak pikuak eldu ditunean, an da gizona otso-antzo, ta erauzten ditio igaliak oro. Alere Zuk gordetzen duzu gizon iresleak atzeman eziñiko abartxoren bat, Madalene-

tako igali elduaren urtume eder, aratz, usaiduna. Artara doa egaztia, gosea berdintzera.

Badakusat abartxo ori, ta aren ezoak ozkamin dagit; aize biguinaren dardaraz badakusat zeru urdin-aurrean orri ta igali betikorakin. Yainko eder, Yainko lagun, gure Provenza-izkera onen egaz, egizu abartxo ori atzi dezadan.

Rodano-ertzean, ugaldeko zuntzundi ta saraitzuetan urak milikatzen dun txabola batean saskigille bat bizi zen. Semea lagun, bordaz borda zabillen, saski zarrak eta otzare zulatuak berritzen. Beinola, zumadietan, saskigiteko zuma-sorta luze banarekin aldapa gora zioazela, Biken-dik aitari diotsa. —Aita, ara eguzkia. Ez al ikusten an beian Magalona-gaiñean zutikai dituen odeipillak? Mordo aiek pillera balediz, bordara baño len bustiko ote garan nago, aita. —Ez, ez: ostoak itsasaldetik dite aizea. «Rau» aizeak eman arte ez diat sumatzen euririk, esan zuen zarrak. —Zenbat uztarri ditu Basaka-bordak, aita, dio Bikendik. —Sei, erantzun zion saskigilleak, eta Crauen den aberaskirik aundiena duk. Ara an oliodia. Oliondo tartean begira nabari, matsondo ta gingillurritz lerroak. Ederrenik ordea, esan

zion mutillak, aldapa ortan berdinik ez duenik, urteak egun adiña zugatz-inda (zugatz-kale) izaki, ta lerro bakoitzean beste oinbeste ondo. — Arranoa! zenbat biltzaile bear ote dire ainbeste zugatzen olioak biltzeko? esan zuen Bikendik. — Biltzen dituk oro, esan zion aitak. Omiasainduz asten dituk Bausko neskatxak zaku ta zorro, oliaran gorrixka ta gingilkara betetzen. Geiago izanik ere, kantu-bitartean pozik bilduko likete.

Yaun Ambrusi izketan ari zela, ta eguzkiak mendi-gain beera itzalita odeitxoak ñabar, eder, margozten zitularik, itzaiak uztarrien atzetik geldi geldi zatozen, akulluak gora ta beerago, larre gazietan, illuntzen asi zun.

—Ots, larrañean ageri da gari-ale tontorra, esan zun Bikendik: ez dugu euririk. —Toki au aukerakoa duk ardientzat, esan zun saskigilleak; udatean lerdia (piñudia) dite, ta negutean zabal-di arrizua. Emen ez dituk deusen eskas, ta toki zoragarria duk au: etxegaina itzalpetzen duten zugatzak, muntegi-tarteko iturria, udatzenean ustutzen diren erle-eultzeak, eta Maiatzak irri egitean basakaetan eratxikitzen diren erleku-meak... —Ene! Ta au zait atsegiñenik erri ontan,

aita: bordako alaba. Yoan den udan, gogoan baduzu, bi bil-saski egiñarazi ta esku-saskiari belarriak yarriazi zitiguna.

*Aita-semeak Basaka-bordara.—
Mireiok atsegiñez artzen ditu.—
Afaria ta afal-ondoko kanta.*

Yarduki ontan eldu ziren bordako atarira. Nexka, seda-arrari ostoak orduntxe eman eta atal-aurrean asi zen, egurastu orde, ardatzean. —Gabon lagun guziera, esan zun saskigilleak, zume-sorta lurrean utzita. —Yaun Anbrusi, Yainkoak dizula, erantzun zion nexkak: emen ari nauzu lilai-estalkia yartzen. Eta zuek? Berandu zatozte. Valabregatik edo? —Baiki, esan zuen saskigilleak, eta Basaka-borda bidean dugula ta, goazen ara, esan dugu, agozpillean lo egiñen dugu ta.

Oinbestez, maisu Anbrusi ta semea, erbil-alper baten gañean eserita beste izketarik bage, asitako saski bati ekin zioten. Xorta askatutik

zume biguinak artu ta biurritzen eta gurutzatzen zituten.

Bikendik etzitun arteraño amasei urte, baño mutil ederra zen, lerdena, ta aurpegiz atsegiña. Mataila beltz askia, egitan, baño lur beltzak gari ohea ta mas-mordo beltzak ardo biziagoa. Ongi zekin zumeak gaitzen, eta antzez lantzen zituen. Lan txukunetan etzen ari izaten; geienez zamari entzat bastak egiten eta landa-lanetan. Lusaski gorriak, eskusaskiak, laister saltzen diren seskasaskiak, añar-isatsak eta abar, usu ta arin eta txukun eta egoki ta bikain egiñ ere. Lur etzetik eta sasitik etxeratuak ziren landako langileak lanaldia eginda, ta Mireiok, Basakaetako neska liraiñak, arrizko mai-gañean aparitarako eltzaria aize goxotara zedukan. Eta erratilu moskorretik gañezka, aundia baitzen, mutil bakoitzak ezpelxaliz babak aterata bere txaliña beteaz ari zen. Saskigile ta semea, orde, saskia eotzen yarraiki.

—Ots, bazatozte aparitara ala ez, yaun Anbrusi? esan zuen yaun Erraimun bordanagusiak erre-antzean. Ots, utzi saski ori, izarrak agertu dire ta! Mireio, ekatzu katillu bat, eta zuek arin maiera, nekaturik egonen zarate ta. —

Ots bada, dio saskigileak, eta aita-semeak zutituta arrizko maiaren ertzero arrimatu ziren eta ogia ebaki zuten. Mireio erne ta esku-atsegiñak, olio txaliñ-baba ondu ta laisterka eraman zien bere eskuz.

Amabost urte zitun Mireiok. Iturri zarreko aldapa urdiñak, Bausko muñoak, ez duzute egundaño ikusi olako neskatxa liraiñik! Eguzki alaiak zabaldutako lore-kusku zen. Aren aurpegi xalo ta guriak, matail bakoitzetan xuloa; aren begiratu, izarra baño garbigo ta legunagoak, edozein naigabe uxa zezaken. Ille kizkur dizditsua zerion bizkarretik, eta aren bular biribila mertxika-aralde eldugabea zen. Yostalari, ekurgaitz, basazi samarra. Ainbesteko grazia urkotxoan ikusi baziñute, itxirikian edan zentzaketen.

Oi denez, mutillek elkarren ondozka bakoitza bere lanaz mintza ondoren (bordan bezala ene Yainkoa, gure aitaren denboran bezala!) —Ots, jaun Anbrusi, esan zioten, gaur gabeen zerbait kantatu bear diguzu. Apari onek amets-aparia dirudi. —Ixo, adiskideak, maxiolaria Yainkoak zigorkatzen dik, eta ezpain-uxtu batekin txan-

txaria bezala dantzazten. Kanta ezazue zeurok, sasoeko gazteak zarate ta. —Yaun Anbrusi, ez dugu maxiorik, erantzun zuten mutillak. Ikus, Crauko ardoa gañezka dago edontzian; ots, topa dezagun, aiton! —Ene! esan zuen aitonak, denbora batean kantari ederra ninduan, baño orain zer nai duzue? martiñarra zartu duk eta llarruak autsiak ditik. —Bai, yaun Anbrusi, atseginen digu; kanta zerbait, esan zun Mireiok. —Neskatx ederra, esan zun agureak, ene mintzoa, yaulkita-ko galburuaren bizarra dun, baño iri atsegiteagatik gai zegon beti. Au esan, ardo-ontzia ustu, ta kantu au asi zuen:

Sufren mutila.

I. Ontzi-nagusi den Sufren mutillak, Tolondik aldegitoko zantzua egin du; bosteun seme goaz Provenzatik. Inglesa atzemateko irrika aundia giñun; ez gara etxerako ingelesa autsi arte.

II. Baño lenbiziko ilabetean ez giñun iñor ikusi, ontzi-tantaietan eundaka zabilten itsas-txoriak besterik. Eta bi ilabete ezkerro, ekaitza

izan giñun, gau ta egun ontzia ustutzen alegiteko.

III. Irugarren ilabetean asarreak artu giñuzen, odolak ba-zirakigun, kañoez txautzeko iñor arkitzen ez ta. Sufrenek orduan: Yeiki mutillak! esaten du, ta berela, begirariak, kuzkurtuta, Arabiko itsasegira begia zorrozten du.

IV. —Arraioa, dio, iru ontzi larri onontza, erne! Kañoeak tegira! Laister agindua eman zigun itsas-nagusiak. Orain murtxa ditzatela Antibesko pikuak: gero beste yanaririk emanen ziegu.

V. Au esan orduko, su-galda: berrogei bala, tximista bezala yaurti ditiagu ire erregeontziak zulatzeko, ingelesa! Ontzi bati arima utsa gelditu; kañoe-orroa soillik entzuten; ol-karraska ta itxas-marrua.

VI. Ankarte bat etsaiengandik, au poza! au atsegiña!

Sufren nagusia izukaitz eta zurbil, ta zubi-gañean geldi. —Mutillak dio: geldi sua, ta igortzi itzazue Exko olioz.

VII. Esan orduko, ontzigizonak, iskillu, aiotz, aizkora, ta Provenzatar gizajoak eskuan gapi-

ria. Ontzira! oi u egiten du. Ingelesarenean sartu giñan yauzi batean, eta an zen eriotza!

VIII. Zenbat ukaldi, ua sarraskia, ua zalaparta ontzi-tantai autsiak, eta zubia oiñenpean lertu! Ingeles batzu batzuk pulunpatu, ta Provenzatar batzu batzuk ingelesari eldu, besoetan estutu ta aiekin murgildu!

Emen eten zun kanta agureak. —Gezurra zirudik e? esan zien entzuleeri; alere, kankak dion bezala gertatu. Ez duk au gezurtatuko dunik. Ni an ninduan endaizlari, ta mila urtez banirau, mila urtez yosirik legokek nere buruan gertaera au. —Zu sarraski artan? galdegin zion mutiletako batek. Iru batentzat izanik, maztaildu bear zinduzten, mailluak sega bezala. —Nork-eta, ingelesak? erantzun zun agureak asarre bizitan. Baño bere baitaratuz, asarrea par-irri billakatu zun, eta arrandiro yarraiki bere kanta.

IX. Oinak odoletan, eraso genien guduan, goizeko bi orduetatik illunabarreraño: alegia, keiak begieri utzi zieño.

Eun gizon galdu zituzten gure ontziek, baño zulora yoan ziren iru ontzi aiek, Ingalaterrako erregearen iru ontzi eder aiek.

X. Erri maiterakoan, eun bala genkartzen itzuleran; aize-oiala zarpil, aga ezpal. Nagusi adiskideak, Sufrenek xaloki esan zigun: aupa lagunak! Parisko erregeak zuen berri izanen dik.

XI. —Nagusi martzala! itz arraiak dituzu — esan genion—, erregeak ongi artuko ditu; baño zer balioko digute itxas-gizonoei? Guziaz utzi ginun, etxea, itsas-larraina, ua gordetzeko gudu-
ra yoaki, ta badakusazu orain ogiaz eskas dugula.

XII. Gorarik zaudenean, Sufren, aurretik aundizkiak gur egiten dizutenean, gogoemazu iñork etzaitula maite zure itxas-gizonok ainbat. Al balute, Sufren, erri maitera baño len, besoetan, erregetzat artuko zizkete.

Martegatar batek asmatu omen zuen kantua, sareak eda-ala. Sufren, nagusia, Parisa itzuli zen. Eta inguru guzietako aundizkiak aren izenaren irrika zeuden, ta itxas-gizonak ez dute ordu ezkeroz ikusi.

Saskigile zarrak doi doi kantua eman zun, nigarrak mintzoa moteltzen ziolarik; baño morro-
eak nai baño len bukatu. Oraino ere itzik esan bage, ari begira, ezpainak zirrikatuz, kantua bukatuta ere, erne zegozkion. —Ikus, esan zun

yaun Anbrusik, nolako kantak emaiten ziren Martak iruten zuen egunetan. Ederrak ituan, mutillak, eta denbora atsegiñez eramaten ziten. Soñua aspaldietakoa duk, baño zer zio? Badituk berrigoak prantsesez, itz piñagoekin; baño nork ulertu?

Zarraren itzok entzunda, itzaiak maietik altxa ziren, eta sei uztarriak iturrira eraman zituten, eta idiak edan-bitartean, maats-aienpean, Valabregako agurearen kanta zerabilten ezpainetan.

Mireio ta Bikendi izketan.

Mireio ordea, bakarrik eta ortzargi gelditua zen yaun Anbrusiren seme Bikendirekin; eta biek aldamenka zeuden, buruak gurka, aize goxoak eragiten dioten bi larranbillu bezala. —Adi zak, Bikendi, dio Mireiok, sortak bizkarrean, andik onata saski-berritzen abillela, ikusiko dituk, naski, gaztelu zarrak, erriak aunitz, baso gaitzak, eta yai ta pestaburu. Gu beti usategi-ondoan usakume antzo. —Egia, neska, erantzun zion Bikendik, arakatzak ematen duen ozkamiñak

egarria kentzen din ibai-aboan edateak ainbat; eta lana billatzekoan ekaitzak egari bear badire ere, ibiltzeak atsegiñak baditin, eta bideko itzalak beroa aantzarazten din. Laister, uda datorrenean, oliondoak lore-mordoz bete daitezenean, oliodi zurailtan eta lizar adaburuetan usainka, eguzki beroan dirdir egiten duten errauliak atzematera giñoazen. Gero botikaetara eraman eta an erosten zizkigunate. Beste iñoiz, txapartegietan moxorro gorriak eta aintziraetan izainak atzematen ditinagu. Bai eize atsegiña! Ez bear sarerik, ez amuzkirik. Uretan sartzea aski, ta izaina zangoetan itsasten.

Baño ez al zarate beñere Santak ikustera yoan, Mireio? An mundu guziak iru Marien kanta kantatzen din; nondinai ara zeramaztene eriak. Gu andik pestaburuz igaroak gaitun. Eliza txikia dun, baño zenbat ziñ-ema! «Santa aundiak, erruki zakizkigute!» Urte artan izan unan mirakulua, bai arrigarria! Mutiko gaixo bat etzanda zegonan nigarrez. Yondone Batiste bezain ederra unan eta mintzo illun negargarriz zionan: «Ene Santak: ekatzute begietako argia, ta ekarriko dizuet arkumea!» Begira zeudenan inguruko-

ek nigarrez. Bere artan gorpuzki-kutxak astiro zetozenan sapaetik erri-mordoarengana, ta soka askatu-ala, aize-burrumbak bezala oiu zegitenan: Santa aundiak, el zakizkigute! Mutikoa amabitxiaren besoetan zegonan, eta eskutxoakin gorpuzkikutxak atzeman al zituneko, itsatsi zitzaienen gapirioa bezala, itsasoan galdua olari itsasten zaion eran: eta Santaen ezurrak ukitu-orduko, nik ikusia, Mireio! esan zinan itxuak siñeste biziz: ikusten ditut kutxak; ikusten dut amandrea nigarrez... goazen, goazen arkume adaxkadunaren eske.

Bai, neska, Yainkoak aunala beti eder eta zorioneko; bañon iñoiz zakur, musker, otso, edo beste pistiren batek ozkatzen bai aun, oa Santa aiengana ta bertan duken aringarria.

Onela zeramaten gau-yarduna. Ondoantsu, gurdi askatuaren gurpil aundiek errainu egiten zuten. Noizpenka txilin-otsa aintziradietan; ontzaren urubia urretxindorraren xintarekin. Gaur ilargiak zugatzak eta aintzirak argitzen baititu, zion Bikendik, azalduko al diñat bein batez laisterka saria irabazixe nuela? Pozik, esan zuen

neskak. Eta neska xaloa, zoritsu baño zoritsuago, arnas-geldika Bikendiren ondoratu zen.

Nimesko laister-apustua.
Mireioren maite-ernetzea.

—Nimesko zelaiean unan laisterketa, eratxiki zun. Nimesen, ene Mireio, buruko illea baño yende ugariago zegonan yaialdia ikustearren. Buru-as, oin-utsik eta soingañeko gabe an zeudenan batzuk zuinean. Ontan Lalagante etorki, lasterkarien nagusi zena (Marsellako Lalaganteren entzutea bai bide dun) Provenzako gizonik bizkorrenak ikaratu zitinan; bai Italikoak ere. Aren zango ta iztarrak, Yon Costa errege-seinarenak ziruditenan. Apala bete txalin zeduzkanan lasterraldien idazkuntzakin, eta abeetan dilindan zeuden mendelak ikusita, ziñ egiñen unan, Mireio, ostilika zabaldu zela sapaiean. Lasterkariiek bertan burua apaldu ziñetenean eta soingañekoak eskatu. Ez unan iñor Lalaganterekin leianairik. Gazte xingil bat, kozkortsua alere, Cri izena zuna, egun artan beizai gertatu Nimesen,

eta onek bakarrik izan biotza arekin gudukatze-ko. Ni ere an egokitu nindunan. —Deabrua! Nik ere bazekiat laisterkan! Baño zer esan ninan, zozo onek? Guziek inguratu nindinaten. Ots! ekiok laisterrari, oi u egin zidatenan. Ua estutasuna, Mireio! Nik eperkumeen atzetik laister egin ninan, aritzak beste yakillerik gabe. Tira, sartu bear izan ninan. Ni ikustean, Lalagante bidera zitzaidanan eta esan zidanen: «mutil, oiñetako orien edeak estu ditzak ongi». Ta au esan bitartean, iztar lodiak sedazko galtzetan izkuta zitinan. Urrezko amar kaskabilo zitiñenan inguruan galtz oriek. Arnasa bakantzeko, agoan saratsarbaxta sartu giñenan. Irurok adiskide-antzo esku-estutze bat egin ta, odola irakiten, eziñegonez ta ikaraz, oina zuinean yarrita, zantzuaren begira geundenan. Egin zutenean, tximistak arturik zabaldira irurok. Iri!... Neri!... Ta laisteraldian auts-lañoak izkututzen gure yauziak. Aizeak garamatzinan; kea zerionan gure illeari. Ua sua! ua laisterketa zoroa! Irurok batera iritxiko giñala uste izan ziñaten luzaro: ain bizkor giñoazenan! Ontan nik aurea artu, zorigaitzez ordea; ero eroan oldartu nindunan, eta atzean

nituelaxe, arnasa galdu, ta zurbil, kordegabe, aurpegiz lur yo ninan. Aiek ordea, neurritz zoazinan, beti neurkiro, Ex-en dantzaten diren xaldikoak bezala. Marsellatar aipatuak irabazi uste zinan: ez omen zinan barerik. Lalagantek ordea, bera betekoa arkitu zinan, Muriesko Cri. Laisterketa bukatzer unan, errian yende-pilla barna zoazila. Ara Cri-ren yauziak! Mendian ez baserrian ez dun erbi ez basauntz ain zailurik. Lalagantek igesegin zinan orroka, otso-antzo. Cri ospez beteak, besarkatu zinan sarien zutabea. Nimestarrak gaiñera zitzazkionan nongo erritarra zen yakin-miñez. Eztañuzko txaliñari dirdir zeragionan eguzkiak; soiñugailuak asi itunan, eta Cri txaliñaren yabe. —Ta Lalagante? galdegin zion Mireiok. —Erriak arrotzen zuen autslaño-tartean kuzkurturik, belauinak bi eskuen tartean, eta lotsagarriro garaitu izanaren naigabea barnen, bekoki-izardia malkoz nasten zuela. Aren bila Cri yoaki, ta agur egin zionan. Yatetxe baten maats-itzalpean eserita, «mustu dezagun lenbailen, lagun», esan zionan. «Gaur egun alaia duk: utzi ditzagun nigarrak biarko, an beiko Ondartza aundietan ire ta nire zorionari argiegi-

teko adin bat eguzki oraino baduk eta». Lalagan-tek ordea, aragi ikaretan, altxa zinan aurpegia, ta urre-kaskabilodun galtzak idokiz erantzun zio-nan: «urteak eraman ditie ene indarrok, eta toi-tzik. Gaztetasunak beltxarga bezain zailutzat aduka; ik eraman dezakek ederrez bizkorrena-ren ezaugarria». Onela mintzo unan. Ta lasterka-ri txapeldun bizkor ark, lizar moarratua bezain murri, aldegin zinan yendartetik, eta arrezkero ez Yondone Yonez ez Yondone Petiriz ez dun ez dun iñon azaldu, ez ta zagi puztu-gañean yauzi-ka ere.

Basaka-bordako atarian onela yaulkitzen zituan Bikendik zekizkianak oro aren mataillak gorri biurtzen zirelarik eta begi beltzeri sugarra zeritelarik. Mintzabitar-tean esku-aurpegieri bizi-ro zeragiten, eta aren itz-etorri ugariak, Maiatze-ko belardi batera yausten den zaparrada zirudien.

Zoi-tartean xir-xirka ari ziren kirkirrak, bein baño geiagoten ixildu ziren ari entzuteko; urre-txindorra ta gau-txoria ere ixildu ziren basoetan, eta nexka, biotz barrenerako eraso, orbelean

eserita egonen zen argi-urratzera arte, begirik itxi gabe.

—Saskigilekume izan arren, izketa atsegiña du, esan zion amari. Negutean lotara yoatea on da, ama; baño oraingo gaba argiegia da. Entzuiogun, entzun oraiño... Nik gaualdiak eta bizialdi osoa ere emanen nituke orri entzunean.

II OSTO-KIMA

*Mireio osto-kiman zugatzean.—
Ain zuzen ere, Bikendi andik
igarotzen.— Neskak dei egiten.—
Bien izketa.*

Kanta, kanta, osto-biltzaileak, kimakoan kantua atsegin da ta. Seda-arrak ederrik daude irugarren lo-aldian. Masustondoak, egualdi onak alai ta yostalari biurtzen dituen nexkaz beterik daude, legartzako erromeruari ezta ostutzen dien erle gorri-taldeak antzo.

Kimakoan kanta, kanta, osto-biltzaileak. Maiatzeko goiztiro ederrean, Mireio kiman ari da. Goiz artan bina gerazi belarritako yarri zituen ollanda ark. Bikendi andik igaro zen berriz. Lati-itsasaldeko yendeak oitzen duten txano gorriari oillar-luma zutik sartu zion, eta bidexkaetan sugeak uxatzen zituen, eta makillaz arkosko-pillak yotzen kazkarra yauzkatzen zuelarik.

—Bikendi, Bikendi! otsegin zuen Mireiok zugatz-inda tartetik. Ariñegi oa! Bikendik bertan itzuli burua zugatzira ta an ikusi nexka masustondo gañean baso-oilarra bezala ta arengana yo zuen pozkarioz. —Zertan da kima! galdegin zion ondoratzean. —Apur apurka kimatuko duk guzia, erantzun zion. —Lagunduko al diñat? — Bai. Ta gañetik irri-karkaraz eroa bezala neska, ta Bikendi, irusta-belarra zanpatuz, muxarra baño ariñago igo zen zugatzera. —Begira, Mireio, jaun Erraimunek i beste alabarik ez din. Kima ditzan azpiko abarrak eta nik kimatuko ditiñat gañekoak, esan zio nexkari. Eta ark esku ariñez kimaka esan zion Bikendiri: —Lanean lagunak gogaldi txarra kentzen dik; bakarrik arian bai nekagarri! —Orrek gogaitzen neun beti, esan zuen mutillak. Bakarrik etxolan, legarra iresten duen Rodano asarrearen burrunba entzutea, bai aspergarri! Udan ez ainbeste, aitarekin bainebillen bordaz borda. Baño gorostia ezkurtzen denean eta egunak ozten eta gauak luzatzen direnean, su ondoan gaudela, kixketan iratxoren txixtua edo marrua dabilela, argirik gabe, ta ele

gutxi, aitarekin bakarrik loaren begire nago-
nean!...

—Eta ama non duk? esan zion nexkak artea
artuta. —Illik dun, esan zion mutillak, eta ixillik
gelditu zen lipar batez. Gero yarduki zuen: gure
arreba Bikendiñe aurrago zelarik, gurekin ego-
ten unan etxolean. Ua bai atsegiña! —Zer bada,
arrebarik al duk? galdegin zion Mireiok. —Bai,
esan zun saskigilleak, eta zernaitarakoa ta etxe-
koia... oinbeste ez balitz! An beian Belleaire-
errian aren antzea ta gisa ain atsegin zitzaielako,
neskametako artu ziñatenan, eta neskame
zegen. —Ire antzik badu arrebatxok? galdegin
zion Mireiok. —Nererik? esan zuen saskigilleak.
Aldean zegen! Ua zuria dun, eta ni, ikus, ulitxa
baño beltzagoa. Ire antza bai, badin, Mireio.
Zuen buru bixkorrak eta argiak, zuen mirto-
antzeko adats ugariak... iñork ez liken esanen
sabel-aizpa etzaratenik. Baño buru-zapiaren
lokarria ark baño txukunago daukan! Gure arre-
ba ez dun itxusi baldarra, baño, i Mireio, zenbat
ederragoa! Ontan Mireiok abar erdi-kimatua
erortzen utzita: Ene! Bikendi gaixto, esan zuen.

Kanta, kanta, osto-biltzaileak, kimakoan kantua atsegin da ta. Masustondoen ostoa ederra dago; seda-arrak ederrik daude irugarren loldian. Masustondoak, egualdi onak alai ta yostalari biurzen dituen nexkaz beterik daude, legartzako erromerueri ezta ostutzen dien erle gorri taldeak antzo.

—Beraz, polita dirudiat? zuen arreba baño areago? esan zion nexkak Bikendiri. —Askoz ere, erantzun zion. —Zer diat bada geiago? —Yainkoaren Ama! Zer du mutur-gorriak txepetxaren aldean, edertasuna ta txinta bera baño? —Geiagorik ere? esan zuen Mireiok. —Ene arreba gaxoa! ez duzu porruaren zuria ere eramanez, erantzun zuen mutillak. Itxas-ura bezain urdin ditin begiak Bikendiñek; ireak ordea, Mireio, azabatxea bezain beltzak, eta neri dirdai dagidate-nean, baso bat ardo egosi edaten dudala zirudidan. Gure arrebak mintzo mee ta garbiz *Peirone-la* kantatzen zuelarik, nik gogoz entzuten nitinan aren doñuak; baño ire edozein itz, nexka, iñongo kankak baño zorutzenago din nere belarria ta dardaratzenago nere biotza. Larrez larre ibilki, nere arrebari aurpegi-lepoak ximeldu zaizkion

eguzkitan, datil-mordo antzo: baño, i, Mireio, unanu-lorea bezala aiz nere ustez, eta udak beztu duen eskua ez dun ausartzen ire bekokia-ri atxegiten. Errekako andereño antzo, nere arre-ba segail zegon oraiño, gaixoa! urte betean luzatu dun dena; baño ik, Mireio, burutik aldakaetara ez dun utsik, guzi eder orrek. Berriz abarra erortzen utzi zuen nexkak, eta aurpegia gorri gorri esan zuen: Ene, Bikendi gaixto!

Kanta, kanta, osto-biltzaileak, kimakoan. Onela gazte ederrak zugatz-adaburuan izkutaturik, maiteketa oitzen ziren, adin gaiztagabeen.

Bitartean mendaitzak astintzen dute laño-maindirea, ta goiko arkaitz gorrietan, dorre gaitz erorietan, Baus-ko Yaun aintzinekoak gabez agertzen diren tokian, sapelaitz egal-zuriak eguzkitan dirdaika gora doazi, ta txartalak eguzkitan berotzera.

—Au lotsa! Deus ez diagu egin, esan zuen Mireiok muzinka. Arrano ori laguntzera etorri zaidala ta par egiñarazi besterik ez dit egin. Ots, eskuak arin! ezperen amak antzekaitza naizela ta ez naitekela ezkondu esanen dit, e? Ots, adis-kide, ere burua ernetzat daukaken ori, ostoa kin-

talka biltzeko izketatu baintza ere, guzia adaska-
tan egonda ere, aizea yan bearrean intzake. —
Ezkerra naizela uste al dun, erantzun zion muti-
llak urduri. Ikus bada nork ariñago kimatu,
neska. Ta biek gogotik, atertu gabe asi ziren
kiman, abarrak zubituz, eta luzaro etzuten ago-
rik zabaldu, «ardiak marraka bitartean aamena
gal» gogoan bailedukeen. Masustondoa soiluxe
da. Laister utzi zioten lanari... Lan atsegiña gaz-
tezarokoa! Biek ostoa zakura sartzean, alako
batean, nexkaren beatz meiak Bikendi gaixto
zelako mutillaren beatz beroekin kakotu ziren.
Dardar biek egin. Aien mataillak maite larrosaz
gorritu ziren, eta biek batera, su izkutu baten
zirrara beroa senti zuten. Eta nexkak ostoa artetik
esku ikara ateratzen zuelarik, mutillak oraiño
biotz-ikaretan esan zion: Liztor izkuturen batek
ozkatu al aun? —Etzekiat, erantzun zuen nexkak
bekokia ta mintzoa apalik. Eta beste itzik gabe
asi ziren bakoitza bere aldetik abar batzuk bil-
tzen. Bitartean, begi gaixtoz, itzalgaizka, kirik
egiten zioten elkarri, nork lenik irria zabaldu. Bio-
tza pilpika ari zuten. Berriz kimari ekin zioten;
orria euri antzo uldu zen, eta zakura sartzekoan,

esku zuri ta beltza, berariz edo ustekabeen bata besterengana zoazin eta lana atsegin zitzaien.

Sagartxori-kabia.

Kanta, kanta, osto-biltzaileak, kimakoan. — Begira, begira, oi u egin zuen Mireiok belakoan; begira, Bikendi. —Zer da? esan zuen ark. —Beatzta ezpañetan, matsanduan egatxabala bezain zailu, eserita egondako adaskaren begiz begi, alai zion, besoa luzatuki: kabia duk! kabia badia-gu! —Itxon, esan zion Bikendik, eta ixilka, adaxkaz adaxka, etxetxoria tellatuetan bezala kabira doaie arnas-geldika. Zugatz-azal gogorrean berez sortutako zuloan ageri ziren xori llumadun urduriak. Bikendik adaska oker batean zango bizkorrak gurutzatuta, esku batekin bere buruari eutsi ta bestearekin zuloa arakatzen asi zen. Geroxego Mireiok eziñegonez, kolore-gorri, galdegin zion ixi ixilik: zer da? zer da? —Sagartxori urdiñ ederrak, esan zion luzaro gabe Bikendik. Nexkak parrari eraso zion. —Aditzak, esan zion lagunari, ez al dakik esana? «nexka mutil bik

masustondo edo edozein zugatzetan kabia arkitzen dutenetik ez dela urte bete igarotzen aiek Elizaz elkartu gabe». Esanak beti egi ateratzen omen dituk gure aitak dionez. —Bai naski, erantzun zuen Bikendik; baño itxaropenik ez dela ere aitortu bear, kaiolara baño len igesegin balute. —Yesus! Ene Yainkoa! begirok, esan zuen nexkak. Eta mutillak atzera eskua akalean sartu zuen, eta eskua betean lau txori atera. —Ene! aunitz dituk! esan zuen nexkak eskuetara zitue-nean. Au kabialdi ederra! gaixoak, pa eman bear dizuet! Eta zoraturik, musuka ta atxeginka, maiteki sartzen ditu gorontzean, borobiltzen zaiolarik.

—No, no, eskua luza! esan zion berriro Biken-dik. —Bai ederrak, zion nexkak, burutxo urdiñak eta begiak orratx antzo ditie. Ta bela, kabi xuri biguinean gordetzen ditu iru sagar-txori, ta nexkaren kolko beroan txorialdia kuzkurtzen da, berriz kabi ondarrean dagoelakoan. —Oraino geiago, Bikendi? geiago badire? —Baditun —Yainkoaren Ama! ire eskua xorgiñ ote den negok. —Nexka, sagartxoriek Santi Yurgiz amar amabi arraultze ta iñoiz amalau ere erruten diti-

ñate. Baño no-itzin txikienak. I, berriz, zulo polit,
egon bizkor!

Mutillak adaskari utzi orduko, nexkak sagar-
txoriak biguinki lore-pitxidun zapikoan goxatu
orduko, mintzo kilikorrez dio: Ai, ai! Ta gaxoak
lotsaz, bularra bi eskuekin estutzen zuen. Ai, ai,
iltzen naiz ai, atzimurtzi ta ozka. Laister, usu,
Bikendi, usu! Aintzintxe... esanen ote dut?...
izkutu ontan txingurriketa gogorra uan. Egazti
txikienak naspilla sortu dite. Ta xulogune estuan
txorialdi yostalaria naierara eziñ egon da egaldi-
ka ta aztalka asi zen, eta irrixtaka amiltzen itzul-
irauli kilikagarrietan. —Ai, ai! ator artzera, zion
nexkak eiagoraz. Ta aize biguinak eragiten dion
maats-aien antzo, ta euliak yotako ergia bezala,
zinkurinka, saltoka ta makoka dabil nexka borda-
ria. Bitartean mutilla arengana...

Kanta kimakoan, kanta; kanta, ostobiltzai-
leak. Nexka negarrez dagon adaskara ega egin
du mutillak. —Kilika orien bildur al aiz? esaten
dio maiteki. Ni bezala ibilli bear bai u maiz lan-
daz landa, ausin minduetan oñutsik! Bitartean
gorontzean dituen sagartxoriek aldatzeko itxas-
txano gorria eskaintzen dio irriz Mireiok txoriek

auditu duten bular aldera eskua sartzen du, ta bat-banaka txanora aldatzen ditu. Bekoki lotso-
rrez eta zearka antzean, gaxoari malko-irriak
naasten asi zitzaskion, goiz goizeko intza pitxi
antzo txurrusta-belarrean yausten den bezala
eta lenengo argi-xirrintara legortzen den bezala.

Neska-mutillek zugaz-gañetik erori.

Ontan, nexka-mutillen kargapean zartatzen
da ta austen adaska. Mutillaren lepora oldartzen
da nexka ikaratua, garraxi mintzo bat egiñez,
eta aren gorputzari ta abarrari besoak ditxezko-
la, biek besarka zilipurdian iraka-belar biguñera
erori.

Aixe ozkirri, itsas-aize ta ipar-zuri! biko gazte
orren gaiñean ixil bedi lipar batez zuen marmar
alaia! Aize yostalariak! arnas ixilla atera! Amets
goxo egin dezatela; zorion osoa amestu dezate-
la! Errekan geldi zoazen ur garden marmaridu-
na! legarrean otsik ez atera; ixillago! bien ari-
mak su-izpi batean urturik baitaude erle-mulkoa
bezala. Galdu ditezela izarretan!...

Erori ta bela askatu zen neska besoetatik, eta irasagar-lorea baño zurbillagorik zutitu zen. Bi gazteak eseri ziren muñaska batean elkarren ondoan. Elkarri apurtxo bat begira ta esan zuen saskigilleak: miñik artu al dun, Mireio? Deabruen zugatza! ostiralez aldatuko zugatz zorigabea! igatuko al aiz! pipiak yanen al au! nagusiak gorrotatuko al au! Neskak, aldiz, ikaretan erantzun zuen: ez diat batere miñik artu; baño zer duen ez dakiela nigar egiten duen kuñare-aurra bezala, zerbaitez estutzen neok, eta ikustea ta entzutea eragozten zidak; biotza pil-pil, bekokia ameska, ta odola irakiten zedukeat. —Kiman berandutu zainalako amaren bildur ote aiz? Orixe gertatzen zitzaidanan niri ere soñekoa zar-pilduta masustetan aurpegia ubelduta etxolara berandu biltzen nintzanean. —Ez, ez, esan zion Mireiok; beste naigabek estutzen neok. —Agian, esan zuen Bikendik, eguzkiak gaitz egin din. Badun sorgin zar bat Taven, Bausko mendietan; lilluratzaille dun; beso bat ur bekokiari ezarrita eguzki-izpiak lilluratzen ditin, eto buru goritik basoaren barnera sartzen ditun kristalean barna. —Ez, ez, esan zuen neska ederrak: eguzkiaren

beroak ez ditik ikaratzen Crauko neskak... Baño zergatik ez esan? barrena lertzen zedukeat eta. Bikendi, Bikendi, zer dudan yakin nai al duk? Ik maitemindurik nadukak.

Maite mintzoa.

Erreka-ertzean aize garbia, zotala ta sarats zaarrak, atsegiñez arritu ziren. —Ai, erregintxo! ain ederra izanik olako mintzo gaixtoa dun? esan zuen saskigilleak. Arri ta belarri egiñik negon! Nola? I niregatik maitemindurik? Jaungoikoarren, Mireio, ez niri bizia kendu, oraiñ arteo zori on izan diñat eta; ez niri, siñestarazi eriotza lekarkidaken gauzik; ez, arren, niri istarik egin, Mireio! —Ez dezadala zerurik gezurra badiot, esan zuen neskak: siñista ezak. Maite aut, eta orrek biziko au, Bikendi. Andregaitako nai ez banauk ordea, anker orrek, naigabez gaizkituko nauk eta ire oñetan akituko, biotzillunik. —Ez olakorik esan, erantzun zuen totelik yaun Anbrusiren semeak: gu bion artean lezea zegon. I, basaka-bordako erregiña aiz, ta guziak mendean daduzkan; ni,

Valabregako saskigille ezereza, Mireio; nekazari gizagaxo bat. —Eta, zer zio, ene maite, yaun naiz saskigille izateak, atsegin bai akit? erantzun zuen arin, bala-lotzailea bezain gorri. Naigabeak niri odolak urtzea nai ez baduk, Bikendi, zergatik dirudidak ain eder ire zarpillekin?

Nexka zoragarriaren aurrean Bikendi naasirik zegoan, sugeak odeietatik geldi geldi yetxiarazten duen txori zorotua bezala. —Sorgiña aiz bada i, esan zion zartez, ire begiratuak orrela zorutzen nauen ezker; ire mintzoak burura eman zidan eta nire baitatik atera neun moskorra bezala. Ire besarkak ene pentsamendua sutan yarri duela ez dakin? Ara bada, saskigillekume oni iseka egiñen badion ere, no, nik ere maite aunat, Mireio; maitearen maitez iretsiko induket. Ik esanen baidanan «urrezko auntza nai diat; iñork larratzen eta yeizten ez duen auntza; arkaizpeetan Bausko oroldioa milikatzen duen auntza bear diat», edo arrobietan galduko nindunaken, edo emen ekarriko niken urre-illezko auntz ori: ortaraño maite aunat. Izar bat nai diat nik, esanen bai u, ez itsasok, ez basok, ez ugoldek, ezurkatzailek, ez suk, ez burnik, ez lidaken

galaraziko: zerua ukitzen duen mendi-tontorretara yonanen ninduken aren billa, ta igandean ire lepotik dilindan eramanen uke. Ikustenago ta zorutzenago naun... Adi zan, Mireio, bein batez ikusi ninan bide-ondoan arkaitz soillean errotutako pikondo bat, Valleclusako aitzuloan. Muskerriari yazmin-txaparrak ere baño itzal gutxiago egiten zionan. Badakin nola bizi den pikondo ua? Urtean bein, uin batek ureztatzen zition erroak, eta bear duen ur guzia ordun edaten din, urte guziko egarria iltzen duelarik. Beatzari eraztuna bezala zegokinat au niri. Ni naun bada, Mireio, zugazño gaixoa, ta i aiz iturria ta ezoa. Yainkoari liotsan, gizagaxo onek urtean bein bederen, orain bezala, belauniko, ire aurpegi-erraiñu ortan atsegitea, ta batez ere, ire beatzak ikaraz biguin-kiro musukatzea. Mireiok maite-pilpiraz entzuten zion, Ark berriz, zorabildurik gerritik eltzen dio nexka zorabilduari, ta besarkatzera doakio. — Mireio, otsegin zuen artan mintzo zaar batek zugaztian. Mireio! seda-arrak ez diñate yanik gaur eguerdian. Ikusi al duzute ler-adaburuan etxetxori taldea kokatzen arrastirian, eta bat batean, buruxka-biltzaileen baten arri-ukaldiz

izutzen eta basora iges egiten? Olaxe ikaraturik doazi zabaldian barna neska-mutil maiteminduak. Nexka borda aldera itzik atera gabe, bildutako ostoak buruan; mutilla berriz geldi, tutulurik, otalurrean barna laisterka doaien nextari begire.

III

KUSKU-BILTZEA

*Yoana-Mari Mireioren ama.—
Taven, Bausko sorgiña. Begizkoa.*

Uzta ugaria denean; oliandoeri barra barra olio oria daritenean; landa ta bideskaetan gurdigariak negarrez ta kulunkan (balantzaka) bekoki arroa abarretan orrazten dutenean; larru gorrian eta kozkortsu, burrukalari antzo, Bak agertzen denean, eta Crauko ardantzeta tolarekoan dantz-aurrelari yartzen denean; tolare mukurutik erraran albo-atearen erretena beteki, zugaran apardunera ixurtzen denean; mustioak maats-tinkatzaileen zangoak nabartzen dituenen; beren kuskua itxia eotzeko, seda-arrak añarretara, pestara antzo, igotzen direnean, eta berela, lipu aiek, antze-antzetsu eguzki-izpiz egin balire-lako kuskua argal aietan il-yantzi direnean; orduan, Provenzan iñoiz baño yolas eta atsegiñ aundia-goia dun; edaten dun Baumako mistela ta elar-ardoa, ta kantatzen, ta oturuntza zoragarriak

egiten, ta neskak pozik dantzatzon ditun danbolin soñuarekin.

Zori onekoa naun, andretxoak, nire xexka-abarrak kuskua ederrez beterik zeuden ta. Olako ostape legunik, olako uzta ugaririk etzeukenat gogoan nere urte gordiñak ezkerok; ezkondu nintzan ezkerok. —Onela zion kuskua-biltzean yaun Erraimunen andre on Yoana Marik, Mireioren ama gallenak, eta auzo-andreak aren inguruan zeuden irri-gogoz, seda-arraen gelan.

Kuskua biltzen ari zirelarik, Mireio ederrak urbiltzen zitien zumel-abar eta erromeruk; aietan kurubiltzera gogatsu yotzen baitu seda-arrak, urrin onaren atzetik. Abarrak kuskuz beterik zeuden, urte palmondo antzo.

—Yainkoaren Ama onaren aldarean, esan zien Yoana Marik laguneri, atzo utzi ninan nere abarrak ederrena leen-eskeñitzat. Urtero egiten diñat ori, Ark nai ta igotzen baitire seda-arrak.

—Ni nerez bildur naun, olako lanik izanen ez dudala, esan zuen Iseak, Arrotzeneko bordakok. Eguzkiaizeak ain bizkor aizegiten zuen egun artan, gogoan dun, naski, egun txar artan uste-kabea gelaleioa zabal zabalik utzi ninan, eta

oraintxe, arbaetan ikusi ditiñat ogeita geigo ar, zurrunduak.

Taven, Bausko sorgiña ere, landara yoana zen, laguntzera. Tavenek esan zion Iseari: zuek gazteok, zarrak baño geiago yakin-uste duzute edozertan; baño nai ez baduzute ere, urteen-pean makurtu-bearra duzute, nigar egin-bearra ta asko ikusibearra; ta orduntxe ikusten dituzute gauzak argi ta garbi, Zuek emakume txorook, kuskua zabaltzen direnean, uzta yoria sumatzen baduzute, or zoazte berriketan, bear baño geiago. Eder samarrak bai daudela nire sedarrak! Ez uke siñestuko! Atozte, esaten diezute auzokoeri. Bitartean, bekaitzak ez din lorik, eta argelara zoaztenean, bera atzetik ziyoan marmariz. Eta auzokoak eneka zion: zein ederrak! Au edertasuna! Yantzirik yaio, alegia! Baña ik burua itzuli-orduko, bekaitzak zorrozten ditin begiak aiengana, ta erre egiten ditin, eta gaiztozko liska botatzen zien. Aizea! esaten duzute ordun, aizeak zurrundu ditin! Ez diñat ukatuko ori ditekenik, erantzun zuen Iseak; baño, dena dela, itxi al nezan nik leioa egun artan! —Ik ez al dun siñesten begia betzuloan ikara ta dardar

dabilenean, begizkoa yaurtitzen duenik? esan zuen Tavenek, su-begi aiek lsearengana zorrotz-tuki. Zoroak! Ziztailluz eriotza ziztatuki erlearen indarra ta eztiaren funtsa yakin nai duzte? Tinko al ago, su-begiratu biziz amaren sabelean dagoen aurra yaio baño len ez dezakela il? edo bei mardulen baten errapea agortu? Txoriñoak txoraturik gelditzen ditun ontza ikusiki; itsas-antzararak aizetik yausten ditun erensugearen begizkora, ta ez al deritzon giza-begik seda-arra gaizkitu dezakenik? Mutillaren su-begiratu maitekorretik, zein neskatx gurbillek bere burua gorde?

Au entzutean, lau nexkari, eskuetan zeduzkaten kuskuak erori zitzaizkien. —Suge zarra, esan zion batak Taveni: garagarrillean, naiz Lastaillean ire eztena gai zegon beti! Mutillek dion? Begira urbil ditezen! Ez, esan zuten alaiki nexkak, ez diñagu mutil-bearrik, ez da ala Mireio? Kusku-bilketa ez dun eguneroko lana, esan zun arek; goñubera niyoan, gogoko zaizuten edari-eske. Ta Mireiok laister aldegin zuen gelatik, mataillen gorria izkutatu nairik.

*Neska gazteen aundi-naia.—
Maite-azitegia.*

—Andretxoak, asi zen Laure, ni presuna txarra naun, dakizutenez. Alere, mutilli buruz belari egitea gogoak emanen balit, Pamparigustako erregeak berak bere burua aginduko balit ere, atsegin niken zazpi urtez nire oiñetan irrikatzen ikustea. —Nik, aldiz, esan zuen Kelementik, erregerik nitaz maitemindu baledi, batez ere gazte txairoa balitz, eta bere menpeko guziek baño lerdenagoa, oinbeste txorakeri bage etsiko niken aren yauregira bidean. Baño erregin egiñen banindu, ta nire buru beroan txirlarri dizdiztun buruntza ipiñiko balit, ordun, erregiñ au, Bausko xokondora etorriko uken; Baus eginen niken nire uri-buru; erria dagon arkaitz-gañean eraikiko niken gure gaztelu zarra, ta izarretarañoako dorre bat egiñen nioken. Ta gero, egurastu bearrekoan, ez soingañeko ta ez buruntza, atsegiñez iganen ninduken errege senarrarekin dorrearen gal-dotsera, Ta an bi-biak besatokiaren arrimoan, atsegintxo uke, naski, inguru-begira egoitea. Ta begion aurrean Provenza alai zabala urre-sagas-

ti antzo ikustea, ta gure itsaso zabal, muñopean biguinki etzana, ta If-ko gazteluraño usu ta arin datozen ontzi aundi babestuak ikustea. Vantur, tximistak eragiña, ondoan dauzkan mendiska makurtuen gañetik izarretaraño bere buru zuria yasotzen duen Vantur; artzai-nagusiak eskumakil gañean tinkatuta ardieri bezala mendiskeri begira dagona, Ta Rodano ibaia: ara zatozen lerro lerro ura edatera ainbeste uri ta iri alai, irrika ta kantari; Rodano arroa, bere errekez eta ertzez arrotua, ta alere, Aviñon ondoan Doms-ko Andre Mari agurtzeko bidea okertzen duna. Ta Duranza, auntz arin, larrak eta urritzak morrozten dituen; arako, iturritik etxerakoan txanbilletik ura mutilleri yaurtika datorren nexka sardaska ua...

Au esan ta, Kelementi Provenzako erregin yatorra yeiki zen aulkitik, eta magal betea saskian ustutzer ayoan zen. Adelaide beltxerana ta Violanti aren sabel-aizpa, Estoblongo gazteluko nekazarien alabak, Adelaide beltxerana ta aizpa Violanti, elkarrekin zoazin maiz Basaka-bordara. Maite-miñez gazteño xaloak oñazetzen dituen iratxo oker arek, biek mutil batengana zeduzkan.

Burua zut esan zuen Adelaidek: nexkak, yai dugun ezkerro, nadila ni erregiña, eta Marsella bere itsas-ontziekin, Ciotat irriyario ta Salon bere arbendolekin, eta Belicaire bere belardiekin, oro nire ditezela. Arlesko landako, Bausko ta Berben-tanako, anyere ta nexkak, esanen niken, egalda zaitetze nire yauregira. Zazpi ederrenak aukera nai ditiñat, eta aiek aztagan pixatuko duzute gezur-maitasuna ta irrika bizia. Zazpiok batean zatozte batzarrera. Ez al dun etsitzeko, bi gaztek elkarri begi onez so egiñ ezkerro, eskuarki ez ezkontzea? Adelaide erregiñak ordea, nik, itze-maten dizuet, olako bikoteren bat bidegabenez edo bekaizkeriz zazpi neska oen epaipean iñoiz gerta baledi, onbera-legea arkituko din. Aldez, txirlarri edo urre orde bere eder-yauntzia salduko balu, ta bere maiteñori salkeri naiz irain egiñen balio, zazpi epaikarienpean maite-asper izugarria liken. Eta neska batentzat bi maitale, edota bi neskentzat senargai bat litekenean, Batzarreak erabaki dezala zein den maitalerik oberen, zein limurtzailerik oberen, eta beraz, zein den maita-garrienik.

Atzenik, neskatx ederren lagun, datozela zazpi olerkari, ta mintxo-mintxo aipa dezate Epaitegi au, ta zugatz-azaletan, naiz basamaats-orrietan idatzi bezazte maite-legeak, eta yario ditezela aien ezpañetatik ahapaldi legunak, erlauntzeetatik ezti ona antzo.

Beiñola Gantelmoko Estepanik ola itzegiñen zuen, naski, aren izar-bekokiak Romaningo ta Alpinetako muñoak argitzen zituelarik. Olaxe Die-ko Kondesak ere, maite-auzitegia zedukalarik.

Eskuan pototxiña, Pazko eguna bezain eder, Mireio emakumeen gelara sartu zen. —Ots, esan zien, edazute apurño! Onek lana arintzen din, andreak! Kopatxo bana edan dezagun aurrera baño len! Eta espartz-azalezko pototxiñari baze-rion edari izpi berogarri, katilluak banaka bana-ka bete arteo. —Neronek egin ninan edari au, zion Mireiok. Berrogai egunez leioan egon bearra din, eguzkiak miña ta indarra ken ditzazkion. Iru mendi-belar mota ditin, eta mustioak urriñ ona artzen din bularra lurrintzeko.

No, Mireio, esan zion nexkaetako batek; emen bakoitzak esan din zer egiñen luken erre-

giñ izan ezkerro ta zer aintzat artuko luken, onda-
sunez yantziko balitza; ik ere esaigun bada,
Mireio; ikus zer derizkionan. —Zer esan? eran-
tzun zien; gure Crauko landetxean gurasoekin
zorioneko naun, eta beste deusek ez neon kikili-
katzen. —Bai, esan zion artan gazteño batek;
urrerik edo zillarrik ez dun gogo; baño goiz
batez, Mireio (barkatu ixilpean uzten ez badut),
astearte batez, gogoan zedukentat, arba-biltzetik
netorrenan, eta Gurutze zurira nintzanean,
zotzabar-xorta bizkarrean, meakezurrean eskua,
ikusi indudan zugatzartetan mutil erne aski bate-
kin. —Nor da? nor da? galdegin zuten nexkak.
Nongo seme da? —Zugatzengatik ezin argi ikusi
izan ninan, baño oker ez banago, saskigiñean ain
ederki aritzen den mutil ua, Valabregako Biken-
di. —A, sastraka! esan zuten nexkak irri-karka-
raz; saski eder bat nai, nonbait, eta maite duela
siñestarazi zion. Orra baztar otan den neskarik
ederrena, oñutsik dabillen Bikendi senargai
duela! Ta guziek adarra yoka asi zitzazkion.

Ordun Tavenek, zear-begiraka esan zien:
urte txar zuei, azi gaizto oeri! Rumecak zoratuko

al zaituzte guziok! Yainko ona balebilken bere atsetokian, eta irrigarri uken olakoentzat.

Eder dun zoro zoroan Bikendiri irri egitea! Ez baitakizute zer balio dun beartsu izan arren. Entzun gertakari au. Yainkoak aldare-aurrean egindako mirari dun, eta gure egunotan gertatua; beraz egia. Luberongo malkorretan bizi guzian artzai izandako gizon basati bat unan. Zartzaroan oartu unan, gorputz gogorra illobirantza makurtzen zitzaiola. Pekatuak aitortu nai bada, bear denez, eta Done Eukariko baselizako apezarengana yo zinan. Valmaseca-n bakar ta zorzor, ez Elizik, ez baselizik etzinan oiñez ukitu lenbizikoz Yauna artze ezkerro, ta buruz zekitzan otoitzak ere aaztu zetinan. Etxola utzita igo unan bada baselizera, ta an lurreraño makurtu unan apaizaren aurrean. —Zer ogenik dakartzu? galdegin zion apezak maitaro. —Ai ene! erantzun zion zaarrak; beinola txori buztanikara bat nere artaldearen gaiñean zebillela (artzaien adiskide aundi baita), arria irazi nion, eta nai ez ta il nuen pinpin gaixoa. —Gizon au, berariz ari ez bada, eroa duk, esan zuen apezak berekiko. Ta ote zan yakiteko, aurpegira begira esan zion: arako kako

artatik zilintza ezazu yaka, seme, ta artean asoluzioa emanen dizut. Apezak esandako kakoa, elizatxoan zearka sartzen zen eguzki-izpia zen. Agure gizagaxoak erazten du yaka, ta siñeskiro iseki ere bai, ta zilintzan gelditzen da argi-izpitik. —Gizagaxoa! esan zion apezak, eta zarraren belaunari elduz, nigar-malkoa zeriola, nik zuri asoluzioa eman? esan zion. Ene! nik bezat egin nigar, eta zuk eskua eda idazu, santu aundi baitzara, ta ni pekatari aundi!

Ontan bukatu zun Tavenek, neskeri irria atertu zien kontu au. —Ikasbidetzat dun au, esan zuen Laurek, eta egi biribilla. Zergatik irri egin soñeko zarpildunari? Ille aulak azuri ederra estali zezaken. Bañon aria ar dezagun berriz. Gure etxeko neska mats-alea bezain gorri gelditu dun Bikendiren izena entzun orduko. Bai bide dun zerbait. —No, ederra, zenbat iraun zuen osto-biltzeak? Lagunarekin orduak aazten ditun, eta maitearekin beta eskas. —Ekin, kuskubiltzailak! ez al duzute aski, maxiolariok? erantzun zuen Mireiok. Zuek santu bat ere ipernuraziko zinukete. Orain, zueri bostak emateko nere gaxtean mojategi batean sartzera niyoan. —Ut, ut!

esan zuten ago batez andereak: Magali ederra bezala? Maitakeriak iguin eta Arlesko done Bala-diren mojegian itxi zen bezala?... —Nore, i kantari ona aiz; nai dunanean belarria zoratzen dun, eta kanta ion Mireiori Magaliren kantua. Igespide aunitz zituela, alegia, maitearentzat, bere burua maats-aien, egazti, argi-izpi, biurtzen zularik; eta alere maitemiñak artu zuela.

—Magali zoragarri!... asi zen Nore, ta andereak bizkortu zuten lan-ekiña ta biotz-argia; ta martiñar batek udaurrenkantua asi ezkeroko gañerakoak lagun egiten dioten bezala, nexkek ere, saldoan asi zuten leloa.

Magaliren kanta.

Magali zoragarri, adi leiora, entzu ezan nire goiz-kanta; txistu-arratzen kanta.

Zerua izar zegon, enbatak askaturik, izarrak, ordea, i ikusiki, zurbildu egiñen.

Ostoen otsak adiña ez neri axola ire kantak; uin urdinetara nien, ni itsas-aingire egiñen.

Ai Magali, itsas-aingire egiñen? ni arrantzale egiñen; atzemanen.

I arrantzale egiñen? sarea yaurtiren?; ni egazti biurturen; zabaldiak iraganen.

Ai Magali, i egazti biurturen?; ni eiztari egiñen; eizaturen.

Eper ta artaxorieri segara edaturen?; ni belar biguin egiñen; larrean izkutaturen.

Ai Magali, i pitxi-lore egiñen?; ni ur garbi egiñen; ureztaturen.

I ur garbi egiñen?; ni odei aundi egiñen, eta Indietara igesegiñen.

Ai Magali, ik urrungo Indiak ikusiren?; ni itsas-aize egiñen; eramanean.

I itsas-aize egiñen?; nik alere igesegiñen: eguzkiaren argi-izpi biurturen.

Ai Magali, argi-izpi biurturen?; ni musker biurturen: i edanen.

I sasitarteko arrabio biurturen?; ni sorgiñen argi: illargi biurturen.

Ai Magali, i ilargi legun biurturen!; ni laño eder biurturen: estaliren.

Estali arren ez ni atxikiren: ni arantzartean sorturik, arrosa garbi izanen.

Ai Magali, i arrosa eder biurturen?; ni mitxirrika biurturen: muñ emanen.

Laister, laister, maite, ez nauk beiñere atze-
manen: baso ospelean aritz ni biurturen.

Ai Magali, i zugaitz illun biurturen?; ni untz-
aien: laztan emanen.

Laztandu nai banauk zutoin bat laztanduren;
ni done Baladiko mojategian mojatxo txuri biur-
turen:

Ai Magali, i mojatxo txuri egiñen?; ni konpe-
sore egiñen: entzunen.

Ontan, andereak ikarak artu, ta aien eskueta-
ko urre-kuskuak erori egin. Esan zioten Noreri.
Ots, arin! zer egin zun Magali gaixok mojatzen,
lore ta aritz eta ilargi ta eguzki ta odei ta egazti
ta belar ta arrain izan ondoren?

—Kanta bukatzera nioan, esan zien Norek.
Zertan ari giñan? mojategian sartu zela, ta mai-
teak konpesore egiñen dela. Ikus beste oztopo
au.

Mojategian sartzen baaiz, illeta-eresiak
entzunen, eta mojaen erdian il-yantziz ni ediren-
nen.

Ai Magali, ik illarena egiñen? ni lur biurturen:
idukiren.

Siñetsi bearko diat egiz ari aizela: toik gazte, oroigarritzat, nire kristal-eraztun.

Ai Magali, zintasun au esker onez artzen diñat. Begira goiko izarrak: i ikusiki zurbildu egin ditun.

Nore ixildu zen: iñork ez txintik ateratzen. Zein ederki kantatzen zuen Norek: ibaiak dera-matzin iraubelar-izpiak antzo, batean lagun egi-ten zioten besteak zintzo ta eskurakoi.

Au egueldiaren ederra! esan zuen Norek bukaeran. Igitariak igitaiak muntegian garbitu zituten gerlia kentzeko. Atzi izkigun, Mireio, Yon-done-sagar batzuk; gazta berria ekatzen, eta atsal-azkaria egin dezagun basakapean.

IV EZKONGAIAK

*Iru mutilek irrikatzen dute Mireio.—
Ilariren artaldea.*

Lili-ubel-aroan, badoazi bikoteak itzalez itzal exkute-biltzera. Itsasoak bere bular aserrea adiskidetzen du ta arnas biguin dario titi guzietatik. Ordun, asten dire ontzi ta txalupa saldoka Martegatik, eta itsaso barean arraun-egoak edatuki, arraintzara doazi. Ageri ere dire ordun andere garatuen artean, nexka-saldoak eultze gisa, naiz artzai, naiz kondesa, eder-izena artzera. Badire senargaiak Crauen, gazteluetan. Basaka-bordan iru azaldu ziren: beorzai bat, beizai bat eta artzai bat: mutil ederrak irurak.

Aurrena Ilari artzaia. Milla ardiburu baomen, negutean Entresengo aintziran larre gazian larratzen zirenak. Maiatzean, garia kozkortzean ardiak berak omen zeramatzin Alpeetako goi ozkirrietara. Esaten ere da, nik bai siñesten, Yaundone Mark-ez, beratzi motxalek iru egune-

tako lana bazutela aren ardiak mozten; eta aiek moztu-ala, beste batek artille zuri astuna eramán, eta beste batek, aiek arin ustutzen zuten txanbilla, bete.

Beroa aultzen zenean basaburuetan elur odeia zurrunbilloka astean, ikustekoa zen aren artaldea, Delfin-erriko goiko ibarretatik zabaldiko negu-larrera yeisten zenean! Ikustekoa zen artalde aberats ua maldarretan beera! Aurretik urte-bildotsak zoazin ziripurdika, lerroan, beren artzaitxoarekin. Bildotsen urrena asto zintzarri-dunak naaste, ta astakume ta asteme, atzetik astogaiñean astazaiarekin. Asto orien gañean eramaten dire yaki-edariak eta artzaien tresneria, ta axuri unatuak eta ardi illen larru odolduak. Urrena, saldoaren buruzagi antzo, bost aker adar-biurri, begiratuoker, elkarren parean, zintzarrieri buru-kulunka eragiten zitela, eskainka-antzean. Urrena auntz-amak antxumeekin, urruy yostalariekin eta axo eskukoiekin. Saldo yale ta baztarzale au, auntzaiaren mendean zoaien. Urrena, muturra yasoaz aari aurrelariak, belarri inguruan adar iru-biurrekin, eta saldo-nagusi direlazko bizkarreko purpuxetekin. Aurretik

mutil-nagusia, yaka latza bizkarrean, artaldeak atzetik inguratzen zutelarik. Eta auts-odei tartean an ageri ziren aurrena laisterka ardi umedunak, axurien marrakari marraka luzez erantzuki, mortxilak lepoan eta arrotzen zuten autsez, antxu ta ille-aari otzan estaltzen zituztela.

Mutil-nagusiak eta artzaiak noizpenka oiugiten zien zakurreri «itzuli» esanaz. Azkenik bazetorren talderik aundiena, meaketan pike-tximika zuten arkazteak, berantardiak, bi aldiz umatuak, umeak kenduak, eta ume-egiteko zeuden sabel-nagiak. Atzetik gibel-saldoa; antzu, urgun, ortzik bageko, ezin gainkatuzko aari, elbarri, adarrak eta ederra galduak. Guzi au: auntz, ardi zar, arkazte, elbarri, llarirena zen. Menditik etxerakoan eundaka aurretik igarotzea aren begiak atsegiñ artzen zuten. Artzai gaztea, artzakur zuri aundiek larrera yarraitzen ziotela, larruzko zango-zorro belauneraño lekatuekin, astigar makilla lodi bat eskuan, funtsez eta aurpegi naroz, David ederra zirudin, arrastirian bere asaben idoietan gazte zelarik ardiak eradatzen zituenean.

—Ara Mireio, arontza ta onontza Basakabor-
da aurrean, esan zuen arzaiak. Ene! egi esan
zidate artaz; zelaiean ez mendian ez itxuratan ez
egitan ez diat aren ukondoraño den neskarik
ikusi.

Ilariri muziñ egiten dio Mireiok.

Ua ikusteko soilki artaldetik alderatu zen Ilari.
Ondoratu zitzaion eta mintza-ikaraz esan zion:
mendixkek igarotzeko bidea erakutsiko al dida-
zu? ezperen ortik aterako ez naizen bildur naiz.
—Bide auxe zuzen artzea besterik ez duzu, eran-
tzun zion mendi-neskak; zoaz gero Peiramalako
eremuan barna, ta zoaz ibar okertsuan barna, ta
atzenean billatuko duzu arkupe batean illobi bat,
arrizko bi gudu-nagusirekin. «Antziñate» deitzen
zaio ari. —Eskerrik asko, erantzun zion artzaiak.
Nire xakia duten milla ardiburuk Crau aldenbes-
te igarotzen dute gaur, biar mendira igotzeko.
Artaldeari aurretik natorkio bidea erakusten,
larreak artzen eta gau-leku onak billatzen. Nire
ardi-yende au oberenetakoa da. ta ni ezkondu

banendi, nire emaztea egun osoan urretxindor xinta entzunez bizi litake... Ta zuk nire esku-ekusia artzeko zoriona banu, eskeiñiko nizuke ez urre-bitxirik; zuretzat egin dudan ezpel-edontzi berri ukigabe au. Au esanda maiteki kolkotik atera zun ezpelezko edontzia. Atsedeen-orduetan olakoak egiten astia ematen zuen arri baten gainean. Aizto bat, beste gabe, bikainki lantzen zitun artaldea zuzentzeko kriskitiñak eta lepo-ustaiak eta ezurrezko yoale-miian txori ta lore ta nai bezanbat edergailu egiten zitun. Edontzi ua ikusi bazendute, etzenuten siñestuko artzai-aiztoz egiña zenik. Inguruan larre ugari loretsua zedukan, eta bi basauntz larrea yaten, edontziaren belarritako. Beerago iru nexka zoragarri eta artzai bat zugazpean etzanda. Nexka xaxtrakak artzaiarengana urbiltzen ziren ixilka, ta saskian zeramaten maats-morkaetatik bat aboratzen zioten. Ametsetan ari zan mutilla, parrez esnatu, ta nexketako bat ikaratu. Erroaren kolorea izan ez balitza, iduri aiek bizirik ziruditen edontzi artan. Berria zen, oraino uki-gabea.

—Begien kilikagarri da, naski, esan zion Mireiok eskuekusi ori, baño nire senargaiak badu

ederragorik: nireganako maitea. Ark irrikaz begiratzen didanean, begiak lurreratzen ditut, eta sekulako atsegiña dit. Au esan neskak eta artzaia, anak arinduz, iratxo bezala itzali zen. Ilari artzaiak edontzia lengo lekuratu zuen, eta geldi geldi illunabarrean bordatik aldegin zun, alako nexka ederra arengana ez ta besterengana zegoelako.

Veran beorzaia.—

Alaba eskatzen dio yaun Erraimuni.—

Mireiok muziñ egiten dio oni ere.

Agertu ere zen Basaka-bordan Veran, beorzaia, Sanbun bizi zena. Sanbuko zabaldietan, larranbilludietan eun beor zuri zitun, seska yeikien morrozle. Eun beor zuri, gesal-belarra antzeko motots ederdun, aitzurrez iñoiz ukigabeak. Agokorik bage ziztuan zioazelarik, aien muiñoak maitagarriren lepoan adatsa bezala arrotzen ziren.

Lotsa iretzat, giza-aria! Camargako beor zuriak ez dituk egundaño menderatu ez eskuatseginka, ez aztal-eztenka. Amarruz atzemanda

ikusi ditiat batzuk gesalbelarretatik urrun; baño alako batean yauzi bizkor ustekabekoz, uzkailli dite gañekoa, ta ordun laugainka ikusi ditiat ogai legoa bidean aizea arnastuz, eta bein Vacares-era ezkerre, an yaio baitziren, kresal-urriña lasai artzen. Azi basati orrek itsasondoa maite baitu, Neptunen gurditik igeseginda, oraino apar-zirta dite bizkarrean. Eta itsasoa asarre dadinean, eta zerua goibel dadinean, ontzien unamak eten direnean, Camargako moxaleri atsegiñ-irrintzi zeritek. Ta isats luzea zaaro antzo iñarrosten dite ta lurra aztarrikatzen, yainko izugarriaren ezte-nak eraginki; ark sortzen baititu naspillaka ekaitz eta ugolde, ta ark iraultzen azpikoz gora itsasoa-ren ondarrak.

Veranek eskuarki bere beorrak Camargan larratzen zitun. Beinola, eginbearrak Craura eraman zun, eta Veran, Mireioren landetxerantza zuzendu zen. Camargan, alegia, ta arako Rodanen agoetaraño ota baitzen, eta izanen ere luzaro, Mireio neska ederra zela. An azaldu zen lerdan, arles-yaka luze gorrixta soiñean musker-bizkarra bezalako gerriko nabarrak tinkatua, ta ezko-ginbaila eguzki izpiz dirdaigarri.

Ta yaun Erraimunen ondora ezkeru, esan zion: egun onik: ni Camargako ugaldetarra nauzu: Petiri itzaiaren billoba. Aurpegi-antzez ezagutzen al nauzu. Gure aitona zena gutxienez ogai urte lerroan bere beorrekin zure larrainean eultzilari ibillia duzu, Aintziradi ontan, gure aitona gizagajoak iru beor-uztar zitun, gogoan al duzu. Baño orantza zenbat azi den bazenekusa! Gaur gero uztaro da. Onezkero zazpi beor-uztarrari badiugu... Urte askoz, seme, ugariturik ikusiko al dituk larrera eramatean. Zuen aitona ezagun diat, aspaldidanik adiskide. Baño gorputza izozten digun adiñera iritxi ezkeru, su ondorako gelditzen gaituk, eta yoan dituk adiskideak. Baño, ez da au guzia, esan zuen gazteak; ez dizut esan oraino zer dakardan. Maiz aski, Crauko yendea agotzetara Sampura datorrenean, gurdia zamatu bitartean, Crauko nesketaz dugu yarduna, ta zure Mireio ain nire atsegiñeko adierazi didate, zuk Veran orobat arki bazeneza, sui bat ninduzuke. —Veran! Yainkoak ala letsa! esan zuen Erraimunek; nire adiskide Petiri beorzaia- ren ondorengo urtume batek edertuko nindikek. Eta Yainkoari eskerrak eman-antzean eskuak

zeruratuz esan zun: —Neskari atsegin bai atzaio (bakarra izaki ta au diagu kutuna), ezkontsari aurrekotzat nire onespina ematen diat, eta betiko iraun ezak.

Au esanda, belakoan otsegiten dio alabari, ta itz bitan azaltzen dio aren asmoa. Neska ikaraz, zurbil, begi-larri onela mintzatu zen: Aita, zer asmo du zure buru zurrak? Onen gazte ta ondolik astandu nai nauzu? Noiz edo bein esan izan didazu, itzematea zuurki egin bear dela, ta lenik ezkongaiak elkar ezagutzea on dela. Eta norbait ezagutzea aski al da?... Ixildu zen eta aren aurpegi naasian gogoeta goxo bat agertu zen, goizeko euritean loretxoak ur arre tartetik ageri diren bezala. Mireioren amak onetsi zitun aren itzak, eta beorzaiak par-irrika esan zun: Erraimun yauna, ba-noa; Camargako beorzaiak eltxozizta ezagutzen baitu, naski.

Urri zezen-ezlarria.

Uda artan bertan Camargako larre latzetatik etorri zen bordara, neska ikustera, Urri, zezen-

ezlaria. Camarga basatiko zezenak beltzak dire, beltz, izu, nonnai ospatuak. Eguzki-izpi gorietan, izoztean, eta ugoldeetan, Urri an zebillen aiek larratzen urte guzian. Eize-tartean yaioa, zezen tartean azia, zezen-itea zuen, eta begi izua, ta kolore illuna, ta aiek bezain gorpuzkera ta barren gogorra. Zenbat aldiz, yaka lurrera egotzita makilla artuz, beien errapetik zekorrak erauzi zitun, eta gero, bei aserrearen bizkarrean makilla sail bat autsi, beiak marruka ler-basora igesegin ta burua zemaika itzultzen ziolarik! Zenbat ergi ta zekor uzkaili zituen Camargako xaki-aldietan! Oraino bekainean baitzedukan tximista antzeko ebaki-ondoa, ta gogoan zedukan, noiz-bait belargazi ta odarra odoldu izana.

Xakiegun aundia zen. Donamarietako, Faramango, Albarongo ta Urgeldietako zezenak biltzeko, larrera bialdu zituzten eun zaldizko bizkorrenak eta oituenak. Toki yakiñean yendalde aundia zegon bero bero, larrain aundi bat ixten. Ikaraturik, zabaldi gesalean bazetozen eriosuar irureun ta geiago zezen eta ergi, aize-orroa bezala, lezka ta lubeazunak lerdakatzuz. Larrean atzematera yoan ziren beizai kementsuak, ezte-

nez eragitenago diote aien laugañari. Laister iri-txi ziren xaki-lekura. Beitaldea ikara ta ixil gelditu da. Beizaiak ordea, bizkarra zirikatuz, larrain-ingurua iru aldiz ibillarazten dite, aspertu gabe esetsiz, zakurrak pitotxa bezala, Luberongo arranoak sapelatsa bezala. Nork uste? Urri, oi ez bezala, beorretik yeisten. Zezenak ate-ondoan bildurik, ikaratzen dire biziki. Laister ateratzen dire erdira bost zekor zerua buru-kulunkaz zulatu nairik. Urri, aizea bezala oldartzen zaie; aizea odeien atzetik antzo, laisterka esesten ditu, edo zirika edo aurea artuz, edo aurean dantzan, edo muturreko bizkor batekin, zorarazten ditu. Erri guzia zoraturik txaloka dago. Urrik, autsez beterik, eltzen dio alako batean adarretatik zezen bati, ta buruz buru indarka eusten dio. Zezen beltzak adarrak askatu nai ta gorputza okertzen du ta aserrez marru egiten du ta odol apar ta kei dario. Alperrik aserrea alperrik indarka! Beizaiak bizkarrarekin antzez eusten dio, lepoa okertuz, eta beste aldera bapatean bultzatzuz lurreratzen du indarrez, eta orma gogorra bezala zezen eta ezilari lurrera erroizten dire. Oiu ikaragarri batek millizkak iñarosten ditu. Ori

duk, Urri, ori! dio erriak. Eta an doazi bost gazte bizkor zezenari eustera xakia (marka) egin bitartean. Urrik burni goriz bizkarra erretzen dio. Arlesko neska gazte batzuk, beoka zurien gañean zangalatrau datoz laugainka, bular-arnaska ta matail-gorri. Eskeintzen diote Urriri adar-ontzi aundi bat ardo, ta aldegiten dute zabaldian barna auts-odei tartean. Atzetik doakie zaldizko-sail bizkorra. Auts-odeia laister txarrotzen da. Urrik zezenak gogoetan, eta eziketa. Lau ziren oraino xaki-bearrak; baño belar ugari-goan segariak kementsuago lan egiten duten bezala, zezen-ezlariak ere indar eta burruka, lau zezenen bizkarrak auldu zituen. Atzenekoa nabarra zen eta lasa lasa larratzean ari zen: Badoakio Urri. Aski duk Urri, aski, dirautsoe itzai zaarrak. Alperik esan! Zezen nabar arengana badoa, ezten-aga muturrez aurrera, ta kolkoa zabalik eta izarditan, oldartzen zaio. Zezenak geldi igurikitzen du oldarra ta muturraren erdian artzen du burnia. Eztenaga zartatzen da, ta zezen mindua aserretzen da bizi. Urrik yauzi eginda adarretatik eltzen dio. Zezenak berekin

derama, ta bien artean laisterka zelaieko gesal-belarra aztakatzen dute.

Arlesko beizaiak, zaldiz, eztenagaetan tinkaturik, burruka lazgarria Urgeldietatik zekusaten. Aserre bizian, gizonak zezena eskuratu nai, ta zezenak arrastaka deraman gizona iñarrosi nai, bere mingain apar-yarioz mutur odoldua milikatzen duelarik. Zezena nagusi!... Zakar-pilla bezala amildu da, zezenaren laisterka burrundarekin. — Illarena egik! Illarena egik! esaten diote alde guzietatik. Eltzen dio zezenak adar-muturrekin, eta buru aserreari eragiñez, zazpi kana gora yaurti du atzera. Millazkak dardar egin zuten sortu zen deadarrarekin. Zezenarengandik urrun erori zen Urri gizagajoa auzpez, larriki zauritua. Ordudanik etzion aldegin aurpegiko ebaki-ondo itsusiak.

Urri ta Mireio iturrian izketan.

Iritxi zen bada Urri Mireioren billa astakilloz yauntzita, beor-gañean. Goiz artan, neska bakarririk zegoen iturrian, eta beso uts, eta magala bil-

duki gazta-zumitzak garbitzen ari zen azari belarrarekin. Aitaren!... zein ederra zegoen, ointxoak iturriko ur garbian beratuz. Urrik esan zion:

—Egun on, eder; zumitzak garbi bitartean, arren, beor zuri onek edan dezala, iduri bazaizu.

—Emen badago ura ugari erantzun zion; askan edan dezake gogo dun guzia. —Ederra, esan zion gazteak, emaztez edo arrotzez Errege-basora yoanen baziña, etzenuke zumitz garbiketan ari bearrik, bei beltz izu aiek ez baitire yeizten eta an emakumeak lasai bizi dire. Andik itsas-orroa entzuten da. —Gazte, erantzun zion neskek: zezen-errian neska guziek aulkeriz iltzen dire.

—Ederra, lagunaren ondoan ez dago asperterik. —Gazte, urruti aietara doanak ur gaziak edaten omen ditu, ta eguzkiak aurpegia erretzen omen dio. —Ederra, piñupean naiko itzala bazenuke. —Gazte, piñuetara suge muskertsu ta biurriak igotzen omen dire. —Ederra, ango burio ta koartzak Rodano-ertzeko sugeak antzematen ditute. —Gazte, ez aserretu, zuen piñuak gure basaketatik urrun daude. —Ederra, apezak eta neskek ez omen dakite urrengo urten ogia non yanen, esaera zarrak dionez. —Gazte, nik nire

maitearekin yan ezkerro, besterik ez dut bear nire kabia uzteko. —Ederra, ola bada, maite nazazu. —Maiteko zaitut esan zion Mireiok, baño zure eztenaga lenago loratuko da; onako muñok, ezkoa bezala lenago beratuko dire, ta lenago yoan al diteke itsasoz Bausko irira.

V BORROKA

Mireio ta Bikendi maite-ametsetan.

Zumar txurien itzala luzatzen ari zen. Vanturko aize goxoak aizegiten zuen, Eguzkiak bi orduko bidea zedukan izkutatzeko. Nekazariak noizipein begi ematen zioten eguzkiari, arratsa noiz etorriko, beren emazteek atal-ondoan eserita ikusteko.

Beizala bazoaien bere aldetik, eta iturriko neskak eman zion etsipenak burua nasten zion. Aldiz aldiz, aserreak edo lotsak bekokira odola biltzen zion. Zelai-zear laisterka, iraiña gogoanago ta aserretzenago zen. Ainbesteraño, alegia, arkoskoekin ere burukatuko baitzen eta eztenagarekin eguzkia ere zulatuko baitzuen. Sasitik aizatzen den basurdea alaxe dabil Muñoz Muñoz Olinpo beltzean, eta atzetik darraizkon zakurrengana itzuli baño len, illea lazten du, ta letagiñak arteetan zorrozten ditu. Beizai suminduari buruz eta bide beretik zetorren txairo Bikendi, atsegi-

ñez beterik, neskatzak goiz batez masustapean esan-itx goxoekin ametsetan. Duranako seskak bezain lerden zetorren, eta aurpegitik zoriona ta maitasuna ta pakea zerion, eta aize biguina kolko zabaletik sartzen zitzaion.

Muskerra bezain arin zebillen oñutsik arri borobillen gañean.

Askotan, lurra itzaletan yartzen deneko ordu ozkirrian, irusta-belarra barrutian otzak zimurtzen dunean, Bikendi, neska ederraren bordara urbiltzen zen eta an itzulinguruka ibilli, mitxeleta bezala ta izkutaturik, urrezko txorruaren xinta edo zotal-txoriarena ateratzen zituen, eta neska maitea, yakiñaren gañean, deia ezagutuki, laisterka eta izkutuka elorri-esipera zetorren, biotza pilpil zegiola. Ilargia kukupearen gañera zabal-tzea, illunabarreko uda-aizeak galburuak maitteen bularra bezala kulunkatzea, ta orkatzak eiztariengandik iges, egun osoa eman ta bakarrik bere burua sasitartean eta arkaitz dorre tartean ikuski senti duen atsegiñ berdingabea, fitsik ez dire, Mireiok eta Bikendik ordun senti zutenaren aldean. Ixil itzegin, ordea nire ezpañak, esiak belarriak ditu ta. An itzalpe izkutuan bien eskuak

elkartzen ziren ezarian ezarian, eta estutzen gero. Ixillaldi bat ondoan, oin-muturrez arri biribillek amiltzen zituten. Eta besterik esateko asmatzen ez ta, mutillak par-murritz artean bere lanbideko gora-berak yalkitzen zition: zenbait gabez atari zabalean lo egiten zuela, ta bordetan zakurrek ozkatu egin zutela noiz edo bein, eta zauri-ondoak an zeduzkala. Neskak, aldiz, egunezko lanak, eta gualdikoak, eta gurasoen asmoak, eta auntzaren autsiabarrak: lorean zegoen maatsondoa txaro morroztu zuela. Alako batez, Bikendi etzen bere buruaren yabe. Belar aundiaren artetik basakatua bezala narraz etorri zen nexkaren oñetaraño. Baño, ixo nire ezpañak, esiak belarriak ditu ta. —Mireio, idan musu bat, esan zion Bikendik. Mireio, ez yan ez edan negon; ainbesteko maitea biztu didan. Mireio, ire arnasa nire odolean sartu nai niken, eta aizeak eramaten zidan. Ire gonaren magala bederen utzadan, musukatzeko. Egun eta eguzki ari nadin musuz betetzen! —Bikendi, ori pekatu itsusia duk, esan zion Mireiok, eta otatxoriek eta gorribeltzek zabalduko ditu bezela maiteen ixilgordea. —Ez izan orren beldurrik; biar bertan

aizatuko nik Crautik asita Arlesko mugaraño dabilten otatxoriak. Mireio, iregan Paradisua zekusanat... Entzuidan, Mireio, zion yaun Anbrusiren semeak; Rodanon badun belar bat, guk belar-kizkur esaten dioguna. Bi lore ditin, bata bestearengandik bereix, txapar bakoitzetan, eta ibaiaren ondarrean. Maite-aroa elldu zaitanean, loreetako bat gañera ateratzen dun irriz, eta eguzkiari eskatzen zion pinpina zabal dezaion. Ain ederra ikustean, bestea ernatzen dun, ikustekoa! ta lagunarengana maitaro igeritan zoaien musu bat emateko bere aienak luzatuz, gorbela-rengandik bereizi ta, txortena autsiz, bere esku-ko, baño iltzear, eta muñ egiten zion bere ezpain zurbillekin, lagun zuriari. Mireio! musu bat eta gero eriotza... Bakarrik geuden ta... Neska zurbil zegoan; mutilla zoraturik, begira zegokion. Nasialdi artan, basakatua bezala yeikitzen da bat batean. Neskak, ikaraturik, kentzen dio eskua gerritik, baño ark berriz eltzen dio. Baño itzegin, ixilago, nire ezpañak, esiak belarriak ditu ta. Utzak, zion neskak intzirika, utzak, zion makurtuz eta burruka. Baño mutillak, atsegiñ beroz estutzen du, ta taitar egiten dio matai-

Ilean. Neskak atzimurtzi egin zion, makurtu zen, eta igesegin zion parrez. Eta urrundarik maxio-ka kantatzen zion: «ator berriz, ator berriz!...» Onela illunabarrean beren garia ereiten ari ziren, ilargi-gari ederra, Yainkoak erregeeri naiz neka-zarieri ugari bialtzen dien esku-ekusi loratsua.

Urriren eta Bikendiren erronka.

Bazoaien bada illuntzean zabaldian barna saskigille lerdena, Urriren bide beretik. Tximista lenbiziko zugatzarengana bezala, aserre biziz esteak yaten, onela mintzatu zitzaion bei-ezlarria: —I al aiz, ardi-semea, Mireio lilluratu duna? Ordun, zarpail orrek ara oan ezkerro esaiok, ez didala axolik arengatik eta aren erbiñude-ezpaingatik, ezta ire aragia estaltzen dun zatar zarrarengatik, emagixon eder; bai aiz? Bikendik dardar egin zun. Barrenak su artu zion berela, ta biotzak yausi egin zion suziriko antzo. —Doillorra, ezurrak autsiko diat, gerriak biurrituko ditiat atzaparrokin, erantzun zion leoi arre gosearen begiratu batez. Eta au esan bitartean, aragi bel-

tzak dardar zegion. —Buruz arripilla iriyoko diat, lapurra esan zun besteak; ire eskuak aulegi dituk;

ez duk balio zume bat biurritzeko; itzalez itzal ibiltzeko ta alperkerirako baño. —Bai, erantzun zion Bikendik sumindurik: zume bezala lepoa biurrituko diat. Iges egik, bada, iges nere aserretik; ezperen, Galiziko Santiago arren, ez duk geiago Camargako millazkarik ikusiko; onako burnizko eskumutur onek ezurak eioko ditik eta. Bere aserrez norengan irauli arkitu zulako pozez, beizaiak muzinka erantzun zion: itxok, kaiku, pipa biztu bear diat. Eta au esanda, atera zun sakeletik aker-larruzko toxa ta andik pipa beltza, ta irazeki bitartean, nardaz esan zion Bikendiri: amak seaskan eragiten zian bitartean ez al zian Joanes Artzaren ipuina kontatu.

Yoanes artza gizon indartsua uan. Bein batez nagusiak bi idi parerekin bialdu zian galtzua urratzera, ta zer egin omen zian? Artzai batek aari-eulia bezala artu idi uztartuak eta airean bota zumartxuri baten gañeraño. Arraio ezereza; bearrik etzegok emen zumartxuririk! —Lotsa gaiztokoa, esan zuen saskigilleak, i ez aiz astoa

alor-mugatik bialtzeko ere, urdea, mingain utsa
aiz! Bikendi mugimentu gabe, eizezakurra basei-
zearen aurrean bezala, arerioari bidea itxiz zego-
en. —Yetxi adi zaldikotik, yetxi! zion Bikendik
oiuka. Ez aiz yetxiko alper arrandi-aundi ori,
ez!... Yetxi adi, edo eratxiko aut. Ikaratu egiten
aiz? Atzeraka oa? Orain ikusiko diagu nork esne
obea edoski zun. Eta i, azi gaiztoa, gizon bizardu-
na aiz? Estekatuko aut, gari-bala bezala. Ik itsu-
situ al duk landa ortako Mireio, inguruetako
lorea? Nik garbituko ditiat ire iraiñ oriek, nik, ire
odolarekin, odolik baduk beintzat. Beizaiak aldiz
erantzun zion: arre, arre, sukai-maitale, itxok, or
noaiek. Eta berela yeixten da zalditik.

*Burruka.— Bikendi nagusi.—
Urrik azpikeriz, burni-agaz yota
zerraldo uzten du Bikendi.*

Aizatzen dute soingañekoa; eskuzarta egin
dute; aizea ere ikaratzen da; aien oiñenpean
arribillak amiltzen dire; oldartzen dire elkargana
bi idi bezala. Bereolaxe, bi idik, urruti eguzki

bero izpitara bei gazte beltz guria otalurrean ikusi orduko maite-marrua ateratzen dute lezkartartean eta barnean tximista lertuko bai litzaien, maiteak bertan itsutzen eta zorutzen ditu. Ta aztarrika bata besteari begira, arnasa artuz, burua makurtuki elkarri eltzen diote talka-ots aundiarekin. Burruka luzea ta gogorra dute, maiteak moskortzen baititu, maitasun bizkorrak eragiten die ta zirikatzen ditu. Bi txapeldunek olatsu ukabilkatzen zuten elkarren burua. Urrik ortzeta-ko ederra artu du, ta aundiagoaren eskaiña ikusita yasotzen du asarre bizitan bere eskutzarra, ta gabia bezala Bikendiren gañera egozten du! —To, to zartako au, errukarria! —Aizeputz, ikus-tak bulartsu naizenez, ziotsaten elkarri. —Begi-rita-itzak nire eskuek egindako ubelak. —Eta ik, arraio orrek, begira zenbat untza odol ixurtzen duan. Eltzen diote elkarri, iñarrosten dire, makurtzen eta zutitzen dire, oñez oin, soñez soin; biurritu besoak eta marruskatu, bi suge kiribildu antzo. Luzaro zuti, zotuku bage daude. Biotz pilpirak entzuten dire, eganagi baten egaketa bezala. Tinki ta ixilik, bata bestearen babesean. Gardongo zubi arrigarriaren zubi-bularrak

dirudite. Bat batean askatzen dire, ta ukabillak estutzen ditute; berriz zapaikiak zaparria yotzen du; berriz aserreak estutzen ditu ta ozka ta atzamarca ari dire. Ene! Bikendiren ukaldiek! Ene, beizaiaren muturrekoak! Ukabilko izugarriek ematen ditio, baño Valabregakoa, kaskabarra bezala usu, an dabilkio inguruan yauzika furrunda bezala. Oraintxe bai, dio saskigilleak, burua autsi bear diat! Baño indarra artzeko atzeraka egin zun bitartean, eltzen dio laister meaketatik Provenzako legera, ta sardeak garia bezala yaurtitzen du burutik atzera, saietsez zelaia yotzeraño. Bil ezak zitua, bil ezak, muturkatu dukan lur ortan, eta autsak atsegiten badik, yan edan ezak ar orrek nai adiña. —Aski duk itzik, eroa, irugarrenean bukatzen duk burruka, esan zion gazteak, edena zeriola. Odola igo zitzaion ille-muturretaraño. Yeiki zen erensugea bezala saskigillea, ta bere biziaren zorian ekiten dio Camargako basatiari, ta, gazte izan arren egundaño ukaldia ematen dio bularrean. Alderoka asten da basazia; zutik egon nai, baño begiak lausotzen zaizkio. Lurra biraka dabillega dirudio, izerdi otza

dario bekokitik, eta berebiziko dunbotsez dorre bat bezala erori zen zelai-erdian.

Crauko ingurua nare ta ixil zegoen. Urrutira zabaldia itsatsoan, galtzen, galtzen, eta itsatsoa zeruan. Aatetoak, aateñoak eta basaateak, bizkar dirdaitsuz eta suzko egoz, aintziraren ertze-ra zoazin egunaren atzen-izpiari agur egitera. Beizaiaren beor zuriak, zumeletan itsatsa orrazten zuen, eta sabelpean zilintzaka zeduzkan oinburdin aundiak utsik. —Igitzen baaiz lertuko aut! Orain ikasiko duk gizonak zigorrez ala eskuz neurtzen diren!... Otalur ixilean, saskigileak oiñez bulartea estutzen zion Urri elbarrituari. Oinpean iraultzen da, ta abo-sudurretatik odol beltz zikiña dario galgal. Iru indarralditan egiñalak egin zituen saskigillearen oinpetik limurtzeko, ta beste ainbestetan bota zuen zabal legarrra, aparra zariola, begi-okar eta abo-zabal, pizti itsusi bat bezala. —Ikasi al duk, zitala, guziok ez garala ire amaren seme? esan zion Bikendik. Oa Erregebasoko zezenetara ta esaiek nolako ukabil dudan. Aldegik emendik Camarga baztarreño zekor tartera, ire ubelak eta arrokeria ta lotsa izkutatzera. Au esan ta bere eskuko utzi zuen

mutil zakarra. Ardimotzale batek bereola idukitzen du ankartean aaria, ta illea erantzi ondoan, ipurgañean xartako bat eman ta bialtzen.

Erramiñez ta errautsez beterik, yeikitzen da saltoan beizaia, ta badoa. Burutapen gaiztok derama zabaldian barna. Biraoka ta orroka doa otsoa bezala, aragiak ikaretan. Zeren billa ote dabil legar eta añar tartean? Ene! Tenk egiten du alako batean, eta bere buruaren gañetik dardaratzen du ezten-aga, ta erasotzen dio Bikendiri. Au ikustean, laguntzarik bage bere burua ikuski, zurbildu zen eriotzera bai liyoan. Eriotzak ez du ikaratzen; salkeriz bizkorrago zen etoi baten menpean erori-bearrak, ordea.

—Bai al duk bekoki, etoi orrek? esan zun Bikendik, eta martiri antzo etsaia geldi igurikitzen du. Urrutigo, zugazartean izkaturik zegoen maitearen borda. Samur samurki aruntza itzuli zen, maiteari agur esateko bezala. Ona, Mireio, iregatik niyoan eriotzera. Bikendi gizagaxoa.

Inka larri artan asperenka ari zen oraino maitearengana. —Yainkoari goraintzi akioke, esan zion Urrik ostots otsez, anker arrek, eta berbertan ezten-agaz yo gazte gizagajoa ta zinkurinka

erori zen lurrera. Belar odoldua etzin zen aren azpian, eta luzaro bage txiñurriak bide egiten dute aren zango lurreztatuetan. Bitartean beizaia laugain ziyoan, marmarika. —Gaur gabean, zion biurri arrek, Crauko otsoak oturuntza badite legarretan. Bai poza duketela olako otorduarekin!

Crau aldea nare ta ixil zegoen. Urrutira, zabaldia itsasoan galtzen, eta itsasoa zeruan galtzen. Aatetoak, aatetipi dirdaizuak, eta basaate su-egodunak aintzira ertzera zoazin, azkeneko argi-izpiari agur egitera.

Ta beizaia laugainka, laugainka, itxedon bage. —Ots, ots! ziotsaten zangurru-biltzaileak beorrari. Ta beorrak sudupil-begi-belARRIERI eragiten zien. Rodano ibaia laister begizta zuten. An zetzan bere uberkan lasai. Aitzulo santuko bidez-kariak bereola egiten du lo, bideak akituta, arru zuloan. Ilargia dizdiz ari zen ur gañean. Ibaiean arraunka zoazin iru ontzilari.

Iru ontzi-zaiak. Iratxoan dantza.

Ontzikoak! oi u egiten du giza-iltzaile koldar-
rrak; ontzi-azalean naiz goñubean eramanen al
nauzute nere beorrarekin? —Ator usu, azi on,
erantzuten dio maxi-mintzo batek. Krisaillu ize-
kia gora dute, ta arraunen eta agaren tartean an-
dabiltza arrain ekurugaitzak. Beta galtzerik ez
dago; arantzak yotzen du. Urbil adi, morrosko,
mugona duk; sar adi ontzian usu. Biurria, gibe-
lean eseri zen. Beorra igerian zoaien ontzi-atze-
tik, muturra zapioeri lotuta. Arrai aundi ezkata-
zuriak arrarte barnak utzita, ontzi-gibelean yauzi
egiten zuten, ur nareari eragiñez. —Ontzizai! dio
arraunlari batek, antzia alderoka asi da, begira!
Au esan zuna, alkitoan oiña tinkatuki, arraunean
kiribildu zen aiena bezala. —Oartu nauk aintzin-
txe, dio ontzizaiak, karga madarikaturen bat
deramagula, Ontzizaia ixildu zen. Ontzi zarra
alderoka zebillen moskorra bezala. Ontzi zarra
zarkildua zen; olak ustelik zeduzkan. Yainkoaren
tximista! esan zun beizaiak lemeari elduz, ikaran
zuti yarririk. Norbaitek eraginda gerogo ta eragi-
ñago dabil ontzia, artzaiak arriz yo ta bizkarrezu-
rra autsi dion sugea bezala. Lagunak, zergatik
astiñaldiok? Ni murgiltzea nai al duzute? Ola oi u-

giten die beizaiak ontzi-mutilleri, orma baño zurbilago. —Oraintxe ezin menderatu dut lemea, dio lemazainak. Neregatik ontzia yaikitzen da, ta yauzi egiten du txirdillak bezala. Norbait il duk ik, doakabea! —Nik? Nork esan dik? Ola bada, Satanek eraman nazala ipernuko osiñera. —Ai, aaztu zaidak, esan zun ontzizaiak zurbil zurbil, aaztu zaidak; gaur duk done Medarten gaua. Gau ontan, ibaiean ito guziak atera bear dite beren zulo ta zurrunbilloetatik, eta aurpegia agertu bear dite, denik ondarreanean egon ta ere. Ara, asi dituk lerro luze luzean. Ara, gaixoak! Oiñutsik ziyoazek ibai-ertz arrizura. Soiñeko loituetatik, ille lizunetik ur arre tanta lodiak yariozten dituk. Itzalean, zumartxurien azpitik, lerro lerro zoazik, argi irazeki banarekin. Izarretara begira zeudek. Zango kuzkurtuak ondaretik erauziz, buruak oraino limuria daritela, ontzia kalakan eta alderoka zerabilte, ekaitzak bezala. Une oro itzal berri bat ateratzen da ertzera gogo biziz. Bai atsegiñez artzen dutela arnas garbia ta alorretatik datorren urriña! Ikus nola begiak aldatzen dituzten Crauko zabaldira. Oinbesteko zurmiñaldi ondoren, atsegin zaie naski, igitzea,

ta soñekoetatik ura dariela begiratzea! Une oro limuri ondarretik itzal berri bat agertzen da. Guziek ikaraz iñarrosten dute osiñeko loa. Badi-re zaarrak, gizaki ta emekiak, aragi ta ortzik bageko gizagaxoak. Perka ta mazkar arrantzara yoan, eta perka ta mazkarren yanari izatea gertatu. An ondarrean diyoan talde naigabetua baal dakusak? Senargaiarengandik alde beren buruak ikusita. Rodano ibaiari izkutatzeko ta beren naigabea murgiltzeko ondarra eskatu zioten neska eder ero aiek dituk. Gazteño gaixoak! Argi-illunean ageri zaiek pilpilka gorbela zikindutako bulartea, ta dariten tantaka etzekiat malkoa den ala illeetako ituzura. Ontan ixildu zen ontzizaia. Murgilduak, esku batean sugarra zeramaten; eta ixilik eta astiro zebiltzan ibai-ertzean. Gelldiune artan euli-furrunda ere oartu ziteken. —Ontzizai! esan zun Camargarrak ikara lauorritan; ez ote dabilta zerbaiten billa illunbetan? —Bai, zerbaiten billa, zoribagea! Burua alde guzietara itzultzen dite. Lurrean bizi ziralarik erein zituten siñiste-egiteen eta egite onaen billa zebiltzek. Gogo dutena billatu orduko, parrastan amiltzen dituk artaldea ozkirri atsegiñera bezala. Ta egite

ona eskuetan artu orduko, lore biurtzen zaiek, eta mordoxka bildu ezkerro Yainkoari zeramaioe alaiki ta arekin zeruko atepak irikiazten zizkiote Yondone Petiriri. Yainkoak ola ematen ziek erio-siñean yausi zireneri, beren buruek erosteko asia, batzuk ordea, egundu orduko, atzera urpe-ra sartzen dituk. Yainko-nardatzaile, gaixoen zanpatzaile, saltzaille, gizaitzaile, artalde erkitu ori, alperrik zebillek zeruratu dezaken egite on baten billa. Ibai-ondarrean oztopo egiten dite, arkoskoetan bezela, beren pekatu gaitz eta erio-tzekin. Mandoa iltzen duk, eta makil-ukaldiak bukatzen dituk; aiek ordea, uiñen marruan zeruko barka-eske ari dituk noiz arte ez dakitela...

Alako batean, lapurrak bezala eltzen dio ontzizaiari Urrik. —Ontzian ura! dio errukarriak. —Atxukilla or dago, erantzuten du lasai ontzizaiak. Asten da Urri ontzia txukatzen eriosuar...

Gau artan, Trinkelako zubian iratxoek dantzaz zebiltzan. Eupa mutil, ekin, Urri, aspertu bage! Beorak abokoa autsi nai dik izututa. —Zer dun, Zuri, zer dun? ildakoek ikaratzen al aute? esaten zion nagusiak, illeak lazturik. Gerogo ta illunago ageri zen ibaia. Ura irixten da atzeneko

oletara. —Nik ez dakit igaritan, ontzizai, esan du Urrik. Ontzia aterako da? —Ez, esaten dio ontzizaiak. Begien itxiriki batean pulunpatuko da. Baño ibai-ertzean lerroan dabiltzan itzal oriek, oinbeste ikaratzen auten oriek unama-muturra botako zigute, esan zuen, eta ontzia Rodano ibaiean pulunpatu zen.

Illunbetatik, murgilduen krisallu zurbil ikaratiatik, ibaiaren alden besteñoako argi-izpia sortu zen. Ta armiarma, eguzkia sortzean bere aritik zilintzaka bezala, ontzikoak ere iratxo ziren, eta argi-izpiari eltzen zioten, eta arin ziyozen batetik bestera. Urri ere, ura akalderaño duela, unama aldera esku estuak luzatzen ditu. Gau artan, Trinketallako zubian iratxoek dantza zuten.

VI SORGIÑA

*Bikendi zerraldo arkitzen dute
Crauko zabaldian.*

Argi-urratzean moko-meeak asten dire kantari. Lurra eguzkiaren begira dago, iintzez ta ozkirriz yantzirik. Olaxe, neska eder, apain ostuberrak, itxedoten dio «goazen usu» esan dion mutillari.

Crauen barna iru gizon doazi. San Chamas aberatsaren perian izandako iru abere-zain dire. Abereak saldu ta dirua, oi dutenez, mus-zorroan deramate, ta alai diardukite bidean. Alako batean, —Ixo lagunak! dio iruretan batek. Sasi-tartean zinkurin batzuk aditu-iduri ditiat aintzintxetik. —Yondone Martiñen ezkillla edo Malsana-koa, esan zuten besteak, edo iparrak eragiten dien ostoan otsa.

Ontan, añar-tartetik garbi entzun zuten miñoiua. Tink egin zuten. Biotz erdiragarri zen oiura.

—Yesus, ene! esan zuten irurek. Zerbait gertatzen duk emen. Eta ziñatuz, geldi geldi zuzendu ziren karraxi-tokirantza. Karraxiak gero ta bizigoak.

Luzaro bage, ikuskarririk negargarriena ikusi zuten. Belartartean eta arkosko gañean auspez zetzan Bikendi gizagajoa. Eskuñetara lurra gorriturik zedukan eta zumeak barreiatuak. Atorra zarpildurik, belarra odoldurik, eta bulartea zauriturik, mendi bakarrean, izarrak beste lagunik bage, an eman zizun gaua; ta goizeko argi zerbetak betazalak legundu zition, eta aren zaiñ illetan bizia berrituz, begiak idiki zition. Berela iru gizonak bideari utzi zioten, eta zegoan tokira yetxirik, beren soiñañañekoekin bide-oe bat egin eta besoetan artuz, Basaka bordara eraman zuten, bertanena baitzen.

Mistralek Provenzako olerkariet deia.

Ene gaztetango adiskide mami izandako Provenzako olerkariak! nere noizbaiteko kantak entzuten ari zaratenak! I, Romanil, erriko niga-

rrak eta neskatxen irriak eta udaleneko loreak kantuan laztantzen dakikana; i, oian eta ibaiertzetan ire biotz maiteminduarentzat itzala ta ozkirria arkitzen dukan Aubanel lerdena; i, ere lanekin Tollobrari Nostradamus izarlariak baño izen aundiago eman diokan Crosillat argia; baita i ere, Matietar Anselm, maats-aienpean goxo goxo eserita nexka lilluragarriei begira gogovernari egoten aizena; i, Paul maite, gizon gitxia; i, Tavan nekazaria, kantu arruntetan aitzur gañean dabillen kirkirra kantatzen dukana; i, Dumastar Adol, Duranzako ugoldeetan kantuarnasa artzen dukana; Prantziko izkuntzari gure eguerdikoeguzkiaren beroa ematen diokana; nere Mireio gaxoa koxkor ta lotsati zelarik, bere borda utzita mundu zabalerakoan Pariseraño eskutik eraman dukana; i, atzenik, Garcin, olerkari gorengoa, aize-suak gogoa eragiñez astintzen auna, Arlensgo Mariskal sutsuaren seme... zuek oro nere adiskide olerkariak, ni goiko galdorrera igo bitartean, eguras ezazute bidea zuen arnas zerutarrarekin.

—Egun on, Yaun Erraimun, esan zuten iru aberezainak, iritxi orduko. An beiko sasian arkitu

dugu gazte gizagajo au. Eun-txatar piñak billa itzazu, bulartean zauri aundia du ta. Arri-maiaren gañean ipiñi zuten Bikendi. Gertakari gaiztoaren otsera an etorri zen Mireio, lasterka ta arnas-estuka. Baratzatik zetorren, esku bat meakezurrean, saskia bete barazkirekin. Landako langille guziek ere ara ziren berela. Mireiok besok zerura zabalduki oiu erdiragarriz esan zuen: Yainkoaren Ama! ta saskia lurrera erori zitzaion. Bikendi! zer egin dizute? Ene Yainkoa! Nork odoldu zaitu?

Altxatzen dio poliki burua maiteari, ta luzaro begira, mutu, luryoa, oñazezarri egiñik bezala, malko larriz bularren muñaska bustitzen du. Bikendik igarri dio nexka maitearen eskuari, ta mintzo argalez diotsa: Erruki nitaz, Mireio, ta Yainkoari otoitz, oraintxe bearrean naun eta.

Ginga-edari onekin agoa ezatuko diat, esan zion yaun Erraimunek. —Bai, edan usu, esan zion Mireiok onek birbizten dik eta. Ta nexka erneak pototxiña artuta ezarri zion edari bizkorua, ta bitartean ele goxoz naigabea arinzen zion.

—Yainkoak gorde azanala olako zorigaitzetatik, eta ordain diñala axola ori, esan zion muti-

llak. Eta gero. Zauri au ola egin diñat: zume baten arrimoan nengonan, eta irrixt eginda, aiztoak biziki zauritu neun. Ez esan nai leoia bezala burukatu zenik. Aren itzak berenez zuten maite-ra yoera, euliak eztira bezala. Ire aurpegiko oña-zeak, esan zion geroxego, zauri onek baño tama-lagotzen neun.

Asitako saski ederra amaitu bage bearako din, eta eiotakoa urratu egin bearako. Nik, Mireio, ire maitez beterik ikusi nai niñan. Ez aldegin gero, Mireio, ire begi ezti oriek ikusi nai ditiñat; orietan bizitza edan gogo diñat, labur bederik. Ez diñat besterik eskatzen, Mireio. Ta besterik egin bae-zaken saskigille onengatik, an zedukenat beian aita zarra, urteak auldua, ta lanak akitua. Mireio naibagetua, ari zen gaztearen zauria garbitzen. Bitartean beste mutil bat txatarrak antolatzen ari zen, eta besteak estu ta larri zoazin Alpinara sendabelar eske. Ontan Yoana Marik oiur: Aitzulora, Maitagarriak, eramazute aitzulora! Zauria gaiztoago ta sorgiña sendagilleago.

Bikendi Maitagarrien aitzulora deramate.

Iritzi oni zegozkiola, lau gizonak besoetan artuz Maitagarrien aitzulorantza yo zuten, iper-nu-ibarrera. Bausko arkaitz-esian arrabioa maiz dabillen tokian, sapelaitza egatzen den tokian izintza-txaparrez estalita dago zuloa. Zulo aren ondarrean, Basiliketako ezkillak Ama Birjiñaren ederrean Agur Mari otsegiten asi zirenetik, an daude Maitagarriak izkutaturik, aitzina munduan bizi, ta egundaño eguzkirik ikusi gabe.

Ispiritu mei, beste mundukoak, gaiaren eta itxuraren bitartekoak an zebiltzan arat-onat, argilarraiñez inguraturik. Yainkoak erdi-legortar egin zituen, eta eme-gogo ta ederra eman zien, landaen arima ikusgarri izan zitezen, eta lenengo gizon basatiak ema zitzaten.

Giza-semeak, ordea, ain eder ziran, aiengana Maitagarriak maiteberotu baitziren; eta giza ilkorrak zerura yaso bearrean, gure griña eroak yarrai zituten, eta naiago izan zuten gure illunbetan bizi, txori lilluratuak bezala beren goiko bizitokietatik erorki.

Bikendi zeramatenak aitzuloaren sarrera estu ta latzean utzi zuten, bere giza irrixtan yetxi

zedin. Bidexka illunetik Mayi bakarra oldartu zen, Yainkoari bere burua goraintziz. Zulo barnean arpe aundi ta otz bat arkitu zuten, eta erdian Taven sorgiña, kuzkurtuta, lo-odeiez inguraturik, eta eskuan belar-izpi bat zuela, so ta so, betillun antzean.

—Ainbeste bear egiten duzun belar-izpitxo! zion sorgiñak. Yendeek deabru-gari izena ematen dizute, baño zu Yainkoaren aztarna zara.

Mireiok artan begiratzen dio, ta bere agertuaren zergatikoa azaldu baño len, sorgiñak burua yaso bage darantzuio: banekiñan! Eta gero, mintzo ikaratz berriro belar-izpiari diotsa: larre-lore gaxoa, urte guzian zure orri ta azia marraskatzen dute, ta zu gaxo ori, zanpatuago ta ugariago, Ipar Egoen edergarri zara.

Emen Tavenek tink egin zuen. Barekuillo-azal batean argi aul batek aitzuloko orma zerbelak gorrixtatzen zituen. Makilla kakodunean belatxinga zegoen kuzkur, ta aren ondoan ollo zuri bat, eta arkaitzeti zilintzan bae bat.

—Edozein zarala, esan zuen sorgiñak arro arro egiñik eta eroturik bezala; niri zer? Sinismena begiak itsu doa; maitasunak ere lotaillua

derama, ta yoan bear duten ildotik ez dire okertzen. Valabregako saskigille, siñistea baduk? —Badut, erantzuten dio saskigilleak. —Ator nire oin-urratsetatik, dio sorgiñak. Eta isatsez saiet sai eragiñez igesi doan sorgiña bezala, itzaltzen da aitzuloaren baztar batetik. Aizaro (illunbe) bildurgarrietan, sorgiñaren aurretik olloaren karkak entzuten zen eta belatxingarren ega-ukaldia.

—Arin yetxi! Urrillo-belarra gerriratzeko garaia da, dio sorgiñak, eta bi gazteak, bildurrez bata besteari elduta ixil egiten dute atsoaren esana, ta badoazi arkaitzez arkaitz, batzutan arrastaka, beste batzutan irrixtaka. Ipernuko zulo artan, lengo arpea baño aundiagoa billatu zuten. An oiugin zuen Tavenek. —Nostradamusen landare saindua, urrezko abarra, San Joseren makilla. Moiseren zigor arrigarria!... Ta itz okesanez, belaunikatu zen, eskuan zeramatzin belar-izpiak errosarioz eo zituen. Gero, zutituta berriz asi zen: urrillo-belarra gerriratzeko garaia da. Artzen ditu arkaitz-irrikitutik iru aldaska, bere burua buruntzaten du aiekin, eta urrena nexka-mutillena.

—Aurrera berriz! oiugiten du. Ta gerogo ta arroago, zoko itzaletan ondatzen da. Aurretik ipurtargi talde bat doakio argi egiten. Gazteak, bide eder guzik badu bere nekea. Izazue biotz! Larunbateko izukeriak igaro bear ditugu. Au esan orduko, aize zakar batek aurpegia astintzen dio, ta atertzen arnasa.

—Belaunika gaitezen! Iratxoen garaipena da au!

Aitzuloko agerkundeak.

Lurpe artan, kazkabar-erauntsia bezala doa iratxo-taldea, karraxika ta zurrunbilloan. Igaro bitartean, iru lagunek izerdi otzak artutik, beko-kietan iratxoen, beste mundukoen, ego-ukaldi izoztua senti dute aizemaka ta iñarroska.

—Zoazte aratago aizaroa astintzera! esan zien Tavenek. Ots, artalde buruandia! gari ona iltzen dukana! oa toki gisakoagora. Bai nekagarrri ta arrandi aundia! Lurrean egin dezakegun ongia egiteko olako yendetxoaren bearra izaki! Izan ere, sendagilleak askotan berez txarra den

gauzetik sendagaia ateratzen duen bezala, guk sorgiñok ere geren sorginkeriekin gaitzari ona eragiten diogu. Gure begiarentzat ez da deus izkukurik. Yende abarrak arri bat edo zartaillu bat, gaiz bat, edo kako bat dakusan tokian, guk gauz orien barrenean indar bizi bat dakusagu irakiten ari den ardo berria antzo. Zubana aus ezazu, ta edariak gañez egiñen gal gal. Salomonen giltza atera ezazu gauza bazara. Itzegiozu arriari bere izkuntzan, eta mendiak zure oiutara ibarrera yetxiko dire.

Atsoak au esan bitartean, beirago zoazin artzuloan. Ontan mintzo irrigille bat entzun zen txori mutur-gorri baten antzekoa. —Kaixo! Kaixo, atxo Taven! eta kantari asi zen:

«Eragiozu arilkaiari, izoba Yoana, eragiozu, ta arildu ezazu gau ta egun artille aria...» Zoroak artillea iruin uste ta belarra iruin! Au esanda, mintzo gaixtoa irri ta irri zebillen aizeetan, uga-tza eragotzi dioten xaldiko irrintzilaria antzo.

—Noren mintzoa da ori, esan zuen Mireiok ikaraz. Nor ari da orrela irriz eta kantari?

—Ots, ots, yarrai zuen ume-mintzo ark irri-karkaraz. Nor da onako nexka eder au? Utzazu

aurpegi-eder, zapikoa altxa dezaizudan; ikus or
barrenean urrak edo puni-sagarrak ote derama-
tzizun. Ikaraz nexka karraxika astera zoaien,
baño Tavenek diotsa: ixo! ez ikaratu, iratxo au
bitxikeri utsetan dabilla; arako buruarin gogo-
aldartetsu deritzoen ua da. Gogaldi onak ematen
dionean sukaldea isastuko du; zure olloai iru
alako erronaraziko die, sua piztuko du, ta
burruntzia irauliko. Aldarteak artzen badu ordea,
gaixoa zu! ditekenik naasitxoena da-ta. Suari
aizematen ari bazara, piztea eragotziko dizu;
eltzea egosten badaukazu, laurden bat gatz
botako dio; etzitera baldin bazoaz, gelako argia
itzaliko dizu, ta illunbetan utziko zaitu. Yondone
Tropimera bezperetara yoan nai baduzu, zure
igandeetako yantzi apaiña ondatuko dizu.

—Tira, tira, gorotz-aitzur zarra! erantzun
zuen gogo aldartetsuak, iltze oriek ongi zapa
itzazu... Ez al duzu txirrika koipatu-bagearen
negarra entzuten? Bai, oliaran txidortua, bai,
gabez nexkak lo daudenean, nik oe-yantzia
emeki emeki tiratzen diet, eta aiek ikara lauorri-
tan kuzkurtu egiten dire, ta otoitz egiten dute.

Begira nagokie nola bularrak pilpil egiten dien, eta irri asko ta asko eragiten didate.

Au esanik eta irri-karkara zeriola itzali zen gogo aldartetsua. Aitzuloko lillurakeriak atertu ziren, eta guztia ixilik gelditu zen. Sapaieko ituzur-otsa, aldiz aldiz, lur gardenera erortzen zen.

Ontan, ordea, zulo illun barrenean irudi zuri bat zegoen arkaitzean eserita. Zutitu zen astiro, eskua meakezurrean, eta Bikendi zutoina bezain zurrun gelditu zen ikaraz. Mireiok berriz, aurrean leze bat ikusi balu, bildurrez bere burua botako zuen.

—Zer nai duk zorarazle? esan zion iratxoari sorgiñak. Zergatik darabillak arat-onat burua, lertxunaren adaburua bezala? Ta urrena, ezurretan erioa zedukan bikoteari esan zion: lagunak, ez al duzute ezagutzen ikuzlea? Ez al duzute iñoiz ikusi Vantur gañean, an baitu bere aulkia? Beitik begira, ta laño zuria dirudi, baño ikusi orduko, artaldea bil ezazute, artzaiak, eta zoazte bordara, zorigaizto ikusleak bere albora bilduko baititu odei zoroak. Eta lixubarako naikoak ditue-nean, beso-uts yartzen da, ta bizi bizi astintzen ditu. Ta gero, biurrituz, odeiei ugolde izugarriak

ateratzen ditie, ta orduan ateratzen da tximista, ta itsaso latz aserrean itsas-gizonak ontzia Ama Birjiñari goraintzi oi diote, ta itzaiak idiak zirika deramatzi ikullura.

Ontan, zalaparta izugarrik itza berriro eragozten dio. Bere gisako orroa zen; deabruek bakarrik uler dizaketen marru ta kisketots eta pio pio, ta itz-erdiak ziren.

Txin, txin, pun, pun! Nork yotzen ditu orrela pertz aundi amesgarriak? Oñaze-oiuak, irri-kar-karak, erditzen ari diren andreen indar-arnaskak, iskanbilla ta karraxi izugarriak.

—Ekatzue eskua esan zien Tavenek eta begira buruetako buruntza ori erori! Artan bertan sendi zuten lurrean laisterka zoaien iize-taldea kurruxkeka ta purrusteka txerritalde naasia iduri: batak txixtu, besteak saunka, besteak kurruxka, besteak irrintzi... Bereolaxe, lurra elur-maindirepean lo dagonean, gau aizetsu ta argian eiztariek sua pitztuz sasitarteetatik lastatxoriak eta ontzak eraikitzen ditutenean, ikaraturik esnatzen dire ta zoraturik sareetara doazi sute-gi-auspo antzeko otsa ateraz. Sorgiñak oiugin zuen:

—Ut, bizi gaiztoko txaixkurrak, utikan enegandik! Eta bere baez talde zikiñ ua yoka, argorri koloreko pirrillak, iduriak, eta arrasto argiak ematen zituen aizaroetan.

Kuzkurtu zaitezte zuloetan, gaiztagiñak, nork zurrunbiltzen zaitue orrela? Ez al duzue senti Allpinetan eguzki urrea dagola oraindik, zuei aragiek ziztatzen ditizuen akullo orietan? Arkaitz muturretan tinka zaitezte. Saguxarrentzat argiegi zegok oraindik.

Talde zaratatsua atera zen noranai, ta apurapurka zalaparta ixildu egin zen.

—Yakizue, esan zien Tavenek bi gazteeri, au iratxoen etxea dela, egunak goizeko intza lur etze orixtetara yario dueño. Itzalak bere erio-maindirea zabaltzen duenetik. Atso aserreak Otsaillari ostiko egiten dion arteño, etzoaztela, emakume berandutarrak, eliz utsera, iru giltzebiur emanera alki gañean bekokia duzutela loak artzera. Illunbetan ikusiko ziñukete lurreko losak yeikitzen direla, ta aldareko argiak berenez pizten direla, ta illak bat-banaka il-yantzietan bildurik yeiki ta belaunikatzen direla, ta geroxago erio-antzeko apaiza zurbil bat atera ta meza

eman ta Ebangelioa kantatzen, eta ezkillak bere-
nez iraultzen, nigar-otsa dariela. Galdegiezue,
galde, neguan ezkildorretik olio-ontzia xurgatze-
ra Elizara yeisten diren ontzeri, galde ni gezurre-
tan ari naizenentz, eta elizkizun aietako izaki bizi
bakarra kalizean ardoa ixurtzen duen apeza ote
denentz. Atso aserreak Otsaillari ostiko egiten
dionean, zeren artaldeekin zazpi urtez lilluraturik
bere artan gelditu nai ez baduzute zangoak
zurrun eta illeak bildurrez lazturik, bil ezazue
goiz artaldea; sar zaitetze goiz artegietan. Maita-
garrien Aitzuloak bere taldea askatu du ta.

«Ta itzartu diren guziek, lauoinka edo egaldi
betean Craura aldatzen dire, ta Varigulako
bidexka biurretan barna ta Fanfarigulako sorgi-
ñen erditik yostaka doaz ezkai-belarrean barna,
urre-katilluan edateko. Ikus nola dantzatzen
diren zumeldiek! Arako dardaraz datorren ua,
Gripe zaitzen duen Garamauda da. Utikan! gaiz-
to zikin deabrua! Gripe, zoaz sarraskia yatera, ta
azkazalez sabela urra iozu. Alare! Aldegiten
dute. Ez ordea, an daude oraino nazkagarri aiek!
Arako an, zornabelarretan iges, gau-lapurra
bezala lurrean kuzkur doana, Bambarocha

mutur-luzea da. Atzapar luzeekin aur negarti larrugorritzkoak artzen ditu, ta bere adarretan eramaten. Ez al duzute an Amesgaitza ikusten? Au yeisten da ixil kei-zulotik lo dagoenaren bular izerditsura, ta ixilik eta kuzkur, dorreak bezala zanpatzen du, ta gogoan amets lazgarriak eta iduripen oñazetsuak sartzen ditio. Entzuten al duzue atepak erroetatik ateratze otsa? Zabaldietan laisterka dabiltzen Escalineheak dire. An doazi Marman eta Barban, zelaiean laño itsua eraikiz. Cevennetatik eundaka datoz arrabiosabela duten erensugeak, eta bidean landetxeetako egatzak erauzten ditue. Zer zarata! Ilargi, Ilargi, zerk estutzen aun? Zerk eraixten aun ain gorri ta zabal Baustarren gañera? Begira zakur saunkaritik, Ilargi kaskariña! Atzematen bai aun, irentsiko aun taloa bezela; Cambalko zakurra baita. Baño, zergati kulunkatzen dire zumeldiek eta ikaratzen garoak? Santelmoren suen galda okerrak zurrunbilloan datoz, eta Crau legorrear ostiko-otsa da, txilintx-otsa. Bai! Castillongo Baroiaren ukaldi aserrea da...

Ontan, zurrungaka, arnaska, ito-bearrez, ixildu egin zen Bausko sorgiña. Baño luzaro bage

berriz eraso zien gazteai: «Begi belarriek izkuta itzazue zeron soñ-egalarekin, arkume beltzak atosten gaitu-ta». —Or beeka ari den orrek? esan zuen Bikendik. Itxi belarriek eta erne! esan zuen sorgiñak. Zorigaiztokoa emen oztopatzen dena! Arkume beltzaren igarotzea galgarriagoa da Sambucarena baño. Marraka samurra du entzun duzutenez; ta aren bidez erakartzen ditu kristau zoroak. Entzuten dioten zoroentzat badu Eroderen erregetza ta Yudasen urrea, ta erakusten die mairuek non izkutatua duten urrezko Auntza. Bizi-aldian yeizten dute nai adiña urre-auntz ori, baño il-agiñean, azken-zurrunketan eska ditzatela Elizakoak, eta etsai beltzak saietsetan zartako-erauntsi aundiz erantzuten die... Ta alare, ari dugun mende gaizto usteldu ontan, zenbat dire diru-gosek eta okerkerik ozkatuak! Zenbat, arkume orren amua iresten dutenak eta urre-auntzari kedatsa erretzen diotenak!

Iru aldiz karaka egin zuen zulo illunean olloak eta atsoak esan zien gazteeri: «Amairugarren arpera eldu gara».

Mireio eta saskigilleak keibide aundi baten pean sei katu beltz ikusi zituten sutondoan. Aien

tartean burnizko pertz bat laratzetik zintzilika. Erensuge antzeko illintiak agoa bete galda urdiña botatzen zuten pertzaren azpian. —Aia eros-teko al duzu egur ori, amona? esan zion Biken-dik. —Bai, seme, erantzun zion sorgiñak. Beste egur baño sugillegorik duk au, basamaatsaren abarrak ditut eta. —Maatsarenak maatsarenak? esan zuen Bikendik. Zuk esanda siñetsi egin bear; baño aski dugu, au ez da irri egiteko ta...

Zeuden arpe erdian porpid-arrizko mai aundi bat zegoen. Inguruan millaka abetxo zuri garden zeduzkan tellatuetako izotz-burruntzi antzo, lerro lerro arte-zaiñetan barna sartzen zirela, ta muñopean zeartzuloak egiñik: guzia ango Maitagarrien esku-lana. Irudi ta zeuden atalarri bikañak, argi zurbil lañoan bilduak; an ageri ziren naaste zoragarrian Elizak, yauregiak, abe-bitarteak, naas-maasak, ez Korintok ez Babilonik iñoiz egin etzitzenak, eta Maitagarri baten ezpaiñ-aizez itzali zitezkenak. An dabilta arat onat Maitagarriak illunbetan argi izpi antzo. Noiz-bait lilluratu zituten zalldun aiekin. Kartuxa-etxe paketsu artako ibilguetan maite-bizitza egiten

dirautenekin. Baño, ixo! pake, itzalpean dauden bikote maitaleentzat!

Sorgin Tavenek Bikendi sendatzen du.

Sorgiñ atsoak batzutan beso gorriok zerura yaso, ta besteetan lurrera yalki. Porpid-arrizko mai-gañean, itzik atera bage, Yondone Luenti martiria bezala an zegoen zabal zabal Bikendi bularreko zauriarekin. Sorgiña gero ta arroago zegoen igar-arnasa zeriola, ta zintzurra igarri-aizez betea. Oi baño lluzeago zirudin. Berbertan apar-burruntzallia sartzen du irakiten eta gañez-ka ari zen tupiñean. Aren inguruan zeuden katuak esian. Sorgiñak ezker agurgarriarekin ateratzen du burruntzalia, ta galdosten dio bularra naastekari arekin, eta begiek zaurira zorroz-tuki, egiten ditu bere araoak eta biraoak eta gero mintzo apalez zion: «Kristo yaio da; Kristo il da; Kristo biztu da! Kristo biztuko da!...».

Basoetako katamotz nagusiak iize izuaren erraiak urratzen ditun bezala, sorgiñak ziñatzen du iru aldiz zauria. Ta agotik yaurtitzen ditu itz

laisterrak eta otsegiten du etorkizunaren ate lañotsuan. —Bai biztuko da. Siñesten dut, Muño gañetik, larren eta arkoskoen tartetik badakusat urruti igotzen eta aurpegitik odol xorta larriak darizkio. Ta arkozko ta sasitartetik, bakar baka- rrik igotzen da gora, ta gurutzeak makurrarazten du. Non du Beronike aurpegia txukatzeke? Non da Kirenaiko gizon ua, gurutzepean erori dadinean zutitzen laguntzeko? Beiñola illea urraturik nigarrez yarrai zioten Mari aiek non dire? Ene! Iñor ez dago. Ta an beian, itzal eta auts artean beartsuak eta eukitsuak begira diotsoe: Nora doa, zura bizkarrean, nora doa atsedean bage muñoa gora? Kainen odolekoak, gogo lizunak, ez dute errukirik gurutzea deramanarentzat. Ez zakur arrikatuarentzat baño geiago. Ai, yuduen aria! adukan eskua aserrez ozkatzen duk, eta kuzkur musu ematen diok erraiak ateratzen ditianari ta ukaldika astintzen aunari! Nai al duk? Ots bada, Otzikara sartuko zaik ezur-muiñetarako, ta arria arrauts biurtuko duk. Ta gosetean, galburuaren eta galmintzaren ikatz minduak ortzak ikaratu ditik. Zenbat astamakil! Zenbat ezpata! Gorputz-il pillo aundien gañetik sakane-

tako ura yalkitzen duk. Ema itzek ugiñak, itsaso zakar! Ai, Petiriren aspaldiko ontzia ezpal egin duk arkaitzetan!... Baño arrantzale maisuak garaitu ditik ugiñ aserreak. Ontzi berri eder batean zetorrek Rodanon gora, ta Yainkoaren gurutzea endaitzean dula, kalunkatzen duk uhai-tzean. Yainkoaren ostilika! Erruki neurrigabea, betikoa, gorengoa! Lur berri dakusat eta eguzki alai, ta olio-biltzailleak, zugatzeko igalien pean sorgin-dantzan ari dire, ta igitariak garagar xorta gañean upelak atsekiro xurgatzen. Eta Yainkoa ain aundia delako, bere Elizean yauresten dute.

Au esanda Bausko sorgiñak beatzez bide bat erakusten die bi gazteeri, ta aren mugan argizpi aul bat dago. Asten dire leiaka mataillak gorririk, uzkurka, burua makurka. Corda aitzuloaren azpiko bidetik bikote ederra ateratzen da noizbait, eguzki argia atsartzera, Mendi-aundiko praileetxea, bere ondakiñ zarrekin arkaitzak estaltzen dituna, lo zorrotik esnatu ta bezala ageri zaie. Besarkatzen dute ordun elkar, eta zumadia barna doazi.

VII

GURASOAK

*Bikendik aitari, Mireio eska dezala
adierazten dio.— Aitak uka.*

—Bai, aita, bai zoraturik nauka, ez naiz axekan ari, esan zion Bikendik aitari begi lausoak arengana zorroztuki. Morroiak, berriz, ingurueta-ko zumartxuri garaiak makotzen zitunak, gaztearen mintzoari urubika laguntzen zien.

Intxaur-oskol antzeko txabola-aurrean zegon jaun Anbrusi, enbor gañean eserrita. Antxe, aizearen babesean zumeak zuritzen ari zen atal-aurrean. Artean Bikendi, atalaurrean uzkur, zume zuriak yaso, esku bizkorrez biurritu, ta saskia eotzen asi.

Rodano, aizeak eragiñak, itsasorantza bultzatzten zituen bere ugiñ arreak, itoka, beitalde amildua bezala, Txabola ondoan zumadi aren itzal eta babesean, ibaietik urrun ur-aintzira urdin bat zegon, aizeak naasi bagea.

Itsas-beleak ibai-ertzera zetozen saratsen azal minkatza mokokatzera, ta beirago, ur gardenaren laguntzaz, an ageri ziren ondar urdiñ aietan arrantzan urtxakurrek arrai eder zillarrezkoak atzematen.

Beti aize-kulunkan, gorribeltzak esegi zituten beren ohakoak (kabiak) ibaiaren ertzez ertz; eta ohako txuriek, zumartxuria garatzen denean txoriak biltzen duen zaborrez egindako yantzi zuri aiek, seskaetan eta altza-abarretan dardaratzten ziren.

Nexka alai, opilla baño gorrigo bat an ari zen piku-gañean sare busti aundi bat zabaltzen. Ibai-ertzeko beleak eta zumadiko gorribeltzak ua ikusita etziren izutzen zume kulunkariak ikusita baño geiago.

Nexka eder ua yaun Anbrusiren alaba Biken-diñe zen, baxaran-begi, bular-serail, belarri zulagabea, Rodano maiteak zirtatzen duen kaparroi-lore antzekoa.

Yaun Anbrusi agurgarriak, gerrirañoko bizar zuridunak erantzun zion semeari: naasi ta burubage abil, mingañaren yabe ez aiz ta. —Astoak buru-lokia autsita igesegiteko larre ederra bear

du, erantzun zion gazteak. Baño zertako berriketan yarduki? Ondo dakizu nexkak zer balio dun. Arlesa yoanen balitza, orren adiñeko neskak oro nigarrez izkutatuko lirake, orrek marka urratu baitu. Zer erantzunen zenioke semeari «maite aut» esan didala yakitean?

—Aberatsa ta beartsua, erantzunen ditek, zoroa, esan zion agureak. Gazteak ordea: aita, zoazi Valabregatik Basaka-bordara, ta arin yalki iezu aren gurasoeri; gizonak ona bear dula ta ez aberatsa; nik badakidala lurra saratzen, maastia iñausten, arriguneak landartzen: aien uztarriak, nik eraginda, len alako bi egiñen dutela; gurasoeri lotsa dietala; gure biotzak bereizten baditute, betiko ixten dituela, ta biok beste alderdi bage, eortzi eginen gaitutela.

—Gizagajoa, esan zun yaun Anbrusik, gazte ta eskarmentu bagea aiz; ez dakik ollo zuriaren arraultza eskatzen ari aizela. Torru-txoria adaxkan bezala daukak ori; atzematea uke atsegiñik aundiena, ta ereganatzen egiñalak egiñen dituk talo gozoaren bidez, eta zinkurin egiñen duk eriotzeraño; torru-txoria ez duk ordea ire eskue-tarako, beartsua aizelako.

—Beartsu izatea izurriren bat al da? esan zun Bikendik burua yoka. Ta au onesten dun yauna zuzena al da? Bidezko al da nire bizian maite dudanena niri kentzea? Zergatik gara beartsu? Zergatik maasti ugaritik batzuk igali guzia artzen, besteek ordea ondar-mondar txigorrak?

Yaun Anbrusik eskuak yasoz erantzun zun: ekiok, mutil, zumea eo ezak, eta ken burrutik olakokeriak. Noiz ikusi duk xorta, igitariaren buruzki? Arrak eta sugeak Yainkoari arao egin al zezaiokete: «aita gaizto aiz, izar egin ez naukalako?» Idiak ere bai al dik nigar-bide Yainkoak itzai egin ez zulako ta itzaiak alea-bitartean, berak agotza yanbear dulako? Ez olakorik, seme. Bakoitzak bere bideari kuzkur zekiok, neke edo atsegin. Eskuko beatzak berdiñak al dituk? Yainkoak musker egin bai au, zirrikuan edan ezak eguzki-izpia, ta eskerrak emaizkiok.

—Ez al dizut esan ordea maite dudala? arreba baño, Yainkoa baño geiago? Bear dut, aita, bear dut, ua gabe illa nintzake ta... Au esanda, burutapen nekagarria astandu nai balu bezala, laisterrari ekin zion ibai-ertzez ertz, bere oñazea arnastuki.

*Bikendiñek Txilibistroren eta
Adelardaren gertaera yalkitzen du.*

Artan, Bikendiren arreba Bikendiñe nigarrez ondoratu zitzaion aitari: —Aita, anaiak etsi baño len, entzuidazu. Ni neskame egon-landetxean au bezalako mutil bat zen, maiteak zoratua. Etxeko alaba Adelardak zeukan lilluraturik eta mutillak izena Txilibixtro. Lanean apustuka aritzen zen, maiteak zirikatzen zulako. Lanerakoa zen, zuurra, goiztarra, eskurakoia. Nagusiek ez usmatzen ere ta, loa lasaia zuten. Goiz batez, ordea, Adelardaren amak entzun zun, Txilibistro izkutuka maite-izketan ari zitzaiola nexkari, ta bazkaltze-koan, langilleak maiera zirenean, nagusiaren begiak sutu ziren. Zurigaldua, esan zion Txilibistori: to saria ta aldegik! Mutil gizagaxoa yoan zen. Gu elkarri begira gelditu giñan ikaraturik, eta ua bialdu izanaz atsekabetuta.

Iru astez arat onat ikusi ginun labakietan borda-inguruan, illun eta margul, zarpil eta aurpegi-murritz. Batzutan lurrean etzan, bestetan

eroa bezala landan barna iges; gabez ulubika andu tartean, artza bezala, Adelardaka. Egun batez agoztegiak su artu lau aldeetatik eta biamon goizean sokak ito bat atera osiñetik.

*Yaun Anbrusi Basaka-bordara.—
Yaun Erraimunen nekazaritza.*

Yaun Anbrusi yeiki zen marmar. —Semea txiki denean naigabea txiki, aundi denean naigabea aundi. Ta berela etxolaren goitegira igo zen berak noizbait egindako zango-zorroak berak iltzatutako oskiak eta txano gorria artu ta Craura bidea artu zun.

Uztaro duzu ordun. Izan ere Doniane egunau-
rrea zen eta estarteetan beira igitari beltz sailak zetozen autsez beterik, igitara. Binaka zoazin, igitaiak ugalean, bakoitzak bere igitontzietan, eta biko bakoitzak bala-lotzaile bat. Txistu da danboliña aurretik, arratza txistilluz apaindurik eta atzetik gurdi batzutan, bideak akiturik zeuden zarrak. Ibil bitartean pozik zekusaten galmotzen buruak aizeak eraginda biguinkiro klunka-

tzen. —Bai gari ederrak, zioten segariak, eta ugariak! Aurten igite atsegiña da. Aizeak makurtzen du, ta berela yeikitzen da.

Yaun Anbrusik atzi zitun igitariak eta aiekin zoaien. —Provenzako gari guziek orren elduak ote dire aitona? galdegin zion gazte batek. —Gari gorria atzera duzu oraino, erantzun zion saskigilleak; baño aize onek balirau, igitaiak bear egiñen digute. Eguberriko iru argizagiari begiratu zenien? Izar antza zuten. Onezko zantzua duk ori, ta alea badela. Yainkoak emana. —Ala liotsa Yainkoari, ta aletegia bete dezaizula, erantzun zioten. Ola ziarduten adiskide sarastian barna igitariak saskigillearekin; ta ain zuzen ere, igitariak Basaka-bordara zoazin.

Yaun Erraimun, gariak zer zioten ikustera aterea zen, galburuek yalki oi ditun ipar gorriaren bildur. Ta gari-zabaldi oria alderen alde zera-billela, gariak mar mar zesaioten: nagusi, garaia da, ikus nola aizeak makurtzen eta egosten eta txigortzen gaitun. Zoazi seska-erikoen billa, igitarako. Beste batzuk zioten: txinurriak eraso digute, ta alea gogortuxe orduko, galtzen gaitue. Ez al datoz oraino igitaiak?

Yaun Erraimunek begira zun igitariiek zetozen bide aldera, ta zugatz artean somatu zun igitari taldea. Ikusi zitun tokira ziraneke, atera zituten igitaiak piku-magiatik eta aizean eragin zieten, eguzkitara dirdaia zeritelarik, eta buru gañetik biraka, agur eta ongi etorri egiteko. Yaun Erraimunek ba-zentzutela iduri zitzaioneko esan zien ozenki: «Ongi etorri guziok, osasunarekin, garai onean, Yainkoak bialdu zaitue-ta». Andik berela emakume bala-lotzaileek inguratu zuten agurka. —Iguzu eskua, zioten. Duzula betiko zorion. Balak ugari aterako ote? Gurutze deuna! Laraiña beteko da, egon lasai. —Ez begira itxurari, adiskideak, erantzun zien yaun Erraimunek. Gaitzerutik igaro denean ikusiko, asko denentz. Ikusi izan dugu, gaitzeru-erriko ogai gaitzeru bazirela uste ta iru besterik atera ez. Baño Yainkoak ematen dunarekin erara egon bear!

Ta mintza bitartean eskua par-irriz estutzen zien. Gero yaun Anbrusirekin izketan asi zen. Basaka-bordarako zugaztira zireneco, oiuka asi zen: Mireio! gaitu itzan usu txikuriak eta ardoa atera ezan!

Neskak magaletik atera zitun aperi-gaiak eta maiean ustu. Yaun Erraimun eseri zen aurrenik mai buruko, ta aren atzetik besteak, eta berela asi ziren ogiazalari, ozkaka, ta aker-bizarraren erroa atsegiñez yaten. Maia olo-orria bezain garbi zegon, eta begien atsegarri zen. Gañean gazta usaiduna, ta ao-sapaia erretzen dun baratzuria, ta matxarroan erretako berengentak, eta piper amorratuak eta tipula beratzak... oparo.

Lanean bezain maiean nagusi, Yaun Erraimun ari zen, noizipein, ondoan zedukan eztañu-txarrotik igitarien edontziak betetzen. Ots, edazute berriz, zion. Landa arrizua dagonean aobizarra busti ta aurrera...

—Busti dezagun bada, zioten, eta batak besteren atzetik edontzia aurreratzen zioten Yaun Erraimuni, ardo gorritz bete zezan, eta andik aien eztarri legorretara igarotzen zen.

—Yanarekin indarra artu duzutenean, zoazte basora, oitura zarra denez, igitaldia asteko, ta bakoitzak arba-sorta bat bil beza, esan zien bordako nagusiak. Txondorra gai dagonean, gañerakoa eginen diagu. Gaur Doniane egunaurrea baita, enetxoak, Doniane igitariaren eguna. Yain-

koaren adiskidearen eguna. Au agintzen die nagusiak.

Ondasunak begiratzeko ta laneri yarraitzeko, ta lur izerdituetan galburu oria yalkiarazteko, etzen ua bezalako mutillik. Gartxu ta etsi bizi zen. Urteak eta lanak kakotuxe zuten, bai; alere eultzi-aroan gazteak ikusi izan zuten txairo ta alai eskutxabalean sei-neurriko bat gari eramaten.

Ilargiaren eskutarteak ezagutzen zun, noiz onerako ta noiz gaiztorako; zugutzen izardia noiz leiarazten noiz geldiarazten duen. Eta inguruan larrainttoa daukanean edo zurbil edo zuri edo gorrixta dagonean, bazekin egueldien zantzua artzen eta alda-alldiak ezagutzen.

Txoriek, ogi lizunduak, Beiaren egun zoritxarrekoak, dagonilleko lañoak, eguzki-urbillak, Yondone Kleren egun-argitzeak, naiz berrogai-aldi ezoak naiz legor ikaragarriak edo izotzaldiak edo uzta ugariak zekazten.

Alorrean, girotan lan egiten denean, ikusirik dauzkat askotan sei alimali gizen uztarrian. Ikuskarria zen. Lur txeatua golde-aurretik ideki egiten zen ixil eta geldi eguzki-izpieri bide egiñik,

eta sei mando eder bizkorrak ildoa urratzen zuten atertu bage, landu-bearra bai bide zekiten; ain bizkor ari ziren nagiak artu bage ta tarrapa-tan ari bage, burua makur eta lepoa kako. Neka-zari trebeak ildaskatik begirik kendu bage, kantari yarraitzen zien atsedean ederrean, goldea okertu etzedin. An zen yaun Erraimunen nekazaritza. An bizi zen lana banatuz, Erregea bere errian bezala.

Burua zerura ta ziñatuz, Yainkoari eskerrak eman zition, eta igitari-taldea pozik yoan zen su alaia gaitzera. Batzuk iraur-belar eske, besteak ler beltzen abarrak ebaki ta txikitzera yoan ziren. Bi agureak gelditu ziren maiean. Yaun Anbrusi asi zen izketan eta yaun Erraimuni esan zion: Onu baten billa nator, Erraimun. Oztopo bat gertatu zait eta luzaro bage nigar egin bearra naiz, ez baitakit nola askatu atsakabearen korapilloa. Seme bat dut, oraiñ arte beti ongi yokatua ta zuurra. Besterik esatea gezurra litzake; baño arri guzik lazguneak baditu, ta arkumeak ere dardarak ditute, ta ugiñik gaiztoena lo dagoena da. Alegia, amesgille zoro ari buruak eman dio, ikusi dun neska bat bear dula; nekazari aberatsen

alaba. Nai ta nai ez bear omen du, ero ark, eta aren etsialdi gaitzak eta maitasun beroak bildur-tzen nau. Alperrik esan, mundu ontan ondasu-nak edertu ta bearrak itsustu egiten duela. Zoaz-kie beintzat gurasoeri; maite dudala, erantzun dit. Gizonak ona bear dula ta ez aberatsa; nik badakidala lurra saratzen, maastiak iñausten, arriguneak landartzen; aien uztarriek, nik era-ginda, len alako bi lan eginen dutela; gurasoeri lotsa dietela; gure biotzak betiko bereizten badi-tute, betiko ixten ditutela, ta biok, beste alderdi bage, eortzi eginen gaitutela. Or ikus, yaun Errai-mun. Esaidazu nire zarpillokin nexka eskatu bear dizudan, edo semea iltzeari etsi bear diodan.

—*Bi gurasoen aserrea.*

—Ut, esan zuen Erraimunek, etzaiozula olako aizeri zapia zabal. Ez dire illen ez bat eta bestea: ara nik esan. Ez bildur izan, Anbrusi. Nik zure orde z enuke oinbeste ibilli alper egiñen, adiski-de; aitzitik mutillari esanen nioke: Geldi, gero,

mutil. Ire burukeriek ekaitza sortzen badute, ere bearra erakutsiko diat makill-ukaldiz.

Anbrusik yardetsi zion: astoa arrantzaka asten denean, ez belarrik eman; artu ordea ataga ta yo gogor. Erraimunek yardetsi zion: Aita aita da, ta aren gogoia bete bear da. Artaldeak bere gogara deraman artzaia, goiz edo berandu otsoaren ortzetan da. Gure egunetan semek aitaren aurrean txintik atera balu! Yainkoak barka! illen zian, naski. Ordun baituan bai erroialdi sendo ta zindoak, edozein aizek zotukatzen etzituenak. Bazetien beren marmariak, alegia; baño Eguberri gaualdian bere txabola izar-tsuaren pean aitona maiburuko zutelarik aren belaunekoek mai ondoan biltzen zirenean, agure zaar itzalgarriak esku zimurrarekin onespenuari ekartzen zian.

Ontan nexka maite-kutsatuak zurbill ta sukarez esan zion aitari: beraz, il egin nai nauzu, aita, ni bainaiz Bikendik maite duna. Yainkoaren ta Andre Mariren aurrean ark bestek ez du nere gogorik atxikiko. Illerriko antzeko ixilgunea izan zen. Yoana Mari yeiki zen aurrenik aulkitik.

—Alaba, esan zun, yalki ditunan itzak loitzen diñate gure izena; elorri-arantz orrek biotza zau-ritu zigun luzaroko. Ik muzin egin ionan milla buru ardi zitun Ilariri; baita Veran beorzaiari ere; uxatu dun ire nardaz Urri, oinbeste zekorren yabea, ta atzenik olako biurrik itxulastu au. Ots bada, bai abilke atez ate eskale arekin, landaz landa! Ere yabe aiz. Oa igitotzarra, oa eskaleekin! Bil adi Rocanarekin eta Rubicanako Elisabete-kin; oa Zakur-atsoarekin zubiren baten pean iru arriren gañean eltzaria egostera!

Erraimun ixilik zegon andrea mintza bitar-tean; baño bekain zuri usuen azpitik, tximistak yaurtitzen zituen. Aserrearen atea zabaldu zun osiñarena bezala, ta oldartu zen amilka ugaldea. —Bai, ongi ari duk ama; oa, ta ekaitza urtu dai-tela urruti... Ez ordea; gelditu egin bear dun; adi-tzen? Eskuek burniz billurtu ta sudurrek eraztu-nez idi-astoari bezala zulatu bear ta ere bertan zerutik sua yetxiko balitz ere, ire mataillak elurra eguzkitan bezala urtuko balire... Mireio! arako burni ark illintia yasotzen dun bezala. Rodano euriz aunditua gainditzen den bezala, onako au

argiontzia den bezala; idukan gogoan! ez dun geigoren geigo mutil arenik ikusiko. Ziñez.

Eta ukaldi batez mai osoa dardarazi zun. Intza ardangaxitan bezala, elduegi diren morkatik aleak yalki oi bezala, Mireiori bitartean malkoak zerizkion. —Nork adierazi niri, arraietan, esan zun zarrak aserrez totelka, nork adierazi niri, iri ta seme zitalari zeron txabolean nire alaba ebas-tea gogoak eman ez dizutenik? Aserreak birbiztuzion saskigillari gaztetango kemena-ta! —Yainkoaren aserrea! oiugin zuen bertan. Eskuartetik ez badugu ere, yakizue biotza gora dugula. Ezizanak ez dik gizona dollortzen, ez loitzen. Berrogai urtez itsas-gudari izana nauk. Amaika aldiz kañoien eztanda entzunik negok. Ontzi-aga yaso al orduko Valabregatik aldegin nian ontzi-mutiko. Itsasoko zabaldietan barna, ikusi diat Melindaren aginterria, Sufrenen ondoan Indiak ikusi ditiat, eta itxaso-ura baño egun miñagoak izan ditiat. Legor-gudari ere mundu zabala erabilli diat. Eguerdi-aldetik aterata Españitik asita Rusiko basarteraño bere eskuz guzia ondatu zun gudari aundi arekin ibillia nauk. Aren mutil-taldeen tuntun-otsera, mundu guzia ikaratzen uan

zugatzean udarea bezala. Legorrerakoan, eta ontzi-ondatzetan aberatsak etziten nire tokirik artzen. Ni, beartsuren seme au; ni, aiterrian goldea sartzeko lur-mutur bat ere izan ez ta, or ibilli ninduan berrogai urtez yarraio, nere burua urratzen. Izarretara lo egiten genian; zakur-ogia yaten genian; eta, il naiagorik, sarraskira giñoiazean, Prantziren izenagatik. Zer esker ematen ziguk iñork?

Au esan zun saskigille aserreak, eta bere lastaira arrika yaurti zuen.

—Zeren billa oa Verga-mendira, erantzun zun Erraimunek amorruz, Pilon muño sainduaren billa? Nik ere entzun diat sutunpaen ostots izugarria Tolongo ibarretan, eta Arkolako zubia erortzen eta Igitoko lur-ondarra odolez asetzen ikusirik negok. Andik onera ezkerre, aitzurrean, lurra iraultzen ginduan gizonkiro, ezur-muiñak igartu arteo. Eguna baño len asten ginduan lanean, eta illargiak ikusi neuk bost aldiz aitzurraren gañean makurtuta. Lurra emakorra omen duk; iñarrosi bage ezer ematen ez dun urritza bezalaxe. Ta nire lanak etxalde ontan irabazi ditun zoi ta zotalak kontatu ezkerre, nire izerdi-

tantak kontaturik leudekek. Apt-ko Ana deuna!
Ta ixildu egin bear ote? Nik allorrean lerrenak
egin, otxarra yan, etxea nondik yasoko, ta gizar-
tean ongi nola azalduko; ta oatzerik bageko
eskale bati alaba eman? Yainkoak lagun dakiala!
Begira ezak ere zakurra ta nik nere beltxarga
begirako diat.

Au izan zen yaun Erraimunen mintzo lazka-
rra. Beste agureak, maietik yeikita, lastaira ta
makilla artuta, auxe besterik etzun esan: Agur!
iñoiz ez dukala barne-zimikorik. Anartean, Yain-
ko onak aingeruekin zuzen bitza txalupa ta urre-
sagararak.

Agure saskigilleak aldegitean arrats-apalean,
ipar-beltza ari zela, arba-pilletik galda luze bat
atera zen. Igitariiek inguruan zoraturik itzulingu-
ruka, buruak arro arro egiñik yostatzen ziren, eta
bat batean taka egiten zuten lurrean. Abar aundi
batek, aize zakarrak eraginda, aurpegia dirdai-
tzen die. Txingarrak zurrunbilloan odoietara
doaz aserre. Sugaiaren karrakarekin naasten da
txixtu-soñu bizia, txorrutxoria lizarrean bezain
alai.

Doniane! Lur ernaria ikaratzen da zu igaro bitartean. Sua zirtaka ari zen; tuntuna gelditu bage ari zen, itsasoko ugiñek arkaitzetan bezala. Ezpatak aizean diz diz egiten zuten. Dantzari beltzak, suari iru itzulinguru emanda, oiuka, galdaren gaiñetik yauzi dute, bakoizka. Kordak eta Doniane-belarra ta irusta-belarra onesten ditute su garbitzailean. «Doniane, Doniane, Doniane!» zioten. Muñoak oro txingika ari ziren, illunbetan izar-yarioa bai litzan. Muñoetako kea ta suaren gorria aize-bultzaz gorantza zoazin, zeru urdiñean ageri zen Doniane onetsiarengana.

VIII

CRAU-KO ZABALDIA

Mireioren etsipena.—

Gaberdien iges

Provenzako Damamarietara.—

Crau, zabaldi legorra.

Nork burutu leoi amarekin, aizulora itzulita-koan, umea an arkitzen ez badu? Orroka, erio-suar Berberiko mendiz mendi dabilla aspertu bage. Eiztari mairu batek eraman dio leoikumea, ta laugainka doa añardietan barna.

Nork geldiaziko zaituzte, ñexka maitemin-duak? Gelatxo illunean, illargi-izpia sartzen dela-rik, an dago Mireio etzinda, nigar ta nigar, bi eskuak bekokian. —Maitasun ederraren Ama! zion, zer egin bear dut? Zori txarrak iltzen nau naibagez! Aita ankerra, orrela apalerazten nauzu? Nire gogoaren miña ta kezka bazeneku-sa, errukiko zintzaiket! Zure alaba au artizarra zen len; orain berriz uztar-beia bezala lepoa makurtzera beartu duzu. Zergatik ez ote du itsa-

soak gaiñez egiten? Zertako ez ote du Crau aldea ondatzen? Pozik nekusake lurralde au urak eramanik, onetxek ondatzen bai nau! Yaio al nendiken ni eskale batengandik suge-kabi batean! Ordun, naski, mutil bat gogo banu, bear-tsu izanik ere, maita nezake; ordun Bikendik eskatuko banindu, laister ezkonduko nindukete arekin.

Nire Bikendi eder! irekin bizitzekotan, i untzak bezala laztantzekotan, pozik edanen nitek bide-iturrietan, eta ire musuak nitikek yanari!

Oean orrela naibagetze bitartean, bulartea sukar, maite-dardaraz, lenbiziko maitemiñ eguna oroitzuz, nexka ederrari Bikendiren esan bat gogoak ematen dio. Bai, zion, bein batez bor-dan esan idakean: iñoiz zakurren batek, musker, suge edo beste pisti gaiztoren batek ozkatzen bai aun, naibageak menderatzen bai aun, oa oa, Andre doneengana, ta berela arinduko aunate. Gaur atsekabepean nago. Banoa bai, Andre doneengana ta pozturik natorke.

Gogoeta onen ondoren, maindire zuri tartetik yauzi egiten du. Giltza dizditsuz idekitzen du

altxariak dauzkan kutxa, bikaña, intxaurzura, gaiñetik bitxiztatua, ta an aurkitzen ditu bere ondasuntxoak: lenengoz Yauna artu zuneko buruntza; isplika-belar izpi igar bat, eta tximista aldentzeko argizagi onetsi apur apur bat; gona motz gorri bat berak eskuz biryosia yazten du, ta aren gañetik beste bat ederragoa, ta gero gorantze beltza estu estu, urrezko orratz batekin lotua. Bizkarra beira zarion ille beltz ederra bildu, adats kizkurrak bildu, ta zapi zuria sare batean arturik, lokarri urdin batekin iru biur eman; arlesiar nesken buruntza au bekoki gazte garbian zuelarik, gona-aurrekoa yantzi ta muse-liñazko zapi azpildu bat bular aurrean yarri.

Baño ondikoz! provenza-erako ginbailtxoa aztu; beroaren babes bikaña baitzen bere belarri aundiekin. Orrela yantzirik, nexka maitiak artzen ditu oskiak eskuan, eta ixil ixil, zurubia beira, atearen burni-aga kendu, Andre doneeri otoitz egin ta badoa aizea bezain usu gau bildurgarrian.

Izar-morkak itsastarrari keñu egiten dioten ordua zen. Donianeren arranoa Ebanjellariaren azpian etzan zen. Doniane dagon iru izarretan.

Andik ñir ñir egiten zun. Izar zegon eta nare, ta izarrak dirdirka ari ziren. Arimen gurdia izar-zabaldietan barna leiaka zoaien zerurantza, bete beterik, eta itzalpeko mendiek begira zegozkion. Mireio izar-morkaren aurretik zoaien aintziñeko Magalona bezala; ugiñ aserreek, ekarrita, basoan utzirik, nigarrez ain luzaro Peru Provenzakoa-ren billa ibillitako ua bezala.

Anartean, alor-mugako eskortean, bordako artzaiek ardiyeizten asi. Batzuk ardieri muturretik elduta, sarobeetan, axuri otzanei edanarazten zien noizpenkako marrakaldi artean; besteak, umea kendutakoak yeiztalleari zeramatzioten. Eserita an ari zen baztar illunean, arri bat aulkitako, gaua bezain ixil, errape anpatuak lauskitzen, esne eder aparduna ereika atereaz, kaikuaren ezpañera zarrastaldi bakoitzean aparra urbilduz. Artzakur aundi ta lilia bezain zuriek etzanda zeuden artegiaren luzeran, okotza aztal-belarrian. Inguru guzia bake ta lo zetzan zabaldi llurruntsuan. Zerua izar zegoen dirdizka. Ontan, tximista bezala an doaie Mireio, ta ardi ta artzaiek bil bil egin ziren, buru gañean ustekabe-ko ekaitza oartzen dutenean bezala. Nexkak

esan zun: ez al du nerekin artzairik etorri nai Done-Marietara? Ta itzalak bezala aldegin zun andik. Bordako zakurrek ezagun izan zuten eta etziran egonetik atera. Bitartean nexka, eperra bezain arin, zumel-txartakak eraikoriz, astalarrren gañetik egan, lurra oñez ozta ukitzen zuela zoaien. Noizik bein ametz ondoko belarrean zeuden kurinkak esnatzen zitun, eta aiek ikaraz Crau soil eta itzaltsuan barna «Karoli Karoli» esanaz, ziztu aundian zoazin. Goizeko argia urratzen asia zen mendi-galdorretan, iintz-adatsak zelaiean goxo goxo zabalduki. Larratxori galdoxtunek agur egiten zioten. Alpina aitzulodunaren tontor garaiak igi-iduri ziren eguzki izpitara. Ezari ezarian agertzen zoaien Crauko zabaldi legor landubage arrizu, neurribagea. Antxiñako Crau ontan asabaen ipuiñak egi baditugu, ugolde izugarriean ondatu ziren erraldoi arroputzek. Zoro aiek, zurubi batekin, beren indarrez, Guzalduna egotzi uste zuten. Erauzi omen zuten zankaz Santa Vitoriko galdorra; ba omen zoazin Allpinara ango arkaitz amil izugarriak Vantur mendiari erasteko. Yainkoak ordea, eskua zabaldu. Iparbeltza tximistarekin eta aize-zurrunbi-

Iloa, Aren eskutik arranoa bezala atera dire. Itsoaren barnetik eta ango arkaitz-osiñetatik laisterka doazi beren oatze biguña arkaitz utzirik. Laño astun beltza yeikitzen da. Iparrak, tximistak eta zurrunbilloa arrauts-estalkia zabalduz, zapaltzen ditute ango erraldoi-antz garaiak. Crau, amabi aizeetara zabaldurik, Crau mintzula, Crau illa, ordu ezkerro arrauts aren estalkipean dago.

Aitaren lurretatik gero ta aragotzen da Mireio. Dirdirak eta sargoriak, aizean argi-ikara sortzen zuten, eta zelaieko txitxarren mintzak belar beroan txigorturik, atertu bage ari zuten beren maratil mintzobakarra. Etzen ageri zugatzik ez itzalik, ez kristaurik. Negutean zabaldiko belar motx goxoa morrozten duten artalde ugarriak, Alpe ozkirri osasungarrietara yoanak ziren udako beroen igesi, belar beti-ezearen billa.

Garagarrilleko sutartean, badoa Mireio, badoa. Ta musker aundi auskarak beren zulo ertzetatik zioten: zororik egon bear din eguzki orrekin legartza ortan ibiltzeko; muñoetako epuruek eta Crauko arribillek dantzarazten baititin. Ta txaixkurrek otepean zioten:

Nexka bidezkarri, itzuli adi itzul adi. Yainko onak iturrietan ura ta zugazpetan itzala yarri din, eta udaren aurpegiak i erretzen aun. Alperrik esan zioten mitxeletak ere. Maitearen egak eta Siñestearen aizeak zeraman, aizeak Urrilletako ondartzan aron dabilzan itsas-olloek bezala.

Mireiok Yondone Genti ura eskatzen dio.

Aldiz aldiz zabaldian agertzen zen lezka-tartean artegiren bat, illunik, artzaiak eta ardiak utzia. Nexka an egarri gertatu zenean orde, bakar, latsik eta istillik bage, ikaralditxo batek eraginda esan zun: Yondone Gent zerutiarra, Bausetko padarra, nekazari gazte ederra, mendiko otsoa uztartu ziñuna, zure ama nekatua, ta beroak itoaren egarria asetzeko arkaitz gogorretik ur-iturri ta ardo-iturria sortu ziñuzan bakartiar Yainkotarra! Nik orain bezala, zuk ere yende guzia lotan utzita etxetik aldegin, eta amak Yainkoarekin bekarrarekin. Bausetko arrartean arkitu zindudana! Bial idazu ur txurrusta garbi bat.

Arkozkorrek oiñak kiskaltzen ditidate, ta egarrik itotzera noa.

Saindu onak entzun zun zerutik Mireioren otoitza, ta Mireiok ber-bertan ateman zun zabal-di artan osin baten arri-ezpain zuria, ta ugiña urratzen dun enara antzo, usu oldartu zen eguzki-izpien galda urratuz. Ardiek, untzez yantzitako osin zar artara yoaten oi ziren edatera. Ur-askak lemaioken itzal piska arturik, an ari zen mutiko bat yostetan, kanta zar bat marmaritutuz. Ondoan, barakullu zuri saski bat zedukan, eta gal-ondotik esku beltzean bakoizka artuki, onela kantatzen zien:

Barakullu, barakullu,
atera adi gelatik;
barakullu, kullubara,
adarrak eguzkitara;
barakullu mojatxi,
ortik irten ez baadi,
autsiko nik etxeñi.

Crauko alaba ederra; bideak gorritua ezpainak ezotzetik yeiki zen, eta sostean agertu zuen

aurpegiño zoragarria. —Zer ari aiz, mutil? Ixiltartea izan zen. Belar eta arri tartean, barakullu biltzen ari aiz? —Ain zuzen ere, mutilak erantzun. Begira zenbat saskian: mojatxo, arakoi ta galtzukoi. —Yateko? esan zun neskak. —Ez, amak ostiral oro Arlesen saltzen ditin, eta ogi biguina ordañez ekartzen. Arlesen izan al aiz? —Beiñere ez. —Beiñere ez? Ni bai.

Arlesko uriaren goratzapena.

Mireio Andderenean.

Gaixoa! Zer den baekin! Rodano ugariaren zazpi agoetaraño zabaltzen dun. Arlesko ondartzako ugarteetan itsas-zezenak larrean zebiltzen. Arlesen zaldi izuak baditun. Arlesen uda bakarrean zazpi urteko garia bildu ziteken nai izan ezkeru. An baditun arrantzaleak, nondinai arraia gurdika dakartenak; baditun, ekaitzari gogor egitera urrungo itsasoetara doazin itsasgizon izukaitzak...

Ta Arles iguzkitsuaren edertasunak urremihiz oroituki, itsas urdiñ eziñegona, saskiak

bete oliaran eotzeko gorbeleri ematen ditien Mendi-aundi, ta aintziradietan garraxika ari diren burrioak; aipatzen zitun. Baño uri gozo ta beltxe-rana! mutikoari aaztu egin zure gauzarik arrigarriena: Arlesko zerua, lurra ernaltzen duna; neskak edertzen dituna, mendieri urriña ta txoriño-eri egak ematen ditiena.

Zutik eta gogo-ernari zegoen neska xorra. Mutiko eder, esan zion, ator nirekin labur. Igela saraspean kantari asi baño len, Rodanoren aindiko ertzean oiña tinkatu bear diat Yainkoa lagun. Mutikoak erantzun zion: Ots bada, eziñ obeki, gu arrantzale baikara. Gaur gure txabolean lo egiñen dun zunzunpean, eta biar argi-urratzean gure aitak aldatuko aun ontzixkan. —Bai zera! ez diat gabez ibiltzeko bildurrik. —Begira, gero! esan zion mutillak! Capako aizulotik ateratzen den negarti-taldea ikusi nai al dun? Ene! atzematzen bai aun berekin amilduko aun zurrunbilloan. —Zer da Capako aitzulo ori, esan zun Mireiok. Legartzan gabiltzen bitartean yalkiko diñat, nexka.

Ta mutilla asi zen:

Beiñola, larrain bat gari-balaz beterik zegonan. Biar ibai-ertzetik ikusiko dun au gertatu-
lekua. Illabete artan Camargako beor-uztarri bat
eultzian ari unan aterbage. Itxogunerik ez. Beti
buruak lastoz yantzirik, eta larrain austatuan
beti garimendiak eultzitzeko. Ua eguzkia! Ultziak
sua zirudinan. Ezpel-ardeak aizetara yaurtitzen
ziñan gari-odeia usu ta arin. Gal-bizarra ta gal-
autsa beorren sudurretara unan ustaietik gezia
bezala. Ez Yondone Petiri ta ez Yondone Karolik
ezkillak yo ta ere. Beor gaixoentzat ez yairik eta
iganderik: beti lan gaitza, beti eztena, beti eultzi-
zalearen oiu latza, zurrunbillo erdian geldi zego-
elarik. Nagusi zekenak, zital baño zitalago, beor
eultzilariak mozorrotu egin zitinan, Kea zeriten
lasto txiki-bearren gañean, beor lotuak oi bezala
aparrez bustirik inguruka zebiltzanan oraino,
gibela saietseri yosirik, eta muturra larde-yario.
Bapatean ekaitza ta izotz-aizea. Ene! Iparbeltzak
larraiña isusi. Yainkoaren egunari birao zegiote-
nak, begiek usturik, an ikusi ziñaten larraiña ira-
katzen eta pertza bezala zirrikatzen Gari-pil aun-
dia aserreak eramaki: eultzigille, eultzizai mutil,
denak ondatu itunan. Larraiñaren yabea, aiza-

tzailea, agotza, azaoak, aurreko zaldiek, beoruztarri osoa, dena lurrak irentsi bere osiñean.

—Bai izugarria, esan zun Mireiok. —Badun geigo ere, nexka. Biar (agian sena galdu dudala esanen duzute), biar ikusiko dituzute zamoak eta tenkak ur urdiñean yostetan, eta urmael inguruan aintzirako zozoak kantatzen, Ba-dator orde Andre Mari eguna. Eguzkia bere goi-yarle-kura igo-ala, ezarri belarria lurrari, ta egon otsik egin bage. Garbi ta nare zegon ur-ixurkia itzalduz doa pekatu itzalez, eta ur arre aren barren-dik euli-furrunda antzekoa sortzen da. Urrena, txilintxa-soñua garbi entzuten da eten bage, ta gero, ezari ezarian berro aundi tartetik buztinsuillean oiuk entzun iduri dire, ta atzenik iskanbil aundi biurtzen da, dardar eragin arte. Larrainerdian biraoka ari den eultzilari gixatxarraren oiutara bezala, zaldi giarreen takata entzuten da, berela. Lur elkor gogorrean, udako eultzian antzo, aztaka neketsu bat. Eguzkia yetxi-ala orde, ixilduz doazi ixtilluak eta ur-ixurkiko biraokak. Berropeko txilinta-otsa mintxoa ixiltzen da, ta zozoak berriro seska-muturretan kantari asten dire.

Yardun au zuen nexkaren aurrean, saskia bete barakulludun mutikoak. Garbi ta garden, eguzki-artzeak gorrituta, muño legorrak zeruaz batzen ditu bere tontor gorri-urdiñak.

Ta eguzkiak, bere mako ederrean astiro bilduki, Yainkoaren bakean uzten ditu aintzirak eta urmael aundiak eta Ibarzabalgo olioak, eta Rodano, laisterka doan, ta itxasaizea arnastuz bizkar makurra zuzentzen duten igitariak.

Ontan mutikoak: Gazteño, ez al dakusan an beian zuen dendako euna aize-aldiak eragiña? IKus, itzala ta babesa ditun zonzuna: ikus gure anai Extebe artara igotzen, txitxar-billa, edo dendarako nire billa. Ara! Ikusi gaitin eta ama-rengana zoan afaria gaitzeko esatera. Begira gure ama ontzixkan, kuzkurka ta ozberritu bear ditun arraiak artzen.

Ontan, biek leiaka ta kaia gora zoazila ikusita, arrantzaleak esan zun goratik. Ara, ara! Ederki, andereño! Laister gure Extebe arrantzale yaioa diñagu. Emen zekarren aingireen erregiña.

IX

LANGILLEERI DEIA

*Erraimun zarrak langilleak deitzen ditu,
Mireioren billa asteko.*

Basakek nigar egin zuten; erle naibagetuek erlauntzeetan sartu ziren, zornabelar eta azitralandaz azturik. —Ikusi al duzute Mireio? galdegin zien igebelarrereri ur-ollo urdin ederrak, urmael inguruan zebiltzalarik. Yaun Erraimun zarrak eta emazteak, aurpegia malkotan eta erioa biotzean, alorrean elkarren ondoan eserita beren naibagea arintzen zuten. Bai, eroa bear luke! zioten. Doakabe zentzubagea! Gaztetasun eroaren erorikoa izugarri astuna da! Gure Mireio ederra, erakeri nigargarra! ijito zilibokari zirtzil batek ostu! Nork erakutsiko digu, lapurrak lotsabage ua eraman duneko aitzuloa? Ta au esanez bi zarrak buru aserreari eragiten zioten.

Astoa espartzuzko bizkar-ordeekin, azaldu zen oi bezala ardo-banatzailea, ta atalasean zutik, «egun on» esan zien; arraultzen eta ura-

ren billa nator, nagusi. —Itzul adi, kixkali ori!
nexka bage, artelatza bezala larrutu nautela
ziduridak eta. Etorri aizen tokira oa laster
batean, mutil. Zelaietan barna oa tximista beza-
la; segari ta nekazariek utzi ditzatela sega ta
golde; igitarieri esaiek igitaiek uzteko, ta artzaie-
ri artaldea uzteko: datozkidala.

Auntza baño ariñago badoaie berela mutil
zintzoa legartzetan barna, zuli gorri ederretan
barna, muñoetako artadietan barna, yauzi
batean bideak igaro ta belar ebaki-berriaren usai
gozoa usnatzen duelarik. Melga zuti, urdin, lore-
dun tartean, urrundik entzuten du sega-zarrazta.
Segari mardulak aurrera-kiñu berdiña egiten
dute ebaki-ala. Belarra mailka uzten du galtzai-
ruak, begien atsegingarri. Neska ta neskato
alaiek belardia eskuaretzen ari dire. Batzuk,
belarra bildu-ala kantari, kirkirrek sega-igesi
kanta entzun bitartean. Itzai trebeak besamen
aundika, belarra gerriraño arrotzen zaiolarik,
gora derama gurdi-zama, gurpilak, ezpatak eta
endaitza estaliki. Etxerakoan itsas-ontzi aundi
iduriko du, balantzaka. Olako batean, itzaia yeiki

da langillezaia bai litz, eta bapatez esaten die segarieri: geldi yaunak! berri gaizto diagu!

Sarde beteka belarra zekarkioten mutillek bekoki-izerdia txukatu zuten; segariak, segakir-tena ugal potoen gañean ezarrita, aobizarra zorroztu-ala zabaldira begira yarri ziren, eguzki-izpien buruzki.

—Yaunak! ara zer dion nagusik, esan zuen berri-ekarleak. Ardoketari! esan dit: oa tximista bezala; segari ta nekazarieri esaiek, utzi ditzate-la sega ta golde; igitarieri, igitaiak uzteko, ta artzaieri, artaldea uzteko: datozkidala.

Auntza baño ariñago badoaie atzera mutil zintzoa. Altengo oroigarri, otxarra azi oi deneko ildo-bizkarrak zangarteka igaroz, nonai Umota-suna dakusa, bere lastargiz lurrari urre-kolorea ematen. Belarmiñez izarturik dagoen lur etzea barna, an dakustzi goldelari bizkorrak mandoen atzetik golde gañera makurturik; ba-dakusa lurra negunagiak ateratzen, elkor itxuragaitzak azalduki: badakustzi ildo zabalean buztanikarak, goldearen atzetik yostalari.

—Gizonak! ara zer esan didan nagusik, esan zun mandatariak. Ardoketari, esan dit; oa tximis-

ta bezala; segari ta nekazariak utzi ditzatela sega ta golde; igitariari esaiak igitariak uzteko, ta artzariari artaldeak uzteko: datozkidala.

Badoaie berriz ere morroi zintzoa aurtza baño ariño, belardi, zokogune, urrezko gari- alorretan barna izkutatzen da. Berrogai segari, su kixkalgarría antzo, alorrari bere soñoeko eder usaiduna erauzten ari. Gariari barna, otso antzo oldartzen ziren, alorrari ta udari urrezko lore garbia kentzen. Gizonen atzetik lerro luzekak, maasti baten anduak bezala, maillak ageri ziren. Lotzaile erneak armenak egin, besamenka bildu, ta bala usu lotzen zuten belaun-keiñuz, eta atzera yaurti.

Erletaldearen egalak bezala ta patuxak ugiñetan eguzkitara yostaka bezala, aien igitariak dirdai zegiten. Eta bala zutak galdor-mototxetan elkarren galburuak bat egiñez, eunka zeuden. Guda-txabolak ziruditen. Beiñola Bèu-Clairek alako etzauntzak landatu zitun Simon ta prantsestaldea, basatien gisa, Provenza ta Conde Erraimun lepo egitera etorri zirenean. Artean, buruxka-biltzaileak arat onata dabilta yostalari, galburuak eskuan; seskadietan edo balaen itzal

beroan nexkaen bat, begi-lilluratzailleen bati ederretsiz, maite-igitaieri bere burua egozten dio, ark ere bere igita egiten baitu.

—Gizonak! ara zer dion nagusik, esan zun mandatariak. Ardoketari, esan dit: oa tximista bezala; segari ta nekazariiek utzi ditzatela sega ta golde; igitarieri esaiek itaiek uzteko, ta artzaieri artaldea uzteko: datozkidala.

Berriz ere auntza baño ariñago badoaie artzai zintzoa. Oliodietan barna, bidexkaeri lotuz, an doaie tximista bezala; maats-aienak autsiz ipar-burrundak bezala, ta galdurik gertatzen da alako batean, eper-kanta beste zantzurik ez dula.

Crau legorraren zabaldi izugarrian, zumel-txartaka batzuen azpian, ezagutzen ditu urrutira ardiek abaroan. Artzai gazteek eta artzai nagusiek lekugi-gañean zear-etzana zuten. Pinpiñek bakean zebiltzan ardi ausnartien bizkarrez bizkar. Itsasotik geldi geldi yeikitzen zen gandu zuri ariña. Goi garbietan, zerutarren bati eguzkiak soñekoa arintzen zion.

—Gizonak! ara zer esan didan nagusik, esan zun berri-ekarleak. Ardoketari, esan dit: oa tximista bezala; segari ta nekazariiek utzi ditzatela

sega ta golde; igitarieri esaiek itaiek uzteko, ta artzaieri artaldea uzteko: datozkidala.

Bapatean atertu ziren sega ta golde. Berrogai igitariek igitaiek utzita bideari lotzen zaizko, erlauntzeko erlekumea egalak dituen orduko furrundaka ler-zugatzari lotzen zaion bezala. Iritxi ziren bordara bala-lotzaile, eskuaredun, gurdidun eta mutil, artzai, buruxka-billtzaile, meta-tzaile.

Illunik eta ixilik, larraiñeko larratzean zeuden yendearen begira nagusi etxekoandreek. Langilleek lana eten-bearrez arriturik, nagusia inguratzzen zuten etorri-ala.

Deitu gaituzu, nagusi. Emen gaituzu.

Yaun Erraimunek burua yaso zun. —Uztaroan zetorrek beti ekaitzik aundiena. Zorigaitzokoak gu! Zur egonda ere beti zorigaitzak atzematen gaitu. Arren! esan zun zarrak, ixil nadin, adiski-deak, zuetan bakoitzak zer dakien edo zer ikusi duen esan artio.

Ateratzen da Gulteneko Luenti. Au umetandik Arlesko zabaldietara yoan oi zen bere igitariekin, garia urrekeratzen asi orduko. Ugiñek alperrik astintzen duten arkaitza zirudin; larrua Eleiz-

arria bezain beltzerana zun. Langille-nagusi zarau, eguzkiak kiskali edo iparbeltzak orro egin, beti aurrena lanera. Zazpi seme bera bezain mardul ta beltzeran, berekin zekartzen. Igitariak ao batez aukeratu zuten buruzagi, ta bidez alere. Asi zen bada Luenti: esana egi bada, «goiz gorri arrats-iturri», nik ikusi dudana negargarri da iñolaz ere, nagusi.

Yauna, ekaitza uxa ezazu! Goizeti zen. Argiak illuna urkatzen zun sartalderantza, intzaren bustian, oi bezala, segaldira giñoazen. Lagunek! esan nun; lanaldia ona bedi, ta ekin. Beso-utsyarri nintzan lanerako, ta alai makurtu. Lenbiziko zarrastakoan, nagusi, beatzek ebaki. Ogeitamar urte ontan etzait olakorik gerta, Yainko aundia! Ta erakusten ditio odoldurik eta ebaki aundia ta Mireioren gurasoek berriro zinkuri egin zuten.

Belar-segari bat, Buketeneko Ibane tartetik sartu zen. Tarascondarra zen, Tarascaren zaldu-na, mardul ta gizaundi, baño biozti ta adiskide on. Denbora bateko sorgiña, Tarasca, Tarasca! otsetara iges zoaienean, erri illuna dantza-irrintzi-iskanbillek alaitzen zutenean, iñor etzen Condaminan ark bezalako yasez azkona naiz bande-

ra aizean eragiten zunik. Segari bikaiñentsuna atera ziteken, lanari sendo yarra balitzaio, baño pestaburukoan, alde igitaia! Sabelzainkerira, orritsetara, zugatz-ostopeko yostaldietara edo zezenetara, ero ta itsu zoaien. Nagusi, esan zun, igita —bitartean, gogotik ari giñela, zalgi-txaparran eper-kabia arkitu dut ega-ukaldika. Pozik makurtu nintzan asko ote ziren, baño, au lana! txinurri gorriak, eraso kabiari ta kabikoeri. Iru illik zeuden; gañerakoek, izurri ark zirikatuta, kabi-ezpañetik lepoa atereaz esan-iduri zidaten: «el zakizkigu». Ausiña baño miñagoko moxorro aiek, ordea, aserre biziz ozka egiten. Ni gogonduri, sega-kirtenean tinkatuta, txori amak aien miñez zumeldian ari zun nigar-txintari erne negokion.

Zoritxar berri onek, gurasoen zain-yoa mintzenago du.

Garagarrillez, ekaitza zabaldira ixil sartzen denean, iparra gero ta puztuago, ortzia tximistak argitzen, eta guzia goibeltzenago den bezala, an azalldu zen Maran...

*Sega-apustua: Maranek irabazi
Gulteneko Luentiri.—
Gurasoak Mireioren billa.*

Landetxetan aipatua zen Maran. Gaur egu-
nean ere, gaualldietan, mandoek ganbeletako
malkarra yaten ari direnean, bordamutillek upe-
letako olio aitu arte ez dire aspertzen, Maranek
astegun batez egin zuna esaten. Ereiarorako
izketatu zen. Goldelari bakoitza ildo urratzen
asi zen, eta Maran, lekutik igitu bage, golde-
belarri, txakur, estukia antzebage kolpatzen ari
zen egun eta mende lanabasik ukitu ez bailun. —
Lanerako izketatu aiz eta goldea moldatzen ez
dakik, antzekaitza! esan zion langille-nagusiak.
Aketzak muturka ik baño obeki lantzen dik lurra,
biurri! —Itzetik eltzen diat, erantzun zion gaz-
teak. Egin dezagun: ildo oker ateratzen dunak
bi urre-diru gal bitza: yo turuta.

Bi goldeek lur larrea batean urratzen. Biek,
zuzenbidetako, alor-mugako bi zumartxuri begiz
yo zituten. Ez dire yo-bidetik okertzen. Eguzkiak
galburuek urreztatzen ditu. Ozpina! zure ildo,
mutil-nagusi, adoa artuarena da, ikasiarena da,

esan zioten mutillek; baño egia esan, bestearenak gezi baten bidetako balio luke naski. Ta Maranek apustua irabazi.

Maran onek ere, batzarre artan bere itz samina yalki zun. Aitzintxe, zurbil, lurra landu bitartean txistuka ari nintzan. Lurra zaila zegoen ete nik bukatu egin nai berantuta ere. Alako batean nire mandoen illea lazten da. Bildur ikarak geldiarazten ditu, belarriek izutuki. Lur larreko belarrak makurtu ta marguldu egin ziren. Ziztatzen ditut eta Gorrixtak illunki niri begiratzen, igitu bage, ta Auskera galtzuan usaika. Nik iztazaiñetan ugalez yo, ta ikaraz yarrai zuten. Goldeetxea autsi zen; zumarra, ta endaitza uztarriarekin deramate. Ni guzia larri, zurbil, otzikaraz, ortz-karraskaz, buruko ille zutien gañetik eriotza aize-antza igarotzen senti nuen.

Yainkoaren Ama! oiu min egin zun amak; Zure estalkipean ar ezazu nire nexka ederra, ta belauniko erori zen odeietara ezpainak luzaro zabalduki.

Ontan zangarteka dator Anselm arzai-nagusia. Zer ote zun aen goiz orreagan ibiltzeko? esan zun inguruta bildu orduko. Gu eskorteetan

ari giñan ardi-yeizten, eta zabaldi arrizuen gañetik izar zegoen. Gogo bat, itzal arin bat, iratxo bat igaro zen eskorte ondotik. Zakurrek ikaraz mutu, ta artaldea aril bat eginda gelditu. —Onezkoa bai aiz, esak; arima gaxoa bai aiz, itzul adi suetara, esan nion. Ez nun astirik Andre Mariri Agur Mari bat esateko. Nerekin Donamarietan ez al du artzairik etorri nai? esan zun mintzo eza-gun batek. Eta berela itzali zen agerkaria, zabal-dian barna. Siñesten al, nagusi? Mireio zen.

—Bai ote? oiu egin zuten larrainean zeude-nak oro. —Bai; ikusi dut, izar-argitan nire aurretik igaro da, baño ez oikoa: aurpegi-illun, maxkal, oñaze miñen batek zedukan lur ontan. Berri latz au entzutean, gizonezkoek esku lurtsuek batera zartatu zituten. —Eraman nazue Dona-marietara, oiu egin zun amak. Nora ere diyoan, ara noakio atzetik nire txoriñoari, zabal-di arri-zuetako eperkume ari. Txiñurriek erasoko balizute nire ortzak autsiko dute kabia ta irentsiko. Erio zikoitzak atzeman gogo bazaitu, neronek akestuko diot sega zarra, ta zuk, bitartean, zumardia barna iges egiñen.

Yoana Mari, zabaldua barna, eroarenak esanaz doaie. —Itzai, zion nagusiak, gurdia gaitu, ardatza igurtzi, bei Beltxa uztartu, berandu duk eta, bide luzea diagu ta Gurdi negartira igotzen da Yoana Mari, ta aizea sekulako zinkuriz eta aienakaz betetzen du. —Alaba eder, Crauko legartzatza, ondartzatza zabal guziek, i ere bai, eguzki dir-daitso, lagun zaizkote nire alabari, igatzen ari da ta. Atso zar nazkagarri ark iñolaz ere, aitzulora sartu zunean, bere ontzitik iretsiazi bide ditio irazkai ta zital. Taven! Yondone Antoni izutu zuten deabru guziek Bausko arkaizpera narrastuko al aunate!

Gurdiaren kalaka ta zalapartak, gaxoaren mintzoa ixiltzen du. Ta landa-gizonek Crau zaba-lean iñor ageri ote zen begiratzuz, lanera zoazin geldi geldia. Zorion dute eltxoek, urrutira estu- iduri duten zugaz-lerroetako itzal ozkirrian!

X CAMARGA

*Mireiok Andderen ontzixkan
igarotzen du Rodano ibaia.*

Entzuidazute Arlestik Venzarañoko provenzararak. Beroak yotzen bazaituzte, goazen guziok Duranzoletako ertzera, elkarrekin atsedetera. Marsellatik Valenzola bitartean orde, kantuz eder zagun Mireio, ta erruki diogun Bikendiri.

Ontzixka ura ebakiz zoaien, mihi-arraina bezain ixil. Andder zen ontzizai, ta nik kantatu dudan maitea Andderekin oldartu zen Rodano zabalera, ta eseririk ugiñeri begira zegon begiratu ilunez. Muttil arraunlariak ziotsan Mireiori:

Begira zein zabal dagon Rodanoren uberka! Camarga ta Crau bitartean ze zaldi-guduka eder egin daiteken! Ugarte au Camarga dun, nexka, ta zabalean, Arlesko ibaiaren zazpi aboak ikusi-ala. Muttila mintzo zelarik, Rodano goizeko argi gorritz dirdirka ari zen, eta ontzixka bakar batzuk bare bare zoazin ibaia barrena. Itsas-aizeak, zut-

oialak aizatuki, aurrera zeramatzin, artzainak axuritaldea bezala. Itzal bikainak! Lizar eta lertxun luze ikaragarrien gerri zurailak ertzean erraiñu egiten zuten. Aien-belar zar biurriak zintzilikariz gerrikatzen zituten, eta adar lodietatik egozten zituten beren altxuma kozkortsuak. Rodano, bere ugin nekatuekin, aundikien ibilkeraz, Aviñongo yauregia uruñatuz, eta yolasak eta musikak gutxietsiz zoaien eta zaar eriorakoa bezain uzkur ta ilun zegoen, bere urak eta izena itsasoan galtzera zoalako. Baño nik kantatu dutan maitea, ertzera yauzi egiña zen. Oa, esan zion mutikoak, abil, bidea dunaño. Santak beren Elizatxora zuzen zuzen eramango aunate. Au esanarekin, bira egin zuen arraun-indarka. Gara-garrillaren suen pean badabil Mireio, badabil. Eguzki yeikialdetik etziñaldera, ta iparretik egoara ez dakusa zabaldi neurribage bat baño, begiek ikus-ala guzian, eta azkenean itsasoa. Noizpin belar-izpi batzuk, milazka, belar-latxa, sabi, zumarika ta sarobe-belar, itsasaldeko zelai gazi aien yantzigarri. An dabilta aron zezen beltz eta zaldi zuri, itsas-aize ezoa pozez arnastuki.

Eguzkiaren sapaï urdiñak sabel eta dirdaitsu besarkatzen zitun zingiradi aiek. Arteka, urrutiko oxezki argitsuan zirlingaren bat egan doa; edota egazti aundi zangaluzeak, urmaeletik aterata, egaz erraiñu egiten du legorrean. Edota zaldun zango gorria edota egazti-uridin begi-iluna, bere iru lumazko galdorra arrandiz eraikitzen dularik.

Eguzki kixkalgarriak kordebage uzten du.

Eltxoak bere baitara biurtzen dute.

Sargori da, ta nexkak beroa astantzeko, gerrian zeramatzin eskuzapiak askatzen ditu. Beroa gerogo ta miñago, kixkalgarrigo, ta eguzki aundiaren arnasa ta izpiak yasan datoz ekaitz-zurrunbiloa bezalla. Olaxe, gosek amorratzen dagon leoe batek begiz iresten ditu Abisiniko basarteak, Eder bai litzake pagopean etzitea! Eguzki-izpi urreek dizdizka, erlemulko aserrea, liztormulko aserrea dirudite goraka ta beraka, ta zorrozten arri den galtzairu dirdaitsua dirudite. Akituta beroak uko eraginda doan maite-bideztiak, gorontzetik orratza atera du, ta aren bular-te atsandituak, iturri garbian ugin bikia dirudi, ta itsasertzean zuri zuri nabari den akara-aiena. Goxo goxo begien aurrean zedukan zabaldi arek

galtzen du bere illuntasuna, ta urrutira aintzira aundi bat agertzen da zirkinka, ta lizarrak eta saratsak ur-zabaldi inguruak, erañu ta itzalpe aundia botatzen dute. Zeruko ikuskarria zen; lur itzemanaren amets gozoa.

Ur urdiñaren ertzean, laster, urrutixko, uri bat ageri da bere alderriekin, arresiz inguratua, iturri, eleiz, tellatu, ta ezkildorre txirinakin, eguzkitara aziko bailiran. Ontzi aundi ta ontzixka, zutoial zuriekin, kai-larrainera sartzen ari ziren, eta aize lasaia yostetan ari zen zutoin-ezurretan zintekin eta banderatxoekin. Ikuskarri aren aurrean Mireiok izerdi ugaria idoki zun bere esku meez.

Yainkoa, esan zun berekiko; au arrigarri da; ta laister ta laister, ara yo zun zuzen, iru Donamarien il-etxea an bai legon. Laister egiñala, ordea, iduritu liluragarria itzaltzen zoakion, urru-tiagoka. Amets utsa, izukari utsa; aize yostalariak irazki zun eguzki-izpiz eta odei-margoz. Aren irazki meia lañoa antzo urtu zen. Mireio bakar gelditu zen eta burtzoraturik zabaldi artako beroaren berroz. Berriz ekiten dio bideari, are-pilgori, uster, zango-nekagarri aietan barna, eguz-

kiak dizdizutzen ditun gatz-lapatxetan barna, aintzirabelar eta zumadietan barna, eltxo tartetik. Buruan Bikendi, aldi bat bazen Vacarresko itsasegi sakona atzeman zula. Itsaso urrutian, laztuan, ikusten zun Santa aundien eliza gorri-ta, legorrera datorren ontzi oial-aizatua bezala aundituz. Alako batean, orde, eguzki-izpi kiskalgarriak bekokia artzen diote. An dago, gaixoa itsasegian il-agian, ondarrean etziña. Ene Crau, zure lorea makurtu da! Nigar egizue gazteak! Eiztariak ibai-ertzean uso-talde gaixo bat edaten eta lumak leguntzen ikuski, zakardian barna laisterka yoan ta iskiloz beti ederrena zauritzen dun bezala, alaxe egin zun artan eguzki errukibageak. Gaixoa ondarpillean zetzan kordebage. Ustekabean eltxo-talde bat zoaien bidez, eta asperenka zegoala ta bular zuria pilpiraka ta epuru-abar bat ere itzaltako etzedukala ikustean, eguzki kiskalgarriaren tartean pirurika asi ziren furrundan, eta belarrira musika au emaniduri zioten: «No, eder, gora! ots, yeiki adi, zingiradi gazietako beroa gaiztoa dun eta». Anartean, aznai ematen zioten buru makurtuan, eta itsasoan orobat, aren matalail-arroseri iintza xeia ta

minkatxa zirtatzen zion. Mireio oñazez ta zizpuru-
ruka yeiki zen, au nere burua! ziolarik. Eta geldi
geldiro, belargazietan gaindi, Santaetara iritxi
zen belaun-ikaraz. Ta nigarra zariola, itsasoak
ezotzen dun balizaren solairuan auspez yarri
zen, Gaixoa! Ikus zer otoitz bialtzen zun zerura,
aizearen egoetan:

Gure nigarrak lore biur ditzakezuen Mari
doneok, entzuizute nire oñazea! Nire oñaze
zorrotza dakusazunean, ene Yainkoa, urrukituko
zakizkit!

Mutil bat dut maite, Bikendi ederra, biotz
guziz maite ere, Mari doneak!

Maite dut, maite; ibaiak igarotzea bezala,
txoriak ega bezalla.

Ta su irazeki eziñitzali au nik iltzea nai dute,
ta arbendol loratsua autsi dezadala. Gure niga-
rrak lore biur ditzakezuen Mari doneok entzuizu-
te nire oñazea!

Eguzkiaren iltze zorrotzak, arantza ankerrak,
burua zulatzen didate.

Siñes idazute, ekatzute Bikendi, ta biok eto-
rriko gaituzue berriz par-irritan.

Bekokian oñazea kenduko zait eta nire begi nigarrez beteok, pozez dirdir egiñen dute. Aitak ez dit uzten arekin ezkontzea; uki iozute biotza, urrezko santa ederrak! Oliarana, gogor dagola ere, Gabonilleko aizeak ontzen du, bere garaiean. Otsalizar eta mizpira minkatzak, agotzak ontzen ditu.

Gure nigarrak lore biur ditzakezuen Mari doneok, entzuizute nire oñazea.

*Mari doneek agertzen zaizkio
aien Elizatxora irixten denean.*

Lilluratzen ote naiz? zer da au? Paradisua? Eliza aunditzenago da; an goien izartalde bat ageri da zirrikutik.

Zaindari ederrak, zuek al zaituet? Itzal itzazue buruntzaizpi oriek, bestela illen naiz. Zuen mintzoak egiten dit ots. Zergatik etzarate gordetzen odeitartean, begi nekatuontzat? Non dago elizatxoa? Itz egiten al didazute?

Kordebage, atsanka, erdi-ilik, an zegoen Mireio belauniko baldosen gaiñean, besoak gora, burua atzera, ta Yondone Petriren ate-barnean, aren begi geldiak beste mundua zakusten aragi-estalkia urratuz. Mutu dago. Aurpegi ederra iduri-aldatzen zaio, ta gorputz ta arima, igeri dago Yainkoari begira.

Zumar txurien burua urrez estutzen dun Argi-urratzekoan gizon galdu bati argi egiten ari ontzia, bereola zurbiltzen eta itzaltzen da.

Iru andre Yainkozko eder, zeruti datoz izar argien bidexkatik. Eguntzean barratzen den artaldea bezala elizatxoaren zutabeak eta sapai-zubia leku eginka asi ziren aien aurrean. Eta iru Mari zuri dirdaitsuak an sartzen dire. Batak, bularraren kontra, kelagar-ontzi bat zekarren. Aren bekoki zerutarrak, gabez artzaiei argiegiten dien izarra gogoratzen digu. Bestea, soiñeko ta girgillak aizean iñarika, erabidez dator, eskuan aztapar-adarra. Irugarrena, gazteñoa, aurpegi beltzerana, soiñekoz izkutuka, beginini beltzetatik diamante-dirdaia zariolla. Gaixoarengana zoa-zin, eta ondoratu orduko itzegin zioten. Ain ezti,

ain garbi mintzo ziren, ain irri goxoz, Mireioren arantza gogorak lore ugari zoragarriak erne baitzituzten.

Donamariak poz-berritzen dute Mireio.

Poztu zaite, Mireio gaixo, gu gaituzu Yudeako Mari aiek. Gu gara itsaso aserrearan gal-zorian dabilen ontzixkaren zaindari, ta itsasoa gu ikusi orduko, baketu egiten da.

Begira orde, ara gora. Bai al dakusazu Yondone Yakueren bidea? Aitzintxe an geunden beiko muturrean, eta izarretatik ikusten giñuzen Compostelara gure seme ta illobaren il-obian otoitz egitera doazin bidezkoak. Andik entzuten giñuzen letariak. Iturrien txirristotsak eta ezkillen kulunkak eta ilunabarrak eta bidezkoen txangoak, orok aunditzen zuten gure seme ta iloba Yakue aundia. Ta aren oroitzapena ola edertzen zuten bidezkoen bekokietan iintza goxoa ixurtzen genun, eta aien gogoan poza ta bakea. Tximista bezain zorrotz igo dire guregana zure zinkurinak. Nexka, siñeste aundia duzu, baña zure

eskariak biozmin egiten digu. Zoro orrek, maite-iturri garbian edan nai duzu; il baño len, zoro orrek, Yainkoarengana garamatzin bizitza bizkorra murtxatu nai dun.

Noizdanik arkitu dun emen beian zoriona? Bai al du aberatsak? Aizatua, etzana, garaile-surrean, Yainkoa ukatzen du ta bide guzia betetzen. Izaina, ordea, beterik dagonean, erortzen da. Ta zer egiñen du arrandi aundi ark, Yerusalemen asto gaiñean sartu zen Epaikari aurrean yartzen delarik?

Bai al du amaren bekokiak, len-seme yaioberririari pozikaraz ugatza ematen ari delarik? Titialdi kaltekor bat aski. An ikusiko dun seaska agertura makurtua, gaxo ila musuz yaten dularik.

Bai al du emaztegaiaren bekokiak, senargaiatz batera elizara geldiro dioalarik? Bidexka au dabillenari, arantzabeltza baño latzagoa zaio.

Emen beiko au, guzia neke ta lana baño ez da. Emen, beialde ontan, ugiñik garbiena ere, edan-ala mindu egiten da. Emen beian, igali berriaren ondotik arra sortzen da, ta guzia igitzen, guzia usteltzen. Alperrik aukeratu saskian: urre-sagarra, yatekoan eztisu dena, arian arian

beazun biurtuko. Ta arnas ori aditu-usteko dun mundu ontan, eta ene! esan. Baño agortzen eta mintzen ez den iturburutik edan nai dunak, erosi dezake, gorriak ikusita. Arri kozkoa zati zati egin bear da, barnean daukan zillar-txilista ateratze-ko.

Zorioneko bada, naigabeak etsian eramaten dituna, ta eriotzak ongi egiten arkitzen duna, ta anaiek nigarrez ikusita nigar dagina, ta bere soingaiñekoa larru gorrian dagon beartsu zimel bati egozten diona, ta otzak dagonarentzat etxean su aundia pizten duna, ta txikiarekin txiki egiten dena. Au da gizonak aazten dun itz ederra: «eriotza bizitzea da». Ta otzanak, eta onak, eta errukiorrak, zorioneko! Aize mei baten ufakoz zerura lasai sartuko dire, ta lilia bezain zuri direlarik, utziko dute, saildueri beti arrika ari zaizkien mundu au.

Bazenekusa, Mireio zein kaxkarra dirudigun zeru goienetik mundu au, ta zein zoroki irrika dituzuten ukitzen diren gauzak, eta zueñ illerri-rako beldurra, oiuka eskatuko zinuke eriotza ta barkapena. Baño garia burutu baño len, lur barnean irakin bear du. Lege da. Gu ere zeruko argi-

izpiak baño len, edari miñ ori arturik gaude. Ta zure kemena indartu dedin, yalkiko ditizugu gure bideko elorrioak eta estuasunak.

Au esanda ixildu egin ziren, eta ondarra legunkatzen duten ugiñak laisterka zoazin itsasertza ainbat zabal, Santak esanena entzutera. Piñudiak keiñu egin zion altzadiari, ta antxitak eta zirlingak ikusi zuten Vacarés izugarria bere ugiñak baretzen. Eguzki-illargiak urrutiko aintzi-radietatik agur egin zuten bekoki zabal gorria apalduz, eta Camarga gazia ikaratu zen. Zorioneko Andere aiek, nexka maitalea bizkortzearen, ola asi ziren izketan:

XI SANTAK

*Iru Marik Yudeatik Provenzara,
Kristen beste ikasle batzuekin.*

Gurutz-abea oraino Yudeako mendi artan zuti zagon, Mireio. Yerusalemen garai, Yainko-odolez oraino ezorik, ogentzarra eginda lo-zorroan zagon uriari oska ari zitzaion. «Zer egin dun, zer egin, Belengo Erregeaz?» Eta karrika ixiletatik etzen orduko oiurik gora. Kedron-mendi bakarra urrun zinkurinka, ta Yordan beltzuria, bakartegian izkututzen zinkurin-asper bat egiteko, legeltxor ta auntzadar-belar artean.

Ta erri gaixoa illunik zagon, bai baitzekin bere Kristo zula, il-obiko baldia kenduta llagun ta ikasleeri agertu zitzaiela, ta gero Yondone Petiriri giltzak utzirik, arranoa bezala zeruetara igo zela. Bai! uts aundi bai zuten Yudai-errian Galileako zurgiñ ederra bage; ipuiñ eztiz biotzak baretzen zitun zurgiñ ile urre gorria, ta muñoskan yendea otillaz asetzen zuna, legendunak

sendatu ta ilak piztu egiten zituna bage. Irakasleak orde, ta errege, apez, eta Elizatik Maisuak iraitzi zun saltzale-talde basaziak zioten kuxumuxuan: Sionen da Samarian Gurutzearen dir-daia laister itzali ez baledi, nork burutu artalde orrekin? Ordun aserrea gaindu zen, ete martiriak siñesmena aitortu zuten. Estebe, bizirik arrikatua; Yakue, ezpataren pean illa, zenbait, arkaiz-pean lertuak. Baño naiz sutan, naiz aizto zorroz-pean ill, guziek zioten oiuka: «Bai, Yesus Yainkoaren semea da».

Gu, aren atzeta noranai genbiltzen senideok, ontzixka batean, arraunik eta aize-oialik bage, itsaso aserrera yaurti giñuzeen. Emaztekiak nigarrez ugaldeka, gizakiak zerura begira. Urrun, urrun zoazin ollioidi, yauregi ta dorre; Karmelgo galdor koskatsuak urrungo zero-mugan ageri ziren. Allako batean oiu bat entzun giñun. Burua itzuli ta ondarrean andre gazte bat. Besoak altxatuz oiu egiten zigun ito itoan: eraman nazue ontzixka ortan, etxekoandreek, «eraman nazue. Nik ere Yesusengatik eriotza gogorra yasan naidut».

Gure neskame Sara zen ola oiuka ari zena. Begira gaur zeruan bekokiak nola argi egiten dion, yorraileko egunargitzeak bezala. Iparrak urrun garamatzi; Salomek ordea, Yainko-argiz, bere estalkia zabaltzen du ugiñetara. Siñesmen altsua! Ugin kizkur, argi, urdinkararen gaiñetik gure ontzixkaraño etorri zen murgildu bage neska gaztea, iparrak bultza eta estalkiak eramaki. Urrungo lañortartean banaka banaka gure errialdeko gainak itzaltzen eta itsasoa aunditzen ikusita, naigabe barren batek artu giñuzen. Agur, agur, lurralde saindua! Agur Yudu-erri doakabea, zintzoak esetsi ta zure Yainkoa gurutzatzen duzuna! Gaurgero zure maastien morkak eta aztaparren datillak leoe izugarrien yanari dire, ta zure arresiek sugetzar zitalen gordagu. Agur, yaioterri, agur!

Ekaitz-aize zakarrak ontzixka alderoka zabilen itsaso aserrean. Martial ta Zernin belauniko yarri ziren aurrealdean. Torpin zarra gogonduri, bere estalkian biltzen da. Aren ondoan zagon eserita Masimin apezpikua. Zutik, zubi-tartean, Lazar, ill-obiko ta zapiaren zurbila oraino zitula, aize orrodunari aurpegi emaiten. Ontzixka gal-

duak arekin deramatzi arreba Marta eta Madalen, au baztarrean etziñik eta naigabez malkoka.

Ipernuk dakarren ontzian Eutorpi, Sidoni, Arimateako Yosepe, Markel eta Keleon, toleten babesean datoz. Urdiñerri ixil artan Salmu-kanta eman zuten eta guk batean erantzuten giñien: Goresten zaitugu, Yainkoa! Bai laister zoala ontzixka ur dirdaitsuetan! Oraino ikusi uste ditugu, ura zurrunbilotzen zuten aize-furrunda izugarri aiek, eta zutabe mei biurturik, urrutira aizatzen ziren ispirituak antzo.

Ekaitza.

Eguzkia itsasoan yeiki ta itsasoan etzin. Zabaldi gazi ua barna, aizearen mendean giñoazen. Arkaitzetatik ordea Yainkoak gu begiratzen, Provenzarrak Bere legera erakartzeko autatu baikaitu. Goiz batez, iñoiz baiño eguraldia barego zagon. Aurretik zoakigun gaua, argiuntzia eskuan, labera ogi-erretzera doaien alargun goiztarra bezala. Ugiñak, larraina bezain txabal, ozta yotzen zuten ontzia. Zeru-muga urrutian

erortzen da ta geitzen da une oroz orro izugarri bat; urubika ta intzirika ari den susmur ezezagun bat. Ezurretaraiño sartzen zaigu ta muturik uzten gaitu. Andik emendik, ikusterre guzian, ura ta ura. Ta itsaso bildurti kizkurrean, aize-pirrinta laisterra, izugarria, ta gure inguruan ugiñek illik, zain gaiztoaren yoa! ontzixka geldi zedukaten aztikeriz bezala. Alako batean, urruti, ur-mendi izugarria yeikitzen da. Itsaso guzia guregena zatorren zurrunbiloan, orro ta marru, odeitzarrez bildurik. Betbetan itsasaldi batek ixurkiaren ondarreraño amiltzen gaitu, ta berela eraikitzen ugiñen galdorrera ikaraz, erio-beldur. Ua larria! Ua naspila! Tximista luzeek illuna argitzen dute aizea zarratatuz, eta bata besteren ondotik ostots izugarriak burrunba egiten; ifernu guzia askatzen da gure otzixka iresteko. *Labeche* ikaragarriak ziztuka, orroka, lekune-gaiñera bekokia makurtzen digu. Itsasoak batzutan ugiñen bizkarrean eraikitzen gaitu, bestetan zoko beltzetara sartzen gaitu, uretan galduen nigar illuna entzutera, itsas-oillar, foka ta marrazo dabiltzan zokoetara. Ene Yainkoa! Galdu giñan. Gure buruetan llertzen da ugiñ aundi bat, eta

Lazarek dio aienea: Yainkoa, zaite gure lema!
Zuk atera nauzu bein lurpetik. Lagun gaitzazu!
Ontzia iraultzear da! Basa-usoaren egaldiak
bezala, aren otoitzak odeia urratzen du, ta zeru-
ra ega egiten. Yauregi-aulkitik, ikusi du Yesu
garaitzaileak. Itsas-gaiñean an dakusa Yesuk
bere ediskidea, urak laister iretsiko dun adiski-
dea. Begi errukarriz begiratzen digu. Berela,
ekaitz-erdian, eguzki-izpi luze bat agertzen. Alle-
luia! Oraino gora-beira gabilitza ur gazitan, eta
bustirik, akiturik, kiratsa okatzen dugu, Berber-
tan ordea, ikarak igesegiñ, ugiñ izugarriak ber-
din, odeitzarrak urrun aize biurtu. Legorra ageri
da argi ta musker, lore-kuskua lertzen bai litzan.
Oraino kulunka gabilitza ugiñetan, ukaldi lazga-
rriengatik. Baina baretzen dire atzenik ontzi
argal aurrean, aixe-ufa batez. Ontzi meiak
aateak bezala ura urratzen du, ta tillapeak apar-
muilloak ebakitzen. Arkaitz bageko egi batean
alleluia! ontzia legorretara da. Ondar ezoan
guziok belaunika oiuz esan genun: ekaitzetik
begira gaitzazu. Emen dituzu gure buruok aiztoa-
ren azpian badere, Kristoren legea zabaltzeko
gai. Zin egiten dugu.

*Provenza-errian Kristoren legea
aldarrikatzen dute.*

Izen zoragarri onen otsera, Provenza-erria poz dardaretan dagola dirudi; izen berri au entzutean, basoa ta zabaldiak poz ikaraz dire, nagusia datorrela entzunda, xakurra laisterka yostetara doakion bezala. Itsasoak magurioak okatu zitun. Zeruetako gure Aita! gure gose luzeari oturuntza eman diozu; gesal zabaletan, gure egarria asetzeko zuk yalkiarazi zenun iturri miraritsu, garbi, osasungarria, ta oraino badario gure ezurrak dauden Eleizan.

Siñeste gartsuz Rodano-ertza atzematen dugu, ta aintziradiz aintziradi goaz, zer gerta. Berela lurrean ikusten dugu golde zantzua, ta urrutira Arlesko dorreak, Agintarien bandera eraikitzen zutelarik. Gaur egunean segari aiz, Arlesko uria, ta ire larraiñean etzanik, ire aspal-diko aipua darabillan ametsetan; ordun aldiz, arraunlarien erregiña ta ama intzan, ainik eta kaiean ontzian lerro lerro yarrita ez baitziteken

aizerik igaro. Erromak berriro yantzi indunan arri zuri landuz eta ire bekokian buruntzatako yarri zetinan eun ta ogai ate, Ondartza aundietan. Orduan Erroma erriaren erregiñ-alaba intzan, eta ire burukerien asegarrizat baeduzkanan zirkua, ubide bikaiñak, antzokia ta zaldi-laistergua.

*Torpinek Kristoren legea aldarrikatzen
du Arlesko antzokian. Uritarrak.—
Kristau biurtzen dire.*

Sartzen gara urian. Yendetza antzokira zoaien. Bai gu ere aiekin. Yauregien tartera, arri-nabarrezko Yauretxeen itzalpera amiltzen da erri oldartua, arruetan ugaldea astigar tartetik orroka doaien bezala. Birau gaizto! Lotsa gaizto! Sanbuka lizunaren otsean, antzokiaren oinean, an zebilen neska sail batek ingururumarika ta karraxika, lelo bat kantatzen zun, eta garria makurtuz, Venus zeritzaion arnabar puska baten aurrean dantza lizunak ari zitun. Erri eroak gaiñak ematen zitien oiuka: Kanta iogun, kanta Venusi, poz oro dakarren yainkosa aundiari!

Arlesko lurraren eta erriaren amari! Neska-mutillek au esan bitartean, yainkosa aizunak, bekokia gora, sudurra zabal, kedats-laiño tartean arraianez buruntzaturik, aundi-ustez arrotzen zela ematen zun. Ontan, ainbeste lotsabagez aserreturik, oiuk eta dantzak geldiarazita, an aurreratzen da bipil Torpin zarra, besoak gorarik, yende arritu arengana ta ozenki mintzaturio dio: Arlesko erria, entzun, entzun nire itzak; entzun Kristoren izenean.

Etzun besterik esan, Bekaina zimurtzearekin, dardarazten du yainkosa aizuna, ta erortzen da zutondotik. Arekin batean, neska dantzariiek erortzen dira ikaraz. Oiu bat dute guzien artean; urubia besterik ez da bereixten. Yendea eriosuar ateetara da, ta urian ikaraz barratzen du. Errigurasoek beren buruntzak kendu; gazte suminduek inguratzen gaitute deadarka. Puñal dirdaitzuz betetzen da aizea... Baño gure yauntzien gatzak, Torpinen bekoki baketsu goi-argiz beteak, eta aien Venus zurruna baño ederragoko Madalenek nigarrez urturik, utzeratu egin zitun lipar batez. Ordun berriro Torpinek: Arlesterrak, entzu itzazue beste itz ok eta gero moztu niri

lepoa. Or ikusi duzu Arlesko erria, kristala baiño auskorrago den yainkosa aizun ori erortzen, gure Yainkoaren izena entzun orduko. Ez uste nire mintzoak oinbeste indar dunik. Ezer ez gara gu. Zuen iduri aizun ori egotzi dun Yainkoak, ez du Yauretzerik emengo muño gañetan; baiño gauak eta egunak Ua besterik ez dute goietan ikusten. Ogenarentzat eskua latza du; zaballa otoitzarentzat. Bakarrik egin ditu lur-zero-itsasoak, berak bakarrik mendiak. Bein batez, bere yarlekutik lli-puek yana ikusi du bere Ona; ikusi du yopua bere malkoak edaten, iñoren pozbide bage; ikusi du Gaitza, apez-yauntzian aldareetan irakasten; ikusi ditu zuen alabak lotsagarrero, mutil lizunen besoetarutzen. Eta oinbeste loikeri garbitzeko; abeari loturik zegon gizadia oiñazealdi luze ortatik ateratzeko, Bere Semea igorri du. Agur egin zezaioken eguzki-izpi ere bage egotera, neskatx baten sabelera sartu zen, eta aska batean yaio, agotz gaiñean. Arlesko erria, damu zaite!

Aren lagun giñan bizi zalarik eta Ark egindako arrigarrien aitorle gara. Urrutietan, Yordan ibaia garbi doaien aldeetan, yendeketa zarpil gose baten erdian, ikusi genuen Aren soiñeko zuri

liñozkoa. Elkar maita genezala esaten zigun, eta ba-zela Yainko bat baztergabe ona ta guzia al duna; ba-zela an yaurerri bat, ez ordea gezur-tientzat, ez arroentzat, ez lapurrentzat; xumeentzat ordea, ta bakunentzat eta nigar dagiteneentzat. Itsasoan ibilki indartzen zun bere irakaskizuna; gaixoek, Aren begiratzuz, Aren itz bakarrez sendatzen ziren; ildakoek, tarteko arresi illuna autsita, bizitara zetozen: or duzute Lazar, maindireetan usteltzen ari zena... Orregatik, ain zuzen, errege yuduek gorroto artu zioten eta atzi ta muño batera eraman, beazun-ura edanarazi, aurpegi saindua txuz bete, ta gero gora eraiki, iseka zegiotelarik... Barkapena, barkapena! oiugin zun erriak nigarrez itokarrean, barkapena guretzat! Zer egiñen dugu Aitaren besoa beratzeko?

Itzegizu, Yainkozko gizona, itzegizu. Odola gogo badu, eun ill-opari eskeñiko ditiogu. — Eskeñi iotzazue zeron atsegiñak ilda, zeron gaitzerako gosea, esan zien gizon saindu ark belau-niko. Etzaizu atsegin, yauna ildako opari baten urriña, ez arrizko yauretzerik; naigo duzu gose dagonari ematen zaion ogi-okela, edo bere gar-

bitasuna maiaz-lorea bezala eskaintzera ikaraz datorkizun neskatx ezta. Yainkoaren bialdu aundiaren abotik ola yario zen olio saindua bezala Yainko-itza. Ta gaixo ta langille, aren soñekoeri muinka ari ziren. Artan, gezur-iduri guziek yausten dire aldarean beira. Ta bertan, egi aren aitororde, itxu yaiotako Sidonek bere begi-niniek erakusten zitien Kristok argitu ondoan. Maximiniñek berriz, Kristoren piztea yalkitzen zien, eta damua gauza bearra dela eskerra irixteko. Egun artantxe eskatu zun bataioa Arlesko uriak.

*Erensuge izugarria.— Martak lotzen du.
Arlesko uria onbiurtzen da.—
Provenza Prantziarekin bat egiten da.*

Zakar-pila isasten dun aizealdiak bezala, gu Yainkoaren arnasak garamatzi. Giñoazala, gure aurrean auspez yartzen dire orde z bialdu batzuk estu ta larri. Itxedon apur bat, diote, Yainko onaren atzerritarra, entzu iguzu. Arrigarri ta igarkizun aundi oriek entzunda, zure oiñetara bialdu gaitu uri doakabe onek. Ikaraz izozturik gaude.

Gure oianetan eta zokoetan or dabil piztitzar bat giza-odol billa, yainkoaren eskumakil. Erruki gutaz! Erensuge-isatsa du, ta begi-niniak argorria baño gorriago. Aren bizkarreko ezkatat eta geziak ikara ematen dute. Leoe aundi baten muturra du; sei giza-oin ditu, laisterrago ibiltzeko: Rodanopeko aitzulo batera derama atzemanala guzi. Gure arrantzaleek bakantzen ari, Aigure! Tarascondarrek, au esanda, nigarrari ekiten diote. Martak ordea, berantu bage ta zalantza bage esaten du. Ni yoanen naiz Markelekin. Biotza ari zait, ara laisterka yoateko ta uria libratzeko. Lurrean azkenez elkar laztandu genun, zeruan elkar ikusteko asmoan, eta bereixi giñan. Martial Limogesen gelditu zen; Tolosa Zerninek artu zun emaztetzat, eta Eutrop, lenik azi ona erein zuna, Orange arranditsuan kokatu.

Zu ordea, nora zoazi, Birjiñ ezta? Gurutzea ta iiztailua (isipua) eskuetan, bekokia legun, Tarascaren billa asi zen. Yende basati aiek piztitzar arengandik aterako etzela-ta, burrukaldia ikusteko ler-zugatzetara igo ziren mordoskan. Bere zokoan ustekabean esnarazia, bere etzauntzan aixukatua, an ikusiko zenuten yauzika! Alperrik

biurrika ta orroka ari zen; alperrik ziztuka ta uxtuka; ur bedeikatuak geldiarazten du. Martak lokarri mei batekin lotuta an derama sudur-uxtuak arren. Uri osoa gurtzera ateratzen zaio. Nor zara? zesaioten neskatx kristauari. Diana eiztaria, Minerva garbia ta bizkorra? —Ez, ez, erantzun zien neskatxak; nire jaunaren neska-meia baizik ez naiz. Kristau ikaskizunak irakatsi zitien, eta Yainkoaren aurrean belaunikatu ziren. Mintzo zorrotzez Avignongo arkaitza sakitu zun, eta fedea ugaldeka yalgi zen. Ara bildu ziren gerozago, edatera, Kelemen eta Gergori Aita Sainduak. Irurogeitamar urtez Erroma ikaretan egon zen bere izena gal-bildurrez. Anartean, Provenzan Yainkoaren atsegiñeko kantu bat sobirritu zen. Euri-tanta batzun ondoren ez al duzu ikusi zugatz-orriak par-irriz nola burua yasotzen duten? Biotz gori guziek bereolaxe zoazin arnasberritzera. Ik ere bai, Marsella arro orrek, betilleak itsasoari zabal, begia itsasotik okertu bage orrek, aize burrukalariak arren, urre-ametsetan agonan orrek, Lazaren mintzora begiak ideki itunan ire arresietan, eta ezagutu unan ere burua gau-ilunpean. Eta Madalenen malkoz asetzen

den Huevanan ere lizunkeria garbitu unan Yainkoaren aurrean. Gaur burua yaso dun berriro, ekaitzak aizegin baiño len. Gogoan idukatzin yaialdietan ere, Madalenen malkoak ire oliondok urasetzen ditutela.

Ex-ko muñoak, Sambucako galdor berdiñezak, Esterngo zokoak estaltzen dituzuten piñuak, Trevarasa betetzen duzuten Poinikeko orreak, yalki iguzute berriro, Maximiñek Gurutzea zera-mala artu zenuten poza! Ez al dun ikusten an beian besoak bularraren gurutzeran aitzulo banean otoizka ari den ua? Gaixoa! Aren belaunak arkaitzean errotzen ditun, eta bere ille utsa din yauntzitako, ta ilargiak zaitzen din bere argi motelarekin. Ua aitzuloan ikusteko, basoa makurtu egiten dun, susmurra ixilduz.

Ta aingeruek, biotz pillpilla geldiaraziz, zirriku batetik begira dagozkio; ta aren malkoren bat arkaitz-gaiñera erortzean, axola aundiz biltzen dute urrezko edontzi batean. Aski da, aski da, Madalen! Basoa bizten dun aizeak, ogeitamar urteotan Yaunaren barkapena ekarri dizu. Zure malkoaz batera, arkaitzak nigar egiñen du betiko, ta zure malkoek aize-elurra antzo, zuritasuna

zabalduko dute emakumeen maitasunera. Arkordea, damuaren damuz, ez du ezereen atsegiñik artzen: ez, bedeikatu izateko Aska sainduan kabia zuten ainbeste txorik ere; ez ta, egunero zazpitan, ibarretaz gaindi besoetan kulunkatzen zuten aingeruek ere.

Goratzapen osoa ezazu Yauna! Ikusi zaitzagu beti zere izate ederrean! Emakume gaixo atzerriratuok, zure maitez zoraturik, naski, atzerriratu ere ditugu zure betiko argiaren izpi batzuk.

Baus-ko muñoak, Alpin urdiñak, zuen arru ixilek, zuen orratzak mendeen mendetan gogoan idukiko dute arkaitzean ezarrita, gure aldarriaren oroitzapena. Aintziradi bakartsuetan, Camargako ugarte barnean, eriotzak urrundu giñuzen neke-egunetatik.

Gauza yausiarekin gertatzen dena, oroit-ezak estali zitun laister gure ill-objek. Provenza kantari ari zen, mendeak bazoazin, eta Duranzak Rodanon bere uraldea galtzen dun bezala, Provenzako errege-erri ederra, Prantziaren magal-zokoan etzin zen azkenik. Prantzia, eramazu zerekin zure arreba! —esan zun gure azkeneko

erregeak— nireak egin du! Zoazte elkarrekin, etorkizunak eskatzen dizuten egiteko aundia betetzera! Bizkorra i aiz, ederra ua dun; gau biurria aizatuko din zuen bekoki bat-egiñen dir-daiak. Renatek egin zun egiteko eder au. Oe biguinean zetzala, atsalde batez, guk erakutsi genion gure ezurrek non zeuden. Amabi apezpiku ta laguntzaleekin, bere yauregitarrekin eta yauntzi apaiñez, erregea itsas-egira etorri zen, eta gure ezurrek txartakapean arkitu zitun.

Agur, Mireio, mende au egan doa! Bizitza zure gorputzean dardarka dakusgu, itzaltzen ari den argia bezala. Arimak aldegin dezaion baiño len, goazen, aizpek, goazen usu! Goialdeetara ori baiño len yoan bearra daukagu... baitezpada, nai ta nai ez. Mireio iltzera doa Birjiñ eta maitelekuko. Lora zaitezte zeru-karrikak! Zeru goien-goaren argitasun saindua, zabal zaite Mireioren-tzat! Goretsi bedi Aita ta Semea ta Gogo Saindua!

XII ERIoTZA

*Donamariiek zerura.—
Gurasoek Mireio zegon tokira.*

Laranxa-errian, Yainkoaren eguna itzaltzen denean, arrantzaleek, pertolak ipiñita, ontzixkek arkaizpera deramaztenean, eta nexkek, saskiek bururatzen edo besaperatzen elkarri laguntzen ari direnean, Agens ibai karabilduaren ertzetik, zabaldietatik, muñoetatik, bidexketatik, urrutira talde-kanta luze bat altxatzen da. Ardi-marraka; maite-kanta, txilibitu-ots, mendi arreetan gal-tzen dire, ta itzala ta illalldia datoz. Baita, zerura igo-ala, Mireioen itzek itzaltzen ziren ezari ezar-ian, urrezko odeiez odei, kantu antzera, eleiza zarraren gaiñetik aizeak deraman musika beza-la. Nexka lo dago, ustez, eta ametsetan ari da belauniko, ta aren bekokia eguzki-dirdaiak ede-rragotzen du. Otalurretan eta zumadietan ordea, guraso zarrak billa ta billa, atzenik arkitu egin dute, ta zutik, eliz-atalean begira dagozkio arri-

turik. Artzen dute ur bedeikatua, esku bustia bekokira deramate, ta badoaz aurrera arbeleri otsa eragiñez. Ikara laborritan, eiztariek sumatzen ditun txoria antzo, yauna! oiugiten du nexkak. Aita, ama! nora zoazte? Ta ikusia ikusiz, lurrera yausi zen Mireio. Amak, nigar malkoka, yoan ta besoetan artzen du. Zer duzu? diotsa; bekokia zerk erretzen dizu? Ez naiz ari ametsetan, ez, nire oiñetan daukat; au da, nire nexka da. Ta ama gaixoak par-nigar ari zun. Mireio, alaba eder, aita nauzu, eskua estutzen dizudana. Ta oiñazez itoriko agureak, esku beroz nexkaren esku ozpinduak berotzen zitun. Artean, aizeak eraman du berri aundia. Donamaritarrek Elizatxora biltzen dire atea bete betean. Yaso ezazute goieneko kaperara taigabe —diote— uki ditzala santaen gorpuzkiak; muiñ eman dezaiela ezpain margulez.

Bi emakumek berela artzen dute besoetan. Eliz ederraren burualdean iru aldare daude, iru kaperatxo arkaitzean egiñak. Lurpekoan ijito beltzen ama Santa Sara dago. Bigarrena gorago, Yainkoaren aldarearekin. Elizaren zutabe-gaiñean Donamarien kaperatxoak gangarra zerura-

ño biltzen du, ta an daude gorpuzkiñak, goi-
eskerra daritela. Lau giltzek itxirik daude kutxa-
tilak. Kiper-zurezkoak dire, ta eun urtez bein idi-
kitzen. Zorionekoa, idikitzeoan ikusi ta uki
ditzakena! Eguraldi on duke aren ontziak eta zori
on, eta aren zugatz-altxumak saskitaraka ema-
nen dute igali, ta aren arima siñestunak atsartu-
ko du betiereko ondasuna. Ondare saindu ua,
zur-ate ederki ziriztuak gordetzen du, Bellcaire-
tarren esku-ekusi. Gordetzenago du ordea,
ateak eta arresiak baiño, zeru urdiña beira dato-
rren laguntzak. Gaixoa, zurgu biribilean gora,
kapera artara yasotzen dute. Apezak, eliz-ato-
rraz yauntzirik, ateari bultza egiten dio. Garagar-
dian aizealdiak buruxkek betbetan makurtzen
ditun bezala, erri guzia arbelean belaunikatzen
da, diolarik:

Santa ederrak, Yainkoaren Santa ongilleak,
bartzarralde ontako zaindariak erruki zakitzoe
nexka gaixo orri. Erruki zakitzoe, zion amak, eta
sendatu dadinean, ekarriko ditizuet nire urrezko
eraztuna, nire Gurutze loratua; ta erriz erri ta
landaz landa zuen miraria zabalduko dut. Gure
Santak, nire kurlinka dut, nire ondarea, zion

yaun Erraimunek asperenka ta illunbetan buruari eragiñez. Gure Santak, oraino eder, gazte ta gaiztabage den oni, bizitzea on dakio. Ni ezur-zpal zarra besterik ez naiz. Bial nauzue ziguñak ongarrizera! Begiak ertsirik eta mintzabage zegon Mireio. Arrats-apala zen. Egatx-gaiñean, itsasora begira yarri zuten millazkaen eguratsa ar zezan. Atea alegia (kapera sainduaren betazala) eliz-barrenaren gaiñetik begira dago, ta andik, zeru-ertz urrutian zuri zuri ageri da, zeru-sabela ta ugin gazia bereizten ditun muga, ta ageri da itsaso aundiaren betiko ikara. Taibage bata besteren gainka lotsabagetzen dire ugiñek elkar lertzez aspertu bage, are-pilletan marruka; ta legor aldetik zabaldi azkenbageak, zerumugan muñorik ere bage, ta zeru neurribagea otalur izugarrietan, edozein aize-ufak eragiten dien milazkak, txartakadi zelaiak, eta noizpenka aate-talde bat ugiñetan garbi-aldia artzen, edo padura soillean iditalde bat larrean, naiz Vacarés ibaia igeri igarotzen. Mireiok noizpait mintzo apalez itz bakar batzuk yalkitzen ditu: Legor aldetik eta itsasaldetik, dio, bi arnas bereizi senti ditut; bata ozkirri goiz-eguratsa bezala, bestea

orde nekagarri, sukor, samiñez asean. Au esanda
ixildu zen Mireio, ta Donamaritarrak zabaldira ta
ugituz gazieta burua itzuli zuten, eta gazte bat
ikusituz zuten berengana, lur zurrunbilloak eraikituz.
Aren aurrean millazkek iges-iduri zuten eta
xumetzen ari zirela. Bikendi saskigillea zen.
Gizagajoa! Errukarri alare!

Bikendi Mireiorekin.— Gurasoak.

Aita jaun Anbrusik ikusi zuneko, ez duk ire
ezpaiñentzat Basaka-bordako urtumea —esan
zian— oraino azkenez ikustearren Valabregatik
tximista bezala atera zenean. Craun esan zioten,
Santaengana yoan da. Rodanok, aintzirek, Crau
nekagarriak, deusek ezin geldiarazi aren laste-
rraldirik, itsasondarreko ugarteetara bitartean.

Elizara orduko, ordea, ainbeste yende bildu-
rik ikuski, zurbildurik oin-mutturren gainean, oi-
guten du: Non dago, esazute, non dago? Goiko
kaperan dago, erantzun zioten, ikaraz ta azkene-
koetan. Berela, zoraturik, gora doaie doakabea,
ta Mireio ikuskatzean, besoak eta burua zerura

vaso zitun. —Nire bekokian oinbeste zorigaitz artzeko —zion doakabeak— zer egin diot nik Yainkoari? Bulartu nindunari lepoa moztu al diot? Elizeko argiontziren batean pipa biztu al dut? edo Gurutzea lorrean erabili al dut astalarretan yudu baten antzera? Zertan utsegin dut, Yainkoaren urte gaizto, oinbeste ikusteko? Ez al zen aski niri aren eskua ukatzea? ta gaiñera berek oñaztatu dute!...

Bikendik besarkatu zun bere adiskidea, ta ingurukoek, nigar miñez ua ikuski, biotza pil-pil ari zuten eta minkide zitzaizkon eta nigar egiten zuten arekin batean. Zokoz zoko ur-yauzika doaien ixurkiak mendi-gaiñetako artzaia biotz-ukitzen dun bezala, Eliz-barrenetik erriaren kantua gora ziyoan, eta eliz osoan dardar egiten zun Donamaritarren kantu ederrak. «Santa itsastar ederrak, zuen Eliza gorriaren dorrea ta dorre-ortzak eraikitzeke aintziradia aukeratu duzuten ezkerro, zer egiñen du itsasgizonak ontzian itsa-soa aserretzean, berela zuen egurats biguina bialtzen ez badiozute? Zer egiñen du zuen laguntza bage itsu gaixoak? Ene! Ez da sobirik ez kir-tangorrik, aren zorigaitza senda dezakenik, eta

itzik egin bage egun osoa igarotzen du, bizitza illunean. Itzuli iozute begi-argia, Santak, beti itzala ta itzala, eriotza baiño okerrago da ta. Paradisuko erregiñak, zabaldi gaziko andereak, gogo duzutenean zuek betetzen ditiguzute sareak arrainez, baiño ondartzaz gazietako lore zuriek! zuen ate-ondoan deadarka dagon yendalde bekatoriari bakea palta bazaio, emozue bake saildua!».

Otoitz au egin zuten Donamaritarrak, eta aien ene-otsak biotza erdiratzen zun. Ontan Santek, eri gaixoa apur bat bizkortu zuten eta aren aurpegi alaiean par-irria sortu zen, Bikendi ikusteaz artu zun atsegiñarekin. Adiskide eder, nondik ator? Gogoan al duk an beiko landan biok alboka maats-aiepean itzegin ginula? «Gaitzen batek naibagetzen bai aun, esan idakean, oa laisterka Donamarietara ta berela sentiko dun poza ta aringarria». Bikendi maite! Ez ik ikusi bear nire biotza edanontzi baten erdian bezala? Pozak, poz sailduak gairiditzen zidak. Bere erretenean ezin dagoken erreka duk. Atsegin mota guziek esker eta zorionak mukurutzen dite. Yainko onaren aingeru-taldeak erdikusten ditiat.

Ontan ixildu zen Mireio ta begiek zabaldira zorroztu zitun. Urrutira gauza arrigarriek ikusten bide zitun, aize urdiñaren mugetan. Andik laister entzun genun berriro aren mintzo dardarakorra. Zori onekoak, zion, aragiak lurrari itsasten, ez dition arimak! Bikendi, ikusi al dituk, gorantzekoan aizean zabaldu dituzten argi-izpiek? Zer liburu ederra egin laiteken, esan ditidatenak itzez itz idaztearekin! Bikendiri ordurarteko malko idukiek eta zotiñek eztanda egin zioten. Yainkoari liotsa nik ikusi izatea, esan zun, Yainkoari liotsa! Elduko nien nik soiñekoetatik eta esanen nien: Zeruko erregiñek! gure igesbide bakarra zeratenok, erauzi niri begiek burutik, ortzak agotik, eriek eskutik; nire Maitagarri ederra ordea, itzul idazute bizirik! Emen dituk, emen dituk, soiñeko zuriekin, esan zun sostean, eta bitartean amaren altzotik aldegin nai zun egiñalean eta eriz itsazabala ziztatzun zun. Guziek batera yeiki ziren: guziek itsasora begiratu zuten, eskuak bekokian. Urrutira ez dugu deus ikustatzen oraingoz beintzat, zioten zerua ta ur gazia batzen ditun muga zuria besterik. Ez da ezer ageri. Bai, bai, begirozue ongi, esan zien Mireiok. Ez al dituzute ikus-

ten ugiñek aien aurrean zurrunbiloak baretzen? Bai, berak dire! Aizea garden dago, ta dakartzen aizeak alik biguiñena aizegiten du. Itsas-egaztiak taldeka ateratzen zaizkie agur egitera. Burutik dago gaixoa, esan zuten. Itsaso gorrixtan ez dugu ikusten, itzalzera doaien eguzki gorria besterik. Bai, bai, aiek dire, esan zun gaixoak, siñes idazute. Begiek ez naute liluratzen. Aien ontzia iñoiz murgilduz iñoiz gaiñeratuz onontza dator Yainkoaren mirariz.

Nexka zurbiltzen ari zen, zabaldu orduko eguzki-izpiek erretzen duten pitxi-lore zuria bezala. Bikendik bildur-ikaraz, ondoan belauniko, maitea Andere Mariri goraintzi dio, ta zeruko saindu ta santa guziera. Argiek piztu zituten. Estola morez yantzita gaixoarengana apeza urbildu zen Ebangelio-ogiz agoa ezotzeko. Bere la azken-igurtziak eman zition Olio sainduz zazpi tokitan, Eliza katoliku araura. Oro baketan zegon. Elizan etzen deusik entzuten, apezaren otoitza baiño. Ormaren zokoan, ugiñetan murgiltzera zoaien egu-argi illetsia, erraiñu argal gorrixka egiten zun, eta itsasoan ugiñek, bata besteren urrena lertzen ziren susmur goxoz.

Belauniko, mutil maitaleak eta aitamek, noizpenka zotiñ ixil ari zuten. Ots, esan zun Mireiok, aldegin bearra naiz. Ots, esku oriek, Donamarien bekokieri gero ta dirdai aundiago darite-ta.

Aien aurrean, aate gorrixtek laisterka datoz Rodano-ertzetik. Millazka loratuek agur egiten dite... Santa onak! keiñu egiten didate, aiekin yoateko. Ez beldur izateko, izar-bidea dakiten ezkerok, aien ontziak zerura eramane omen gaitu zuzen zuzena.

Yaun Erraimunek dio: Maite, oinbeste zarakadi garbitzeak zer onura zidan, bordatik aldegiten badun? Ik bizten nindunan. Beroak ni itotzen; elkorren suak erretzen; ik ordea, bero-egarriek mirariz aizatzen.

Aita, zure krisailluan gau-mitxirrika egalak erretzera doanean, ni izanen naiz, aita maite... Santak zuti daude ontzi-mokoan nire begira, bai... itxedozue labor... Geldi geldi noaie, gaizki bainago. Amak ordun, ez ez... aski da. Ez diñat, ez diñat i iltzea nai; geldi adi nirekin. Eta gero, ongi yartzen aizanean, Mireio, izoba Auranaren etxera yoanen gaitun saskia bete puni-sagar eramatera. Baustik urruti bage zegon Mellana;

egun batean yoan-etorri egin ziteken... —Ez dago ez urruti, ama, baiño begira, bakarrik egiñen duzu bide ori... Ama, ekatzu soiñeko zuria... Ez al dituzu ikusten Donamariak soiñean deramatzen soiñeko zuri ederrak? Muñoetan dagon elurak ez du onenbesteko dirdairik. Saskigille beltzeranak dio urrena: —Nire bizitza, nire ederra; ideki zenidan maite-yauregi ederra, zure maitasuna, limosna loratua. Nire satsa zuk garbitu zenun ispillua bezala, esankizunen beldur bage; zu, Provenzako txirlarria, zu, nire gazteza-roaren eguzkia; ain laister ikusiko al dizut bekoa erio-izardi izoztuz bustia? Egi ote da, Santa altsuek, azkenekoetan ikusiko duzutela ta zuen ateen alperrik laztantzen? Ontan, nextak mintzo aulez: nire Bikendi gizagajoa, zer duzu begi-aurrean? Zu lilluratzen zaitun eriotza, zer itz da? Ezkill-otsarekin itzaltzen den gandua: goizaldean esnatzen gaitun ametsa... Ez, ni ez naiz iltzen... Usu sartzen naiz ontzixkan... Agur, agur! Itsas-izea atzematen dugu, itsasoko zabaldi eder eragiña, zerurako bidea da, urdiñak inguru guzian ukitzen baitu ur gazia... Ene! urak kulunkatzen gaitu! Oinbeste izar artean billatuko dut

biotz maite bat, eragozpenik bage maitatzeko. Santak, zer ari naiz entzuten? urrutiko organu bat?... Au esanda, asperen egiñez, bekokia atzera makurtu zun lo egiteko bezala. Aurpegi irridun ark oraino bizi zela zirudin. Donamarietako auzotarrak ordea, aurreratzen dire bata besteren atzetik, eta argizari bat eskutik eskura aldatuz, Gurutzearen zantzua egiten diote gorputzean. Gurasoek izu-ikara dagozkio begira. Ubel ez baiño argi dakusate. Otz dagola ikusita ere, alperrik; ez nai, ta ezin siñetsi olako biotzondoko gogorra. Bikendik ordea, burua eroria, besoak zurrun, begiek leiar ikuski, «illik dago», dio. Ez al duzute ikusten illa dagola? Ta zuma bezala biurritzen ditu eskumuturrek, etsita. Ordun asten dire minduruka. Ez dire oiumiñek zuretzat baka-rrentzat —dio Bikendik— zuk utzita erauzi da nire bizitzaren zugatza... Illa dago, illa dago!... Ez, ez daiteke... Gaiztozkoren batek esaten bide dit belarrira. Emen zaudeten yende onak, esazute Yainkoaren izenean, erio-berriek ikusi dituzuten ezkerro; esazute, bizitatik eriotzean onela irri egiten al zuten? Ez al daduka aurpegia alai-urran? Zer egiten dute ordea? Oro buru-itzulka

ta oiuminka. Aski da, aski da. Ire mintzo ezta ez diñat gaurgoitik entzunen. Ordun guziek biotza lertu-bearretan dute. Nigar-ibaia darite, ta ugiñen marmari illunekin batean zinkuriñek gaiñez egiten dute. Beitalde aundiko bei ta zezen, biga bat il denean ingurura beratzi atsaldez dagokala datoz illunik, gaixoaz kupitzera; ta padurak eta ugiñek eta aizeak marru ikaragarri egiten dute beratzi egunez dagokala.

Yaun Anbrusi zarra, nigar zure alabagatik, ai ene! zion Bikendik. Arekin sar nazute zuloan... An itzegiñen didan, nire ederra, orain baiño geiago Donamarietaz, eta an estaliko gaituzute magurioz, itsas-ekaitzek! Donamaritar onak, zuetan dut itxaropen; egizute nik esana; olako min batentzat ez dire oiuaak aski. Ondar bustian idiki ezazute il-zulo bat biondako. Yar zazute gaiñean arripila bat, ugiñek bereizi ez gaitzaten. Ta ua bizi den tokian errukiz lurreraño makurturik dabiltaño, ua ta ni, zeru urdinpean, ur igiberaen azpian... bai... ni ta i, ederra, beti betiko, musuka ariko gaitun. Ta burutik eginda, saskigileak Mireioren gorputzari eltzen dio... ta doakabeak laztan zoragarritz estutzen du gorputz illa. Beian,

Elizan, berriro kantatzen dute: «Santa ederrak!
zelai negargarri ontako erregiñak, gogo duzute-
nean, zuek bete oi dituzute gure sareek; baiña
zuen ateetan dagon yendetza bekatariari bakea
bear badu bake sailduz bete itzazute itsas-
ertzeko lore zuriok».